# Goienkaria

2006ko irailaren 29a > Egubakoitza > VI. urtea > 258. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net



"Jendeari lotsa ematen dio etxean senide gaixo bat duela esatea"

**Rafael Kortabarria**

Nagusilan > 09

**G2a** Euskal Herriko lihoaren historia, liburu baten > 43

**MAHATSA**
Aurtengo mahats uzta eskasa dela diote gureko txakolin-egileek > 05

**MANKOMUNITATEA**
Juan Carlos Bengoa da presidente oraingoz, berria aukeratu arte > 07

**ANTZUOLA**
Etorkinen harrera plana ikertu du Venezuelako psikologo batek > 36

**OSASUNA** > DEBAGOIENEKO OSPITALE BERRIA

## Bost espezialitate gehiago eta 120 ohe izango ditu ospitaleak

**AURKEZPENA** Gabriel Inclan Osasun sailburuak ospitale berriaren proiektua aurkeztu zuen atzo, eguena

**HANDIAGOA** Gaurkoak baino edukiera handiagoa izango du: 120 ohe, orain baino 46 gehiago, hainbat unitatetan

**BERRITASUNAK** Urologia eta beste espezialitate berri batzuk izango ditu, eta indartu egingo dira dauden zerbitzuak > 02-03

**ETXEBIZITZA** > ARRASATE

## Babeseko 44 etxe, esleituta

Uribarrin babes ofizialeko 44 etxebizitza egiteko lanak adjudikatu dituzte asteon > XX

## "Garaipen handirik erdietsi barik ere, zaleek ikus dezatela Euskalteleko ziklistok dena eman dugula errepidean"

Horixe gura du Markel Irizarrek, eta horrela izan dadin gogor egingo du lan Euskalteleko zuzendari berri Jon Odriozolak. Garai bateko talde izaerara itzuli gura dute, gutxi batzuek orain arte izan duten protagonismotik urrun. Seguru taldeak eskertu egingo duela hori, eta baita zaleek ere. Horretaz eta beste gauza askotaz berba egiteko izan gara bi oñatiarrekin. > 40



**OÑATIARRAK** Bi herrikide eta adiskide, orain talde berean: Jon Odriozola eta Markel Irizar. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-08
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

Omega Elevator, s.a.
• Igogailuen instalazioa etxebizitza zaharretan
• Gremioen koordinazioa
• Arkitektura-oztopoen kentze lanak
Jundizko industrialdea 29 GASTEIZ
Tel.: 945 29 03 08 / Faxa: 945 29 04 96
omegaelevator@omegaelevator.com

IKER
SUKALDEAK:
ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
BAINUAK:
ARRASATE: Zarugalde 52 / 943 79 99 42
FAGOR




**OSASUNA** > DEBAGOIENEKO OSPITALEAREN PROIEKTUA

# Debagoieneko ospitalea izango dena aurkeztu du sailburuak

**AGINTARIAK** Gabriel Inclan Osasun sailburuak, Osakidetzako zuzendari orokorrak eta ospitaleko buruak egin dute aurkezpena, eta hainbat ordezkari politiko ere izan dira

**BERRITASUNAK** Lau espezialitate berri izango ditu, eta zerbitzu gehiago ere: egoera kritikoan dauden gaixoendako unitatea, etxeko ospitaleratzea...

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

Azkenean ere, badakigu zelako ospitalea izango duen Debagoienak. Orain arte aurreikuspenak zirenak baieztatu egin dira, eta etorkizuneko Debagoieneko ospitalea ibar osoari zerbitzua emateko modukoa, modernoa –barrutik eta kanpotik, alboko irudiotan ikus daitekeen bezala– eta berritasunez josia izango da.

Proiektu osoa atzo, eguena, ziren aurkeztekoak ospitalean bertan. Horretaz arduratzekoak ziren Gabriel Inclan, Osasun sailburua, eta Jon Lezeortua eta Rafa Cerdan sailburuordeak; Gloria Quesada, Osakidetzako zuzendari orokorra; eta Jose Luis Angulo, Debagoieneko ospitaleko gerentea. Horrez gain, ekitaldira joatekoak ziren Osasun-Asistentziako zuzendariak, Debagoieneko alkateak, Legebiltzarreko Osasun komisioko ordezkariak, eta beste batzuk.

Hauek dira berritasun nagusiak: alde batetik, instalazio aldetik, gaur egungo 74 ohetik 120 ohe izatera pasatuko da, eta lau ebakuntza-gelari beste bi gehituko zaizkie. Gaur egun dituen eta etorkizunean aurreikusita dauden erabiltzaileendako txiki geratzen ari zen ospitalea.

Espezialitateei dagokienez, hainbeste erabiltzailek eskatutako urologia espezialitatea izango du ospitaleak; baita endokrinologia, pneumologia eta neurologia espezialitate berriak ere, eta psikiatria –buru osasun unitatea ospitalean txertatuko dute –gaur egun, Erguinen dago, Arrasaten.

Bi unitate berezi berri izango ditu ospitale berriak. Herritar askok igartzen zuten egoera kritikoan dauden gaixoen zaintza unitatea, eta azkenean hori egongo da, bost oherekin. Bestea amatasun unitatea izango da, amendako eta jaioberriendako.

Horrez gain, etxeko ospitale zerbitzua ere sortzen da. Zerbitzu horren helburua da gaixotasun edo egoera jakin baten dauden gaixoei tratamendua etxean ematea, eta tratamendu hori ospitalean jaso izango zuketena bezain osoa eta konplexua da. Horretarako, medikuntza-teknologia baliabide aurreratuenak erabiltzen dira.

Bestalde, pediatria espezialitateak larrialdi zirkuitu propioa izango du. Eta gaur egun badagoen eguneko ospitalea indartu egingo dute.

Azkenik, hematologia zerbitzu orokor klinikoetan sartuta egongo da.

Helburua da Debagoieneko eskualdeari lehen mailako osasun zerbitzua ematea. Horretarako, aurreikusita zeuden espezialitate, zerbitzu eta handitze guztiak hartu dira aintzat; asmoetako bat ere ez da behin betiko proiektutik kanpo geratu.

Handitze horrek eragina izango du ere langile kopuruan. Zenbait gauza kontuan hartu beharko dira: une jakin baten zenbat ohe dauden hartuta, adibidez, eta espezialitate kopurua: ohe kopuru berbera duten bi ospitaleren artean, espezialitate gehiago dituenak langile gehiago beharko ditu.

Gaur egun, 300 lagunek dihardute ospitalean. Inguruko ospitaleen artean, txikiena da: Bidasoako ospitaleak 360 langile inguru ditu; Mendarokoak, 380

**Elkarri lotutako hiru eraikin izango ditu ospitaleak, eta askoz edukiera handiagoa: 120 ohe, gaur baino 46 gehiago**

**Endokrinologia, pneumologia, neurologia, urologia eta psikiatria espezialitateak izango ditu**


DEIGARRIA Itxura modernoa eta koloretsua izango du ospitaleak.


KOKAPENA Irudi honetan ondo ikusten da eraikin berriek ze leku hartuko duten.


LOTURA Eraikin berriak eta gaur egungoa pasabidez lotuta egongo dira.


GAUEZ Ospitale berria eta Arrasateko anbulatorioa, gauez ikusita.

**di-da batean**

Leire Kortabarria

## Zorionak, lan onarengatik!

Berba asko egin da ospitale berria izango denaz, eta, kasu honetan, uste onak egia bihurtu dira: asmoak proiektu batek konfirmatu ditu, eta debagoiendarrok zelako ospitalea izango dugun jakin berri dugu: itxuren arabera, luzaroan eskatu dugun eta merezi dugun ospitalea izango da. Aukerako unea da hau gure eskualdeko osasun zerbitzuen maila errekonozitzeko, beste eskualde batzuetako baliabideen inbidiarik ez duelako, gauzak ondo egiten direnean ere, esan egin behar dira-eta. Gabeziak izan direnean, ospitalea ez da lo geratu eta erantzuteko ahalegina egin du. Orain zorionak emateko garaia da.

inguru; eta Zumarragakoak, espezialitate asko dituen ospitale batek, 450 langile dauzka.

**HIRU ERAIKIN**

Debagoieneko ospitale berriak elkarren artean konektatutako hiru eraikin izango ditu, eta hiru fasetan egingo dira lanak.

Lehenengo fasean, gaur egungo ospitalearen atzean dagoen eraikina bota, eta eraikin berria egingo dute; hala, eraikin hori ez da dagoen bezala aprobetxatuko, hasierako aukeretako baten arabera. Bigarren fase baten, haren ezkerretara –hau da, Arrasateko anbulatorioaren eraikin atzean–, aurrekoaren eraikin berdin bat egingo da. Horiek behe-solairua eta beste lau altuera izango dituzte, eta bi soto maila. Ospitalearen muina hantxe egongo da: oheak, 120, lau sailetan banatuta –ohiko ospitaleratze medikua, ebakuntza–ospitaleratzea; unitate berezia, egoera kritikoan daudenendako; eta egonaldi laburreko unitatea, 20 oherekin; bestetik, ebakuntza-gelak, eguneko eta etxeko ospitaleak, laborategiak, larrialdiak (orokorrak eta pediatrikoak), erradiologia eta beste zerbitzu batzuk; han egongo dira ere langileendako baliabide gehienak. Zabaltzan, gainaldean, heliportua izango du.

Gaur egungo eraikinean kontsultak, probak egiteko lekuak eta errehabilitazioa bakarrik geratuko dira. Arrasateko anbulatorioak orain arte bezala jarraituko du.

Nabarmentzekoa da, era berean, lur-azpiko aparkalekua izango duela ospitaleak, bi eraikin berrien azpi-azpiko sotoan. Horrela, orain arte erabiltzaileek zein langileek sarritan aipatutako aparkaleku eskasiaren arazoari erantzun nahi zaio.

Ospitalearen estetika ere asko zaindu dute. Hala, itxura oso ikusgarria izango da: kolore bizi eta deigarriekin eta diseinu modernoarekin aurkeztuko zaigu, irudiotan ikusten denez. Sarreraraino pasabideak kristalezko sabaia izango du.

**KALITATEAREN ALDE**

Horrenbestez, arduradunek hasieran zituzten helburuak bete egiten ditu proiektu horrek. Zuzendaritzaren hitzak dira hauek: "Erietxe hori da guztion itxaropenei eta Debagoieneko herritarren eta erietxeko profesionalen beharrei eman zekiekeen erantzunik onena".

Ospitale berria izango da kalitatearen eta berrikuntzaren bidean emandako urrats handi bat, baina ez bakarra. Izan ere, azken urteotan hainbat zerbitzu egokitu dituzte behar berrietara. Ahalegin horiek saria izan zuten iaz Euskalit fundazioaren Kalitatearen zilarrezko Q ikurra eman zietenean ospitaleko langile guztiei, kudeaketan lortutako kalitatearengatik.

Berria egin bitartean, beste aurrerapen batzuk txertatzen joan dira: teknologia aurreratuagoen eta larrialdi zerbitzuko saturazioa arintzeko neurrien alde egin du garbi ospitaleak.

## Honelakoa izango da Debagoieneko ospitale berria

**1. FASEA (ERAIKIN BERRIA)**

**4. solairua**
Ama-umea ospitaleratzea (20 ohe)
Laborategia
**3. solairua**
Ospitaleratze medikua (36 ohe)
**2. solairua**
Ospitaleratze kirurgikoa (36 ohe)
**1. solairua**
Ebakuntza-gela; erditzeak; unitate berezia (5 ohe); supertze unitatea; eguneko ospitalea
**Behe-solairua**
Pediatriako larrialdiak; larrialdi orokorrak; erradiologia
**1. sotoa**
Farmazia; historia klinikoen artxiboa; esterilizazioa; jantokiak; biltegiak
**2. sotoa**
Aparkalekua

**2. FASEA (ERAIKIN BERRIA)**

**4. solairua**
Erreserba
**3. solairua**
Sindikatuak; lan osasuna; informatika; lehen arretako laborategia
**2. solairua**
Zuzendaritza eta administrazioa; osasun-kudeaketa unitatea, e.a.
**1. solairua**
Egonaldi laburreko unitatea (20 ohe); eguneko ospitalea
**Behe-solairua**
Harrera; etxeko ospitaleratzea; ekitaldi aretoa; liburutegia
**1. sotoa**
Beilatokia; autopsia-gunea; mantentze lanetako instalazioak; biltegiak
**2. sotoa**
Aparkalekua

**3. FASEA (GAUR EGUNGO OSPITALEA)**

**2. solairua**
Kanpoko kontsultak
Proba osagarriak
**1. solairua**
Kanpoko kontsultak
Proba osagarriak
**Behe-solairua**
Kafetegia
Kontsulten harrera
**1. sotoa**
Errehabilitazioa
**2. sotoa**
Aldagelak
Lantegiak
Arropa zuria



**PRESO POLITIKOAK** > 'PAROT DOKTRINA'

# Ibarreko bi presori kondena luzatu dietela ohartarazi dute

Iñaki Gaztañaga arrasatearrari 2018ra arte atzeratu diote kaleratze data

Jon Agirre aramaioarra 2011ra arte ez askatzeko erabakia hartu dute

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Espainiako Auzitegi Nazionalak indarrean jarritako *Parot doktrina* ezarri diete beste bi euskal preso politikori.

Egoera horretan, hau da, zigorra beteta espetxealdia luzatuta daukate beste hainbat euskal preso politikok, tartean Iñaki Gaztañaga Bidaurreta arrasatearrak. 18 urte bete ondoren, kaleratze data 2006ko martxoaren 29rako jarrita zuen. Orain Auzitegi Nazionalak kaleratze data 2018ko martxoaren 21era atzeratu dio, eta kondena 12 urte luzatu. Askatasunaren esanetan, "euskal preso politikoen aurka diseinatutako neurri berezia da, bizitza osorako zigorra, xantaia politikoa dakarrena eta presoen eta euren senideen aurkako mendeku politikaren beste adibide bat".

**LUZAPENA JON AGIRRERI ERE**

Jon Agirre aramaioarra ere, irizpide bera aplikatuz, 2011ra arte ez askatzea erabaki du Auzitegi Nazionalak, urriaren 28an askatu behar bazuten ere. Kartzelan denbora luzeen daraman bigarren euskal preso politikoa da Jon Agirre, eta aspaldian osasunez gaizki dabil.

**LAB-EN BILKURA**

Bestalde, LAB sindikatuak deituta, Iñaki De Juana presoari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egin zuten eguen arratsaldean Bergarako epaitegiaren aurrean.




> HEZKUNTZA

### Akordioa sinatu dute UNEDek eta Robles-Arangiz fundazioak

Manu Robles-Arangiz fundazioak eta Bergarako UNEDek hitzarmena sinatu dute. Honela, UNEDek fundazioaren jarduerari babes akademikoa emango dio. Fundazioaren eskaintza Bergarako zentroan sartu ahal izango dute eta ikastaroen homologazioa sustatuko dute.

> ERAKUSKETA

### Rafael Zeziagaren maketak ikusgai Monterronen

*Amets gorrien taupadak* erakusketa urriaren 2an zabalduko dute, Monterronen, XX. mendearen lehen erdian sindikatuetan eta politikan jardun zutenen omenez. Bertan izango dira gerra ostean Buenos Airesen errefuxiatutako Rafael Zeziaga arrasatearraren lanak ere.

> POLITIKA

### Manifestazioa bihar, autodeterminazio dinamika aurkezteko

Bihar, zapatua, manifestazioa izango da 18:00etan Donostiako Bulebarretik abiatuta. *Euskal herriak autodeterminazioa* dinamika herriz herri abian jartzera doazela iragartzea eta egoera politikoaren berri ematea da ezkertiarrez eta abertzalez osatutako talde antolatzailearen helburua.

> POLITIKA

### Gudari Eguneko ekitaldiak egin dituzte ibarrean

*Izan direlako gara, garelako izango dira* lelopean egin dituzte aurten gudari eguneko ekitaldiak. Eguenean, Gudari Egunean, bilkura egin zuten Arrasateko plazan eta ekitaldia Bergaran, hildako ETAko kideak gogoratzeko. Bestalde, Bergaran pintadak azaldu dira Gudari Egunaren harira.

> ENPRESA

### Lasa enpresak lantegi berria ipiniko du Brasilen

Banda metalikoak egiteko automatizazio sistemen diseinu eta fabrikazioan diharduen Arrasateko Lasa enpresak estanpaziorako fabrika bat zabalduko du Brasilen. 2007rako gertu egongo da eta bost milioi euroko inbertsioa egingo dute. Aurrez badu Lasak beste estanpazio fabrika bat Brasilen.

**TXAKOLINA** > MAHATS-BILKETA

# Aurtengo mahats uzta, eskasa gurean

## Ibarreko txakolin ekoizle gehienek dagoeneko egin dute mahats-bilketa

## Lehortearen eta gorrinaren eraginez, iaz baino mahats gutxiago batu dutela diote



**ESTENIBAR** Zapatuan batu zuten mahatsa Elorrioko Estenibar baserrian, iaz baino askoz gutxiago (argazkian). GOIENKARIA

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Txakolina egiteko mahats-bilketa sasoia irailaren amaiera eta urriaren hasiera bitartean izan ohi da. Ibarreko txakolin ekoizle gehienek jadanik jaso dute mahatsa, eta iaz baino gutxiago batu dutela esan digute.

Arrasateko Kataidekoen esanetan, "aurtengoa oso uzta txarra izan da. Gai kimikoren batek kaltea eragin du mahatsean; beraz, inoiz baino gutxiago jaso dugu. Hori dela eta, aurten inoiz baino txakolin litro gutxiago aterako ditugu. Hala ere, mahats mota bera daukan lagun batek emango digu bere mahatsetik".

Bergarako Amatiño baserrian ere joan den astean jaso zuten mahatsa eta baita zapaldu ere zukua ateratzeko. Karlos Mendizabalek esan digunez, "ustez ona da mahatsa, baina gutxi jaso dugu. Lehortearengatik izan dela uste dugu. Gabon ostean sartuko dugu botiletan. Iaz baino botila gutxiago izango dira aurten, 300 eta 400 artean. Baina etxerako egiten dugunez, nahikoa izango dira".

Arrasateko Artazubiaga baserrian Otxia txakolina ekoizten dute. Hango mahastietan ere egin dute mahats-bilketa.

**OÑATIN GEROAGO**

Upain baserrian San Migel jaien ostean, datorren asteburuan egingo dute mahats-bilketa.

Bestalde, Elorrioko Estenibar baserrian ere badituzte mahastiak. Joan den zapatuan egin zuten han bilketa, eta, Mikel Irizarren esanetan, iaz jasotakoaren erdia ere ez du bildu aurtengoan: "Loratze sasoian gorrinak harrapatu zituen hainbat mahatsondo. Gorrina gero hedatu egin da eta landare guztiak ukitu ditu. Uztailean uztaren heren bat-edo galduta zegoen eta irailean uzta osoa zegoen ia hilean. Zimeldu egin dira garauak, lehorteak-edo eraginda".

**GARRAIOA** > KLUSTERRA AURKEZTU DUTE

# Euskadiko garraioa eta logistika hobetzen dihardute

## Garraioarekin eta logistikarekin lotutako Euskadiko 39 enpresa batu dira

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

Euskadiko garraioa eta logistika hobetzeko klusterra –hainbat enpresaren taldea– aurkeztu zuten eguaztenean Eusko Jaurlaritzako egoitzan. Han izan ziren Nuria Lopez de Gereñu, Garraio sailburua; Jose Viteri, klusterreko gerentea; eta Iñaki Arriola, Ulmako Handling Systems enpresako zuzendaria eta klusterreko presidentea.

"Euskadiko garraioa eta logistika hobetzeko talde honetan, gai horiekin lotura duten bost arlo ezberdin elkartu ditugu: produktuak eta zerbitzuak; erabiltzaileak; administrazioa eta agente laguntzaileak; azpiegiturak; eta azkenik, operadoreak", azaldu digu Iñaki Arriolak, klusterreko presidenteak. Horrela, 39 enpresa daude garraioa eta logistika hobetzeko lanetan; horien artean Jaurlaritza, Gipuzkoako Aldundia, Mondragon Eskola Politeknikoa, Eroski, Kutxa, Euskotren, Azkar eta Ulma.

**BIDE ESTRATEGIKOAK**

Kluster edo talde horrek lan egingo du lehiakortasun eta garapen iraunkor hobearen alde, eta, horretarako, lau bide estrategiko zehaztu ditu: "Ekintzak bultzatzea, produktu berriak ikertzea eta garatzea, egungo azpiegiturak, sareak eta logistika zentroak sendotzea eta *Eurozona* delakoa indartzea", zehaztu du Iñaki Arriolak. Asmo horiek lortzeko lanean dabiltza dagoeneko, eta jarraitu beharreko pausoak aurkeztu dituzte Gasteizen.

zuazola-larraña
Oñatiko b.h. institutua
KALITATEA HEZKUNTZAN

**OÑATIKO INSTITUTUAN (LANBIDE HEZIKETA)**
**LANGILEENTZAKO IKASTAROAK**
**% 100 DIRUZ LAGUNDUTA**
**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotuta (Katalogo Modularra)**

| IKASTAROAK | ORDUAK |
|---|---|
| **MEKANIZAZIOA** | |
| Plano Irakurketa/CAD | 50 |
| Fabrikazio prozesuak txiribil arroketa | 60 |
| CNC Torno Programazioa | 40 |
| CNC Torno Programazioa eta Prestaketa | 40 |
| Mekanizazioa Torno Konbentzionala | 80 |
| Mekanizazio Fresa Konbentzionala | 80 |
| Fabrikazio prozesuak, ebaketa eta konformazioa | 60 |
| Mekanizazioa torno CNC | 50 |
| **MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA** | |
| Mantenu mekanikoa | 60 |
| Muntai elektrikoa | 80 |
| Mantenu elektrikoa | 80 |
| Krokizazioa | 40 |
| Soldadura elektrikoa | 55 |
| CC eta CA zirkuitoak | 60 |
| CC eta CA makinak | 40 |
| Oinarrizko elektronika analogikoa | 50 |
| Automatismo pneumatikoa eta elektroneumatikoa | 40 |
| Automatismo elektrikoen kableatua | 45 |
| Automatismoak programazioa | 40 |
| Automatismo hidraulikoa | 36 |
| Automatismo elektrohidraulikoa | 30 |
| **SISTEMA LAGUNGARRIAK: GAINAZAL TRATAERA** | |
| PLCen programazioa | 60 |
| Neurri egiztatzea/Metrologia | 40 |
| Fabrikazio mekanikako industrian Segurtesuna(Mekanizazioan edo gainazaleko trataera) | 40 |

Izena emateko: Oñatiko Institutua, Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan,
San Lorentzo auzoa z/g 943782150 • 09:00-13:00 / 15:00-17:00
www.onati.net
**IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK**

*Ikastaroak astelehenetik ostegunera izango dira. Ikastaroak matrikulatutako langileen kopurua 10era irizten denean hasiko dira.*

EUROPAR BATASUNA
EUROPAR FONDO SOZIALA
EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

IEFPS Aretxabaleta GLHBI

AENOR ER Empresa Registrada · CERTIFIED IQNet MANAGEMENT SYSTEM

**Euskal Herriko Lanbide Kualifikazioen Sistemari lotutako Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak**

**LANEAN ARI DIREN LANGILEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK (%100-a subentzionatuta)**

| Ikastaroak | Orduak | Aurreikusitako datak |
|---|---|---|
| **FABRIKAZIO ELEKTROMEKANIKOA ( 2. maila)** | | |
| **Modulua : Fabrikazio mekanikoko makinen prestaketa eta programazioa (275 ordu)** | | |
| CNC tornuaren programazioa | 40 | 2006 azaroa |
| CNC tornuaren prestaketa eta programazioa | 40 | 2006 azaroa |
| CNC fresatzeko makinaren programazioa | 46 | 2007 otsaila |
| CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa | 46 | 2007 martxoa |
| **Modulua : Fabrikazio makanikoko sistema osagarriak (110 ordu)** | | |
| PLCen programazioa | 60 | 2007 apirila |
| Roboten programazioa | 20 | 2007 martxoa |
| **Modulua : Txirbil-harroketa bidezko fabrikazioa (300 ordu)** | | |
| Mekanizatua torno konbentzionalean | 80 | 2006 urria |
| CNC tornoko mekanizazioa | 50 | 2007 urtarrila |
| CNC fresatzeko makinako mekanizazioa | 50 | 2007 apirila |
| **METAL - ERAIKUNTZAK ( 2. maila)** | | |
| **Modulua : Giro naturaleko soldadura ( 310 ordu)** | | |
| Elektrodo estali bidezko angeluko soldadura | 80 | 2006 azaroa |
| Elektrodo estali bidezko topekako soldadura | 80 | 2006 abendua |
| Elektrodo estali bidezko beste posizio batzuetako soldadura | 80 | 2007 urtarrila |
| **Modulua : Giro babestuko soldadura (215 ordu)** | | |
| Posizio horizontaleko MIG / MAG soldadura | 50 | 2007 martxoa |
| Beste posizio batzuetako MIG / MAG soldadura | 50 | 2007 apirila |
| Posizio horizontaleko TIG soldadura | 50 | 2007 maiatza |
| Beste posizio batzuetako TIG soldadura | 50 | 2007 maiatza |
| **METAL - ERAIKUNTZAK ( 3. maila)** | | |
| **Modulua : Metal-eraikuntzen irudikapena (240 ordu)** | | |
| CAD. Metal-eraikuntzen irudikapena (Solid Edge) | 60 | 2007 apirila |
| **TRESNERIA ELEKTRONIKOAK ( 2. maila)** | | |
| **Modulua : Telebista tresneria (170 ordu)** | | |
| Telebista-seinaleak banatzeko sistemak muntatzea eta mantentzea | 80 | 2007 otsaila |
| Telebista-tresneria mantentzea | 80 | 2007 apirila |
| **Modulua : Oinarrizko instalazioak (110 ordu)** | | |
| Etxebizitzen eta merkataritzako lokalen barruko instalazioak | 60 | 2006 azaroa |
| **Modulua: Elektronika digitala eta mikroprogramagarria (200 ordu)** | | |
| Sistema digital sekuentzialak | 45 | 2007 otsaila |
| Sistema digital mikroprogramagarriak | 80 | 2007 apirila |
| **SISTEMA ETA TRESNERIA ELEKTROTEKNIKOAK ( 2. maila)** | | |
| **Modulua: Elektroteknia (150 ordu)** | | |
| KZ eta Kako zirkuituak | 60 | 2007 otsaila |
| **AUTOMOZIOA ( 2. maila)** | | |
| **Modulua : Motorraren sistema osagarriak (270 ordu)** | | |
| Gasolina-motorren elikadura- eta pizte-sistema elektronikoak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketa | 60 | 2007 otsaila |
| Diesel motorren elikadura- eta gainelikadura-sistemak (TDI, COMMON-RAIL, INJEKTORE/PONPA...). Mantentzea, egiaztapena eta konponketa | 60 | 2007 apirila |
| **Modulua : Motorrak (160 ordu)** | | |
| Aldiko diesel motorrak. Mantentzea, egiaztapena eta konponketa | 40 | 2007 urtarrila |

**Katalogoz kanpoko Etengabeko Formakuntzako Ikastaroak**

| | | |
|---|---|---|
| Burdinazko materialetarako galdaketako metalurgia | 50 | 2007 apirila |
| Burdinazkoak ez diren materialetarako galdaketako metalurgia | 50 | 2007 maiatza |

**Ikastaroak arratsaldeko 16:00 eta 21:00 artean emango dira**
**Informazio gehiago eta inskripzioak IEFPS Aretxabaleta GLHBI , Etxebarri auzoa, z/g Tfn.: 943-79 79 00**
**Posta-e: ia@iaretxabaleta.com**

Eurpear fondo soziala

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HOBETUZ Fundación Vasca para la Formación Profesional Continua Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioa



BENGOA Eskoriatzako alkatea da Mankomunitateko presidentea, berria aukeratu arte. GOIENKARIA

**MANKOMUNITATEA** > PRESIDENTE BERRIA

# Juan Carlos Bengoa da Mankomunitateko bitarteko presidentea

Datorren asteko Mankomunitateko batzarrean aukeratuko dute presidente berria ziurrenez, eta gobernuko 16 kideek boto bana izango dute

**OIHANA ELORTZA**> ARRASATE

Mankomunitatean dauden Arrasateko ordezkariak euren karguetatik kendu zituzten astelehenenko Arrasateko osoko bilkuran, PSE-EE, EB, PP eta Talde Mistoaren botoekin, ordezkari horiek ez dituztelako osoko bilkuretan onartutako erabakiak Mankomunitatean defendatzen. Aralarrek, bestalde, esan du proposamena berandu jaso zuela eta gaiaren garrantzia ikusita, lehenago eman behar ziotela asmoen berri.

Gauzak horrela, Inazio Lakuntza ez da Mankomunitateko presidentea astelehena ezkero: "Ezustekoa izan da, osoko bilkura hasi baino hamar minutu lehenago eman didatelako agiria irakurtzeko. Hala ere, uste dut erabakiak praktikan ez duela aldaketarik ekarriko. 16 kide gara Mankomunitateko gobernu batzarrean, eta, Arrasateko laurak kenduta, beste 11 koalaziokoak dira", adierazi du Inazio Lakuntzak.

**PRESIDENTE BERRIA**

Mankomunitateko estatutuek ez dute jasotzen horrelakoetan zein bide jarraitu behar den. Ez da inoiz gertatu. Beraz, "udaletan alkatearen hutsunea gertatzen denean jarraitu behar den prozesua segituko dute hemen ere. Berria aukeratu arte, presidente-ordea izango da behin-behinekoa. Arrasateko Udalak hamar egun ditu hartutako erabaki hori jakinarazteko eta hori jasotzen denetik hamar egunen barruan aukeratuko dute presidente berria. 16 kide dira gobernuan eta nork bere botoa emango du. Boto gehien duena izango da presidente berria. Datorren asteko batzarrean izango da hori, ziurrenez. Gai zerrendako lehen puntuak izango dira presidente berria aukeratzea eta Arrasateko ordezkari berriek euren karguak hartzea", azaldu du Belen Txintxurretak, Mankomunitateko idazkariak. Arrasateko Udalak baieztatu du dagoeneko jakinarazi diola Mankomunitateari asteleheneko osoko bilkurak hartutako erabakia.

Hala, Juan Carlos Bengoa Eskoriatzako alkatea da behinbehineko presidentea. Udal hauteskundeetan, osoko bilkura zehaztu eta 30 egunean izendatu behar ditu udal bakoitzak bere ordezkariak Mankomunitatean. Azkenetan, Bengoa izendatu zuten presidente orde.

0 km
ESKAINTZA BEREZIAK
- C-Max Focus TDCi
- Fiesta TDCi
- Mondeo TDCi
- Fusion TDCi
MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es
Ford
gozatzeko pentsatuak irauteko eginak

**euskara plazara**

**DEBAGUNE-REN BULETINA**




Iaz Nafarroa Oinezera joandako talde bat; eta aurtengo logoa. GOIENKARIA

## Euskara elkarteek Nafarroa Oinezera joateko autobusak antolatu dituzte

**DEBAGUNE** > DEBAGOIENA

Urriaren 15ean ospatuko dute aurten Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolek urtero egiten duten jaia. Aurten Berako Labiaga ikastolari egokitu zaio jaia prestatzea. Beratarrek badute eskarmentua langintza horretan; izan ere, 1983an eta 1994an ere han egin zen Nafarroa Oinez.

Aukeratu duten leloa *Baietz oraingoan!* da: "10 urtez egindako esfortzuaren ondotik eta ikastolaren proiektua aitzinera eraman ondotik, ailegatu da etorkizuna bermatzeko unea, eta ziur gaude oraingoan lortuko dugula", diote antolatzaileek.

Aurtengo helburua da ikastolaren egoera ekonomikoa arintzea. Jasotako dirua inbertsio materialetarako erabiliko dute, batetik; eta hezkuntzarako, bestetik: 900.000 euro Eztegarako eraikinera bideratuko dituzte; eta hezkuntza arlorako 2.260.000 euro. 1995a ezkero Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak ez du DBH legeztatu ezta kontzertatu ere.

> "Ikastolaren proiektua aitzinera eramanda, ailegatu da etorkizuna bermatzeko unea"
>
> Jasotako diruaren zati bat Eztegarako eraikinera bideratuko dute

**AUTOBUSAK IBARRETIK**

Ibarreko euskara elkarteek Berara joateko autobusak antolatu dituzte. Aretxabaleta eta Oñatitik 08:30ean irtengo dira, Azbetik eta postetxetik, hurrenez hurren. Arrasatetik eta Bergaratik, berriz, 08:45ean Mondragon hoteletik eta geltokitik.

Autobuserako txartelak urriaren 11ko eguerdia baino lehen erosi behar dira euskara elkarteetan. Bazkideek zortzi euro ordainduko dituzte, bazkide ez direnek hamar euro eta Nafarroa Oinezera lanera doazenek bost euro; haiek urriaren 4a baino lehen eman behar dute izena.

**LANERAKO 2.000 LAGUN**

Nafarroa Oinezeko antolakuntzak txosnetan, segurtasunean, garbiketan, salmentan... lanean jarduteko 2.000 lagun behar ditu eguna arrakastatsua izan dadin.

Ibarretik ere bada lanera joango denik; Elgetatik, esaterako, talde bat joango da. Domeka goizean egingo dute lan, txosnan, eguerdira arte.

Antolakuntza batzordeak aldez aurretik eskerrak eman nahi dizkie lanera hurbilduko direnei.

## gure artekoak

**IRUDIXO OILASKOAK** > Goiauzoan, Bergaran, dago Irudixo baserria, eta bertara gerturatzeaz bat, oilaskoak ikusten dira etxe inguruan. Izan ere, oilasko haztegia dute bertan Migel Arregik eta familiak.

Migel Arregi

# "Biltegietan edo baserritarrei saltzen dizkiegu oilaskoak"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Irudixo baserriko Migel Arregik txikitatik jardun du oilaskoekin lanean baserrian. Arrautzatarako izan zituen aitak erretiroa hartu zuenean, eta gaur egun, jaioberritan hartu eta hazi egiten ditu baserriko oilaskoak, gero banatzeko.**



Migel Arregik jaio berritan ekartzen ditu txitak, eta 25 egunean hazi. I.A.

**Nola hasi zinen oilaskoekin?**

Aitak langintzari laga zionean, orain dela 35 urte inguru, granja automatizatua ipini nuen arrautzak batzeko, eta salmenta ere nik egiten nuen. Baina 60 urte bete nituenean gogorregia zela ikusi nuen eta oilaskoak hazteari ekin nion. Hala ere, lan handia ematen dute oilaskoek. Batez ere garbitasunari dagokionez. Asko zaindu behar dira, nabeak txukun edukitzeko.

**Zein prozesu jarraitzen duzue?**

Jaioberritan ekartzen ditugu txitak eta 25 egunekin biltegietara eramaten ditugu edo baserritarrei saldu. Semeak, berriz, labelerako hazten ditu oilaskoak, Lumagorri izenpean. Labelekoak emeak izaten dira; besteak, aldiz, arrak.

**Zein dira zuen bezeroak?**

Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban biltegietan saltzen ditugu; bestalde, baserritarrek zuzenean ere erosten dute gurean. Lehen urte osoan hazten zituzten, baina orain bi etapa bereiz daitezke, jendeak hozkailuetan sartzen dituelako. Oporretara joan aurretik izaten da txanda bat eta opor ostetik Gabonetara bestea.

**Igarri duzue hegazti gripearen eraginik?**

Iaz, gauzak nola zeuden ikusita dena lagatzekotan izan nintzen. Martxoan hasi eta irailera bitartean salmentak igo egin dira. Baina eragina sumatzen da, konpetentziako hainbat enpresak itxi egin dute.

**FITXA TEKNIKOA**

**> ASTEAN 3.500**
Garai onenean, martxotik azarora bitartean, astean 25 eguneko 3.500 oilasko saltzen dituzte.

**> GANADUA**
Oilaskoez gain, haragitarako ganadua ere badaukate; behi eta txahal artean 80 buru inguru.

**> LANGILEAK**
Migel Arregik eta semeak jarduten dute batez ere, baina etxeko gainontzeko bizilagunen laguntza ere ezinbestekoa da.

## etxeko leihotik



**Iban Arantzabal** > Goienako ikus-entzunezkoen zuzendaria

# Hauteskundiak: hasi dira zerrendak osatzen

Ez dozue igarri zelan dabizen lanak amaittu guran, hau eta beste inauguratzeko goguakin, zulo hau edo beste tapatzeko asmuakin… Bai, hauteskundiak badatoz, eta gaiñera gertukuen sentitzen dittugunak.

Udaletako hainbat ordezkari ez dira egongo zerrendetan. Ez naiz atrebitzen zerrenda zurruna egittera, ze beti dare sorpresak… Eta gure burua zerrendetan? Nahixago dogu politikarixen kritiko izatia politikari kritiko baiño.

Debagoienian zein ikusiko dogu berriro alkate? Basauri, Idoiaga, Oliden, Mondragon… Juan Carlos Bengoaren kasua, esaterako: kazetarixaren galderia: "Aurkeztuko zara berriro?", eta politikarixak: "Pentsaten nago politikari biharrian munizipal aurkeztia".

**"Bederatzi alkatetik zenbat ikusiko dittugu hausteskunde zerrendetan?"**

Erantzunak emoten dau zer pentsaua, ez Bengoak politikaz paso egitten dabelako (demostratu dau ezetz), baiña bai herrittar askoren jarreria horixe dalako: nahixago dogu kamionero izan, kataiko langille, ingeniari, maisu-maistra, kazetari… eta hori bai, gero egurra politikari izateko borondatia agertu dabenei. Victorianok esan dau ezetz, Lakuntza be ez… Zabalo, Joserra Perez… Bederatzitik zenbat bai?

**> Politiko izateko ez dau edozeiñek balio, baiña mesedez, sartu gogokuen dozuen zerrendan. Sigla guztien gaiñetik politikari ahalik eta onenak gura dittugu gure herrixetako udaletan agintzen.**

**> Lakuntzak ez dau Mankomunidadian jarraittuko PSE-EE, EB, PP eta Talde Mistuaren erabakiz. EAJ-EArena izango da presidentzia, hala eta be. Zein izango dan eta zein herrittakua ikusteko dago ondiok.**

## begi-bistan




**Maniobra militarrak Debagoienean**
**2006/09/27**

**Argazkia:** Amagoia Lasagabaster.
**Testua:** Irati Agirreazaldegi.

Espainiako Armadako ehun soldadutik gora agertu ziren eguaztenean Kanpanzarren eta han ibili ziren maniobretan. Angiozar inguruan eta Oñatiko Olabarrieta auzoan ere ikusi zituzten.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak



**Inazio Arregi**
IRRATI ESATARIA

Jesuita oñatiarrak Erroman hainbat urte eman ostean, Vatikano Irratian erretiroa hartu zuen abuztu amaieran. Laster Donostiara itzuliko da, jesuitek Garibai kalean duten etxera. Handik Herri Irratiarendako arituko da lanean eta lankidetza berezi batzuk egiten.



**Irene Zenitagoia**
LOREZAINA

Donostiako Zinemaldiko lore apaingarriak Donostiako Jakalanda dendak egin ditu. Irene Zenitagoia lorazain bergararrak lagundu die apaingarri horiek gertatzen. Aktoreendako erramuak eta aretoetako apaingarriak egin dituzte, oso itxura modernoarekin.



**Roman Lopez**
MUS JOKALARIA

Mus jokalari arrasatearrak Juanito Herrasti aretxabaletarrarekin batera Donostiako Kursaal kasinoak antolatutako mus txapelketa irabazi du. Bikoteak txapela, garaikurra eta 3.000 euroko saria jaso ditu. Kursaalekoa Euskal Herriko mus txapelketarik garrantzitsuenetarikoa da.

Nagusiaren nazioarteko eguna da urriaren 1ean. Nagusilan elkarteak horiekin lan egiten du: nagusiei konpainia egitea, lagun egitea, du helburu. Horretarako, ehunka boluntario daude Gipuzkoa osoan, horietako batzuk Debagoienean. Beste asko Europako nahiz Amerikako herrialdeetan daude, mundu guztian uztartuta dago-eta Nagusilan.

**Rafael Kortabarria** > Nagusilan

# "Jendeari, oraindik ere, lotsa ematen dio etxean senide gaixo bat duela esatea"

**OIHANA ELORTZA** > OÑATI

**Rafael Kortabarria oñatiarra Nagusilaneko kide da duela 10 urtetik. Nagusilan boluntario asko dituen elkartea dela dio, eta gaixoak falta dituela: "Jendeak jakin behar du laguntzeko gaudela gu, eta esan gura diet lasai eskatzeko laguntza", dio.**

**Zer da Nagusilan?**

Boluntario talde handi bat da Nagusilan. AEBetatik ekarritako ideia bat da eta duela 11 urtetik hona dago hemen martxan.

**Zenbat kide zarete?**

Momentu honetan 700 boluntario inguru gaude Euskal Herrian, eta horietatik 500, Gipuzkoan. %80 emakumeak dira, akaso gizonezkoak baino gehiago bizi direlako edo akaso gogo edo borondate handiagoa izaten dutelako gaixoak zaintzeko. Gipuzkoan 20 bat delegazio ditu Nagusilanek, gutxi gorabehera. Herri askok erakutsi dute euren interesa, baina kosta egiten zaie aurrerapausoa ematea.

**Non dago Nagusilan Debagoienean?**

Arrasaten Tomas Atxa da arduraduna, eta Oñatin, ni neu. Bergaran ere badute taldea. Debarro guztian dago Nagusilan lanean; egia esan, oso harrera ona izan du ekimen horrek.

Boluntarioak, berriz, Oñatin bertan 16 gaude eta ordu asko egiten ditugu astean.

**Gaixo baino boluntario gehiago zaudetela diozu. Nola da hori?**

Gaixoaren familiari, sendiari, kosta egiten zaiolako esatea bere etxeko norbait gaixo dagoela, eta lotsatu egiten dira laguntza eskatzen.

**Ze motatako laguntza eskaintzen duzue zuek?**

Gaixoaren etxera joaten gara, egunkaria irakurtzera, kaleko kontuak esatera eta berarekin edozertaz hitz egitera, besteak beste. Bestalde, paseatzera edo egin beharreko lanak egitera ere laguntzen diegu. Banketxera doazenean, adibidez, guk barruraino laguntzen diegu, atzean gelditzen gara zain leihatilan euren kontuak egin arte, eta bukatzean, berriro joaten gara kalera. Beste kasu batzuetan gertatzen da etxeko bat egun osoz dagoela beste bat zaintzen, baina horrek ere atseden hartu gura badu edo ile apaindegira joan behar badu, gu lasai asko joan gaitezke une hori gaixoaren ondoan egiteko.



Lagun batek esanda sartu zen Rafael Kortabarria Nagusilanen, 1996an. O.E.

TELEFONOA

**"Berba egin gura duenak telefono honetara deituta ere egin dezake: 900 71 37 71"**

LAGUNTZA

**"Medikuarengana lagunduz, egunkaria irakurriz edo berriketa eginez laguntzen dugu"**

NAGUSILAN

**"Gipuzkoan 500 boluntario gaude nagusiei eta gaixoei konpainia egiteko, doan"**

**Doakoa da zuen lana, ezta?**

Bai, ez dugu kobratzen. Udalek eta elkarteek laguntzak ematen dizkigute gure lana egiteko, eta diru hori erabiltzen dugu, besteak beste, liburuak erosteko, hitzaldiak antolatzeko eta horrelakoetarako.

**Herrian soilik egiten duzue lan edo autoa ere baduzue?**

Oñatin, esaterako, bi gidari ditugu. Nagusi batek beharra baldin badauka Gasteizera edo Arrasatera joateko medikuarengana, ez dugu inolako arazorik. Bi gidarietako batek eraman eta ekarriko du berak eskatutako orduan. Horrelako kasuetan kilometroak ordaintzen dizkiogu gidariari, ez bere orduak, baina bai autoaren gastuak edo kilometroak, behintzat.

**Egoitzetan dauden nagusiei lagun egitera ere joaten zarete edo soilik etxeetara?**

Oñatiri dagokionez, urtean bi ekintza antolatzen ditugu zaharren egoitzan: gaztaina erre jana eta musika saio bat. Lehenengoa laster egingo dugu, gaztaina sasoian; musika saiorako, berriz, gizon bat gonbidatzen dugu eta gitarra eskuan duela lehengo kantuak abestu eta mota guztietako txisteak kontatzen ditu. Arrasateko kideak, bestalde, sarri joaten dira Santa Agedara hangoei lagun egitera.

**Zergatik ematen dio lotsa sendiari etxekoren bat gaixo dagoela esateak?**

Gogorra delako. Gogorra da esatea etxekoren bat gaixo dagoela eta laguntza eskatzea. Une honetan 16 boluntario gaude Oñatin eta bospasei gaixori laguntzen diegu. Gizarte zerbitzuetako langileekin harremanetan gaude gu eta beti esaten diegu gaixo gehiago behar ditugula; jendeari, ordea, kosta egiten zaio esatea.

**Gaur egun, gero eta boluntario gutxiago dago, ba, edozein lanetarako.**

Nagusiekin lan egiteko, ordea, dezente gaude; beharbada, beste sentsibilizazio bat izango dugu gai horrekiko.

**Baztertuta dago pertsona nagusia gaurko gizartean?**

Herri txikietan uste dut ezetz. Denok ezagutzen dugu elkar horrelako herrietan eta ez dut uste inor baztertuta sentitzen denik. Hala ere, bazterketa da, agian, pertsona nagusien arazo handiena. Eta horretarako gaude gu, lagun egiteko.

**Telefono bidezko zerbitzua ere badu Nagusilanek, ezta?**

Bai. Zilarrezko Haria deitzen diogun zerbitzua da. Gura duenak telefono zenbaki batera deitzen du Nagusilaneko kide batekin berba egiteko. Doan da lehen deia, eta hurrengo deiak, etxekoak horrela gura badu, egoitzatik egiten dizkiote etxera, berak gura duen egunetan eta orduetan.

**Zein da telefono zenbaki hori?**

Hauxe da: 900 71 37 71. Donostiako egoitzako telefonoa da eta euskaraz nahiz espainolez erantzuten dute. Esan bezala, doan da. Askok erabiltzen dute telefonoa eta deiaren zain egoten dira bat baino gehiago.



zabalik

Estepan Plazaola

# Gosez hil

Oheratu berritan entzun nuen atzo irratian: bi urteko umea hil da Galizian gosez, ahuleriaz. Eta barrenak nahasi zizkidan. A ze paraderoa, umearena! Jan faltaz hil. Gura ez dutela ere, umeei jana kapoiei moduan eztarriko zulotik behera sartzen diegun gizarte honetan umea gosez hil. "Hau ez dot nahi eta bestea ez zait gustatzen" egunero mila bider entzuten dugun gizarte honetan umea gosez hil. Jan nahi eta zer janik ez.

Eta neure buruari galdetu diot: zenbat ume ote daude jan faltaz hilzorian munduan?

Interneten *Gosea munduan* bilatu dut. Eta *Berria*-ko Urtzi Urkizuren blogean irakurri dut 5,6 milioi haur hiltzen direla urtean janari faltaz. Lurrak bertako biztanle kopurua halako bi mantentzeko adina eman omen dezake, baina 800 milioi inguru ei dira gosez direnak.

Amama Elenak askotan esaten digu jan soberak zaborretara botatzen ikusten gaituenean: "Kontzientziak ez dau agintzen hori botatzia, e!". Berak eza gutu zuen. Eta kontzientziak ez dio agintzen jana botatzea.

**"Zer balio dauka, bada, janak jan falta ezagutu ez dugunontzat?"**

**"Kontzientziak zerbait agintzeko lehenengo kontzientzia hartu egin behar da"**

Baina guri zer agintzen digu kontzientziak? Zer balio dauka, bada, janak jan falta ezagutu ez dugunontzat? Zer inporta zaizkigu guri gose direnak guk goserik inoiz ezagutu ez badugu? Zer inporta zaizkigu guri gose direnak hormaz eta armaz guregandik urrun, milaka kilometrotara, mantentzen badizkigute?

Interneten topatu dudan bigarren gauza hau izan da: *Gosea munduan neure semeari azaldua* liburua. Jean Zieglerrena da eta Txalaparta argitaletxeak argitaratu zuen euskaraz. Umeei proposatuko diet egun batzuetarako irakurketa gisa. Kontzientziak zerbait agintzeko lehenengo kontzientzia hartu egin behar da eta. Norberak gosea bizi izatea bezala ez da izango baina...

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## NORTASUN AGIRIAK ARRASATEN

**Arrasatear batek esan digu uda aurretik ez direla Arrasatera joan nortasun agiriak egiteaz edo berritzear arduratzen direnak. Hori horrela, jakin gura du ea utzi dioten zerbitzu horri edo ea joango diren atzera Arrasatera.**

Arrasateko Udaletxetik jasotako informazioaren arabera, justu datorren hilean joango dira atzera Arrasatera. Hain justu ere, datorren urriaren 25ean izango da nortasun agiria egin edo berritzeko aukera. Baina hori egiteko, ohikoa den moduan, lehenago txanda hartu beharra dago eta horretarako beste data bat zehaztu du Udalak: urriaren 23an 08:00etatik aurrera. Udaltzaingora jo beharra dago horretarako; izan ere, argi utzi dute telefonoz deituz gero, ez dutela txandarik emango. Gero egin, nortasun agiriak betiko lekuan egingo dituzte: Arrasate pasealekuan dagoen IMIn. Eraman beharrekoa, berriz, honakoa da: nortasun agiri zaharra, bi argazki, dirua (6-7 euro kostatzen da berria egitea) eta agirian aldaketaren bat egin behar badu, aldaketa hori justifikatzen duen agiria ere erakutsi beharko du.

## ARETXABALETAKO BATAIOAK

**Domekan, bataioak egingo dituzte Aretxabaletako parrokian. Bada horren harira, guraso batek jakin gura du Aretxabaletan urtean zenbat bider izaten den umea bataiatzeko aukera.**

Aretxabaletako parrokian urtean lau bider ospatzen dituzte bataioak. Orain, domekako horrekin 2006ko azkenekoak egingo dituzte. Datorren urteari begira, berriz, urtarrilean bataiatuko dituzte berriro umeak; Aste Santu ostean beste aukera bat izango da; baita ekaineko azken astean edo uztaileko lehenengoan ere. Bukatzeko, urrian egingo dituzte azkenak.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ARRASATEKO ESKULTURA LEHIAKETA

**"Fin-fin joan nintzen Monterronera Arrasaten ipintzeko proposatutako eskulturen gainean, nire botoa ematera. Esan zuten joan den egubakoitzean jakinaraziko zutela zein eskultura aukeratu duten, baina oraindik ez dut entzun ezer; zerbait gertatu da?"**

Kultura Sailetik jakinarazi digute eskultura aukeratzeko epaimahaiko aditu batek kale egin duela eta horregatik atzeratu dela erabakia. Esan digutenez, oraingo astean lotuko dute epaimahaia eta ahal bezain laster esango dute zein eskultura aukeratu duten.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog

# Aurkezpena Arrasateko Elkar liburu dendan

Joxe Arantzabal
www.goiena.net/blogak/faroa

Atzo arratsaldean Elkar liburu denda ireki zen Mondragoen, eta hantxe izan nintzen, hitz batzuk esaten. Hauek:

(...) Gaur liburu denda eder hau inauguratu behar dugu Arrasaten. Hori dela eta, esango dizuet liburu dendak direla nire dendarik gogokoenak. Gustatzen zait irakurtzea, eta gustatzen zait liburu dendetan sartu eta liburuak esku artean hartu eta aztertzea. Txikia nintzenetik, liburuek arrasto ahaztezina utzi dute nire bizitzan. Gogoan daukat non nengoen eta zer egiten zenbait liburu irakurri nituenean. Adibidez:

*Los hijos del capitán Grant.* Saturraranen nengoen liburu hori irakurri nuenean, seminarioko ikasgela handi batean, asteburuetan denbora jakin bat izaten genuen-eta irakurtzeko. Jules Vernek mundu ezezagunetara eraman ninduen, abentura zirraragarriak bizitzera.

*El Lazarillo de Tormes.* Larunbat euritsu batean irakurri nuen, Donostiako seminarioan, eta barre algara handiak egin nituen. Harritu egin nintzen, ez bainuen uste liburu klasiko batek hainbeste barre eragingo zidanik.

*La ciudad y los perros.* Arrasaten irakurri nuen, Gabonetako oporretan, Donostiako Institutuan ikasten ari nintzela. Tramak harritu ninduen, eta zerabilen gaztelaniak. Orduan aurkitu nuen Hegoameriketako literatura.

*Beltran Paris, Basque Sheepman of the American West.* Beltran Paris Nafarroa Behere-

plazara

Bizi dugun egoera politiko bereziaz dihardu Ezker Batuak-Berdeak taldeko ordezkariak eta Antonio Gramscik pentsalari eta mugimendu-buru historikoak esandakoa gogoratuz hasi du artikulua. Izan ere, hark zioen krisi egoeretan "berria nekez jaiotzen zela eta zaharra nekez hiltzen zela". Horregatik uste du artikuluaren egileak kostatzen zaigula horrenbeste bake prozesuari eta normalizazio politikoari ekitea.

**Ander Rodriguez Lejarza ***

# Une politikoaren ardatzak

Antzezleku berria nekez jaiotzen ari da eta antzezleku zaharrak nekez hiltzen dihardu. Hala ere, ez da soluziorik gabeko egoera. Badira lapsus politiko hau saihesteko bideak: Espainiako Gobernuaren eta ETAren arteko hurrengo bilerak eta Batasunaren legeztatzearen bideratze juridiko-politikoa, hain zuzen ere.

Badirudi laster hasiko direla Gobernuaren eta ETAren arteko kontaktuak. Ez dakit zeintzuk izan diren ez biltzearen benetako arrazoiak. Batasunaren egoerak eta elkarrizketa mahaia osatzeko zailtasunak zeresan handia izan dutela esango nuke. Halaber, eta usteak uste, oraingoan baietz ematen du, eta hori da garrantzitsuena.

Kontaktu horiek zer edo zertarako balio izatea ere espero dut. Hamaika xehetasun dira eztabaidatzear. Hasierako premisa, ETAk kale borroka geldiaraztea eta Gobernuak bide errepresiboak baztertzea. Egoera oso konplexua da, baina zerbait argitu nahian hala ikusten ditut nik ondorengo urratsak: ETAren su-eten globalaren gaineko konpromiso irmoa, eta, bide batez, presoen bateratzea eta hurbilketa inguruko espetxeetara. Hirugarren fase batean, epe ertaineko etorkizun batean alegia, sakoneko erabakiak: indarkeriaren estrategiari behin betiko ukoa ETAren aldetik, armak entregatzearekin batera; eta erbesteratuen nahiz presoen gizarteratze progresiboa, Gobernuari dagokionez. Tartean, biktima guztien aldeko neurri ezberdinak ahaztu barik. Urrats baten edo bestearen lehentasunaren gainetik, xehetasun hauen guztien inguruko eztabaidak emankorrak izatea espero dut.



MIKEL ARROIABE

Bakegintzaren lehenengo pausoekin batera, prozesu politikoa. Honek aurrera joan behar du, ez ETAk exijitzen duelako PPk dioen bezala, euskal gizarteak hala nahi duelako baizik. Errealismoaren perspektiba galdu barik, prozesu politikoak helburu argi bat izan beharko luke: euskal gizartearen normalizazio politikoa, hau da, giza eskubide guztien berme eta egitasmo politiko guztien bideragarritasuna, bide politiko eta demokratiko soiletik aurrera. Prozesu honetan, erabakitzeko eskubidea juridikoki nola gauzatu, jorratu eta adostu beharko da, Euskal Herriko aniztasun politiko, instituzional eta soziologikoa aintzat hartuta. Elkarrizketa, metodologia eta edukien nondik norakoak aztertzeko nahitaezkoa suertatzen da alderdi politikoen mahaia, baina argi dago Batasunaren legez kanporatzeak bere osaketa erabat oztopatzen duela.

**"Erabakitzeko eskubidea juridikoki nola gauzatu, jorratu eta adostu beharko da, Euskal Herriko aniztasun politiko, instituzional eta soziologikoa aintzat hartuta"**

Izan ere, egoera honen ardatza Batasunaren legez kanporatzea da, nire aburuz. Nola gaindidu legez kanporatzea? PSOEk ez du Alderdien Legea bertan behera utziko. Sekulako beldurra dio aukera horri, 2008ko hauteskunde orokorrak galtzea ekarriko lioke-eta. Era berean, PP Moncloan egotea ez zaio inori interesatzen, prozesuaren aldeko apustua egiten dugunon artean bederen. Batasunak, bestalde, ez du Alderdien Legeak aurrez ikusten dizkion betebeharrak inolako berme juridikorik gabe onartuko. PSOEk eta PPk, 2002az geroztik, Batasuna espresuki legez kanporatzeko jurisprudentzia bultzatu dute, eta arazoa ez da izango legediaren onarpena edo onarpenik eza, alderdi politiko berri baten eta berorren ordezkarien segurtasun juridikoa baizik. Mahaia osatu ahal izateko, segurtasun juridiko hori nola bermatu izango da PSOEk eta ezker abertzaleak, gainontzeko alderdi guztien laguntzarekin batera, adostu beharreko oztopo nagusia.

Herriko auziak eta ezkerreko proiektuak alboratu barik, lan horretan murgilduta gabiltza azkenaldian alderdiok. Denok eman behar dugu zer edo zer bakeak aurrera egin dezan.

* Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotzia Arrasateko Udalean

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Athletic: Lamikiz da errudun?

| | |
|---|---|
| BAI | %66,6 |
| EZ | %33,4 |

**> ERANTZULE, BAI**
Lamikiz da Athletic-ek azkenaldian hartu dituen erabakien azken erantzulea: Zubiaurre, Clemente kasua, Valverde, Del Horno, Ezkerro...
**Bilbo**

**> JOAN DADILA**
Horixe baietz, berak agintzen du, ezta? Joan dadila, baina lehenengo ordain dezala bere poltsikotik Zubiaurre kontuagatik.
**Samu**

**> JOKALARIAK?**
Eta jokalariak? Presidenteak al dauka baloia sarera ez sartzearen errua? Jokalariak dira erantzule nagusiak.
**Kiki**

**> HOIXE BAIETZ!**
Bai, hoixe baietz, bera da erruduna. Azkenaldixan erabaki okerrak hartu ditxu eta Clementeri egin zotsana lotsagarrixa da. Hark salbatu zeban Bilbo eta gero, hala, kalera. Ikusi oiñ nun daren!
**Iñaki B.**

**DATORREN ASTEKOA: Nuklear etxe guztiak itxi beharko lituzkete?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

-top

an jaio zen, eta AEBetara joan zen, artzain, etorkizun hobe baten bila. William Douglas antropologoak elkarrizketatu egin zuen eta liburu bat idatzi, Beltranen gorabehera guztiak kontatzen. Boisen nengoen garai hartan, Estatu Batuetan, eta liburu horrek hunkitu egin ninduen, han zeuden-eta nire herkide askoren gorabeherak Ameriketara joandakoan. Orduan konturatu nintzen hizkuntza ikasi berri batean ere hunkitu egin nintekeela.

*Narrazioak.* Irakurri nuenean Joseba Sarrionandiaren liburu hori Kanadan nengoen, Ottawan. Gogoan dut liburuaren zati handi bat irakurri nuela hango Parlamentuen ondoko parke batean. Liburu harekin pentsatu nuen euskal literatura beste literatura batzuen parean jartzen ari zela, hain zen-eta ederra.

*Mattin, nere gizona.* Liburu hori irakurri nuenean Bergaran bizi nintzen, eta gaixorik nengoen. Ohean nengoela, beraz, ikasi nuen nor zen Mattin bertsolari txiki hura. Atentzioa eman zidan Mari Trekuren idazkerak, zuzena eta xaloa oso. Mari zen Mattinen emaztea, eta geroago jakin nuen *Herria*-n idazten zuela, bere herriko berriemailea baitzen.

Lance Armstrongen biografia irakurri nuenean ere, ohean nengoen, baina orduko hartan Galdakaoko Ospitalean, egun batzuk lehenago, 2002ko irailaren 11 batean, minbizia aurkitu zidaten eta. Liburua irakurrita, mirestu egin nuen gizona, adbertsitatearen aurrean erakutsi zuen kemenagatik.

Eta uda honetan liburu hau irakurri dudanean —*Gernikatik New Yorkera, Berlinetik pasatuz*—, Elorrion nintzen, hantxe bizi bainaiz orain. Harrituta geratu naiz zelango gorabeherak bizi izan zituen Jose Antonio Agirrek Gestaporen atzaparretatik ihes egiteko.

koplak

**Irati Agirreazaldegi**

## Donostia: filmetako hiri eztia

Nola zinemak hiriburutzat
hartu duen Donostia.
Zeluloidea zeharo dago
Kontxaxko urez bustia.

Film baterako osagarririk
distiratsuenak horra:
glamour giroa, Maria Cristina
eta urrezko maskorra.

Hamaika kontu, zenbat irudi
hainbeste egi usteko.
Film baten isla behar al dugu
mila gezur ikusteko?

Euskarak ere jauzi egin du
noizbait pantaila handira.
Gaitzerdi bide erakusleak
noizbait izango balira.

Zenbat hizkuntza, hainbat belarri
pantailari so bi begi.
Ulertzen ez den film baterako
ez ote dira gehiegi?

Donostiako zeru azpian
handi usteko izarrak.
Ez ote ditu amatatuko
famatu izan beharrak?

# Berandu?

**Xabier Legorburu Igarza**
(Sagastin parkearen aldeko plataformako kidea)
Antzuola

"Berandu zabizte". Hauxe izan zen Antzuolako alkateak Sagastin parkearen aldeko plataformako kideoi eman zigun erantzuna, Sagastiko berdegunean parke txukun bat egitearen aldeko 756 sinadura entregatzera joan ginenean.

Alkateak "berandu zabizte" esan zigunean, hein batean arrazoia zuen; izan ere, hitz horiek uztailaren 10ean esan zizkigun eta Antzuolako Udaleko osoko bilkurak uztailaren 7an, Sagastiko berdegunean parke txukun bat egitea hipotekatzen zuen erabakia hartua zuen, alegia, Maristetako orubea (solarra) Antzuolako Udal Etxegintzari saltzea etxebizitzak eta herriak behar dituen zerbitzu batzuk, ez denak, eraikitzeko.

Hala ere, alkateak "berandu zabizte" ez zuen esan beharrik izango Sagastin parkearen aldeko plataformak uztailaren 5ean udaletxeko erregistroan 756 pertsonaren izenean egindako eskaria Antzuolako Udalak errespetatu izan balu. Eskaera zehatza izan zen: Udalak Sagastiko berdegunerako duen proiektua geratu herritarren partaidetzarekin beste aukera batzuk aztertzeko eta bien bitartean, Udalak esku artean duen proiektura herria ezinbestean lotuko duen erabakirik ez hartzea; besteak beste, goian aipatutako Maristetako orubea saltzea.

Plataformak eskaria uztailaren 5ean egin zuen eta Udalak erabakia uztailaren 7an hartu zuen, baina, hala ere, plataforma eta 756 sinatzaileak berandu genbiltzan.

Ba, gure ustez, ez gabiltza berandu, Udal arau subsidiarioak onartzeko garaian, alegazioak eta proposamen berriak aurkeztu eta jaramonik egin ez zitzaien talde eta herritarrak ibili ez ziren moduan. Sagastiko berdeguneak oraindik berdegune izaten jarraitzen du eta horrela jarraitzea nahiko genuke. Ez plataformako kideok bakarrik, baita euren sinadura eman zuten gainontzeko pertsona guztiek ere.

Azken udal hauteskundeetako errolda kontuan hartzen badugu, Sagastiko berdegunea bere osotasunean parke txukun bezala egokitzearen alde erroldaren % 36,26k sinatu zuten (sinadura eman zutenetatik 18 urtetik gorako antzuolarrak bakarrik kontuan hartuaz). Kopuru benetan garrantzitsua, herri ekimenez eta proiektu konkretu baten alde bideratutako sinadura bilketa izan dela kontuan hartzen badugu.

Antzuolako Udala osatzen duten alderdi politikoek erroldaren % 46,52 osatzen dute, normala den bezala, sinadura bilketan lortutako %36,26a gainditzuz. Baina bi datu hauek ez dugu uste konparagarriak direnik. Izan ere, gauza bat da Udal bat osatzeko egiten diren hauteskundeak eta beste bat, proiektu konkretu baten aldeko herritarren iritzia.

Alderdi politiko bati udal hauteskundeetan emandako botoak ez du boto emailearen adostasunik adierazten alderdi honek agintaldian egiten duen guztiarekin. Agintaldi batean hainbat proiektu, egitasmo, azaltzen dira herriaren etorkizunerako garrantzitsuak direnak eta hauei buruzko erabakia hartzerakoan denon iritzi eta partaidetza kontuan hartu behar direnak. Sagastiko berdegunearen proiektua horietako bat da.

Alkateak esandako "berandu zabizte" benetako egia bihurtu baino lehen, Udalari eskatzen diogu herritar zati handi baten egindako eskaera errespetatu dezala, Sagastiko berdegunerako duen proiektua gelditzuz eta herriak behar dituen parke eta ekipamendu premiei erantzun egoki bat emateko, orain arte Antzuolako Udalean eman ez den hausnarketa prozesu zabal bat irekiz. Oraindik garaiz gabitz!

# Merkataritza-gune handiak

**Angel Alonso** (Ibarreko dendarien elkarteen izenean) > Debagoiena

Debagoieneko dendariak benetan arduraturik daude, Arrasate kanpoaldean dagoen Zabaleta-gunean eraiki daitekeen merkataritza-gunearen makro-proiektuak herriko dendetan izan ditzakeen ondorioengatik.

Makro-proiektu honek 28.000 metro koadroko azalera izango luke, hauetatik 18.000 metro koadroko azalera eraikia izango litzatekeelarik, hau da, gutxi gorabehera 200 denda izango balira bezala, eta larriena dena, erdigunetik kanpo.

Kasu horretan zer gertatuko litzateke Arrasate erdiguneko komertzioarekin eta Debagoieneko beste herrietakoarekin? Zer gertatuko litzateke gure herrietako dendekin, gertukoekin, konfiantzazkoekin, betikoekin? Garbi baitago, merkataritza-gune handi hau zabalduz gero, merkatari askok beraien dendak itxi beharko lituzketela, eta, ondorioz, gure herriko kaleak hutsik geratuko lirateke, bizitzarik gabe.

Hau guztia dela-eta, Debagoieneko lau merkatari elkarteak (Arrasateko Ibai Arte, Aretxabaletako Aretxarte, Oñatiko Txanda eta Bergarako Bedelkar) zenbait bilera egiten ari dira; izan ere, horrelako proiektu batek Arrasaten ez ezik Debagoieneko beste herrietako merkataritzan ere izugarrizko kalteak eragingo lituzke eta Eibar, Irun edo Errenterian garatu diren ereduak gure eskualdean aplikatzea galaraziko luke, hau da, herriko erdigunean bertan azoka+denda txikiak+marka ospetsuak+aisialdia ahalbidetzea.

Gainera, datozen egunotan alderdi politiko desberdinekin hitz egiteko asmoa dago, proiektu honen aurrean bakoitzaren ikuspuntua zein den ezagutzeko eta jarraian, hartu beharreko neurriak zeintzuk diren zehazteko.

# Dena kakazteraino

**Xabier Urtzelai**
Arrasate

Aspaldian gaitza da saltsetan ez sartzea. Lasaien dabilena ere edozerekin nahasten dute, dena kakazteraino. Gurekin ala gure kontra, ez besterik, eta gainera, etengabe erakutsi gurekin zaudela, ala gure kontra.

Azkenaldian arduratuta ikusi ditut lagunak, eurei ez dagozkien eztabaidetan sartu dituztelako. Gura ez, baina barrura, ultraeskuindar omen, edo hori diote. Eta zergatik? Behin, euretako batek ustezko beste talde ultraeskuindar baten elastikoa eramatearren. Beti ustezko, beti omen. Eta, zer garen edo nor garen etengabe erakusten.

Aspaldidanik ezagutzen ditut lagunak, batzuek zer edo nor diren ahopean jartzeko. Horrelako kontuei batere garrantzirik ez ematea izaten da onena. Erantzuna ematen ez duenak, baina, jasotakoak onartu egiten dituela erakusten du askotan. Eta lagunek ez dute horrelakorik gura.

Gizartea kritikatu izan dute, euren bizimoldearen berri eman, egunerokoa, lagunak, musika bera, Euskal Herriko egoera… Horiek abesti bakoitza idazterakoan letrek jaso dutena. Musika estilo gogorra egiten dute, orain, jasotzen dabiltzanaren aurrean kikilduta geratzeko, ez erantzuteko.

Sinadurak batzeko erabakia hartu dute, horrelakoetan, herritarren berotasunak, bultzadak, goxoago eta eramangarriago egiten du-eta dena.

Paradoxikoa, horrenbeste urte ilusio berarekin lanean, batzuek ustezko batekin horrenbeste min egiteko, amen batean, gainera. Lasaien dabilena ere edozerekin nahasten dutela, dena kakazteraino.

Besarkada bat, Des-kontrol.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**
**Telefonoa:** **943 25 05 01**
**Faxa:** **943 25 05 13**
**Posta elektronikoa:** **goienkaria@goiena.com**

KIA MOTORS



KIA SORENTO BERRIA 170 zp
Ezagutu ezazu!



KIA CARNIVAL
Azken 4 unitateak 23.900 €
(DVD-a opari)



KIA SPORTAGE
%12erainoko DESKONTUA

Tecnocar
Honda eta Kia banatzaile ofiziala



TECNOCAR GIPUZKOA
Erakusketa eta tailerra
Araba etorbidea z/g – Arrasate
943 79 22 67 Faxa: 943 71 27 38
Adi!
0 km eta 2. eskuko autoen sekulako aukerak
HONDA CIVIC 5 ate ES CTDI (04)
HONDA ACCORD 2.4 i-VTEC (06)
HONDA FRV 2.2 i CTDI EXECUTIVE(05)
RENAULT LAGUNA 2.2 DCI (03)
HONDA CRV 2.0 ES 4WD (00)
*Prever plana barne.

HONDA
The Power of Dreams

Eta orain, nabigatzailea eta 5 urteko bermea
HONDA CRV
Diesela i CTDI
0 km (26.900 €)
Unitate mugatuak





HONDA CIVIC BERRIA
17.700 eurotik aurrera*



HONDA ACCORD BERRIA
22.400 eurotik aurrera*






# ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, SHARP eta EDESA etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**


BERMEA 2 URTE
1.260 x 850 x 600 mm
A+
**IZOZKAILU HORIZONTALA**
**Super-isolamendua** CFS-126
Bolumena: 296L
FAGOR
**365 €** 60.731 pta


BERMEA 2 URTE
1.850 x 598 x 590 mm
A
**HOZKAILUA COMBI 4FAC495**
**345 €** 57.403 pta
aspes


BERMEA 2 URTE
A
**ONTZI-GARBIGAILUA LJA - 0140**
**199 €** 33.111 pta
aspes


BERMEA 2 URTE
1.000 b/min
6 kgr.
A+A
**GARBIGAILUA 4L104**
**240 €** 39.933 pta
edesa

**"RENOVE PLANA"** 75 euroko deskontua


**"EVA" MAHAIA**
110x70 cm
**365 €** 60.731 pta


**TELEBISTA SHARP LC-26P55**
LCD 26''
**899 €** 149.557 pta


**TELEBISTA SHARP LC-32P70**
LCD 32'' LTD BARNE
**1.250 €** 207.950 pta


**"MARIAM" MAHAIA**
110x70 cm
**270 €** 44.924 pta

ETIKETA ENERGETIKOA
Eraginkortasun gehien: A+, A, B, C, D, E, F, G :Eraginkortasun gutxien

**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34 Faxa: 943 77 13 13
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK


Eskaintza honek irailaren 28tik urriaren 7ra balio du elikagaietan eta drogerian eta 1, 2 eta 3 euroko sustapen-eskaintzako produktuetan.Gainerako artikuluetan, urriaren 21era arte.
Produktuak
€ 1,
€ 2,
€ 3,
Prezioak lehertzen ditugu!!
EROSKI
Erosten jakin




**> ARRASATE**
Argentinara joan aurretik kontzertua egingo du Goikobaluk **> 20**





**> BERGARA**
Domingo Irala kaleko lanak esleitzea onartu du Udalak **> 24**





**> ESKORIATZA**
Umeek euskaraz egiteko jolas-kutxak lau jolasgunetan **> 35**





**> ARAMAIO**
Jon Agirre presoak 30 urte egin beharko ditu kartzelan **> 38**


**ARRASATE** > UDAL EUSKALTEGIAK 25 URTE

# Udal Euskaltegiak 25 urte daramatza, jardun eta jardun, euskara erakusten

**AURRENEKOA**
Debagoieneko lehen udal euskaltegia izan zen Arrasatekoa

**ALDAKETAK**
1981etik asko aldatu dira euskara erakusteko metodoa, modua, materiala eta ikasleak

**OSPAKIZUN URTEA**
Hainbat ekitaldi egingo dituzte, aurten, urteurrena ospatzeko



**EGA** Euskarazko titulua atera nahian dabiltzan ikasleak, Arrasateko Udal Euskaltegiaren aurrean; Maritxu osteko zapatuan dute, zoritxarrez, azterketa. UDAL EUSKALTEGIA

**A.A./U.M.** > ARRASATE

"Eskola Politeknikoko geletan hasi ziren lau irakasle, ez zutelako gela propiorik. Gela txikiak ziren, nahiko eskasak. Eta hurrengo urterako erosita zeuden eta berrituta Arimazubiko beheko lokalak. Ez zen gauza handia, 200 metro pasatxo. Berehala geratu ziren txiki. Orduan, CIMera joan behar izaten genuen, soberan genituen ikasleei eskolak ematera. Eta arratsaldez Eskola Politeknikoan ematen genituen, gehi gure geletan. Gero Udalak lokal gehiago erosi zituen, eta haiekin bete genituen beharrak". Hala ditu gogoan Miren Arregi andereñoak Arrasateko Udal Euskaltegiaren hasierako urratsak. Debagoieneko lehenengoa izan zen Arrasatekoa. Eta oraindik ere euskara erakusten dihardute han, buru-belarri.

**PREMIAK ALDATU EGIN DIRA**

"Orduko jendeak ikusi egiten zuen premia zeukala. Ordura arte debekatuta izan zen eta zenbait eskolatan eskola guztiak ez ziren euskaraz, irakasle asko ez ziren euskaldunak eta haiek ikusi egiten zuten premia. Eskola askotako irakasleak izan ditut ikasle, izugarrizko gogoarekin, gainera".

Oraingo ikasleek, berriz, bestelako motibazioa dutela kontatu du Miren Arregik *Arrasate Irratian*: "Askotan etortzen dira hizkuntza eskakizuna edo profila lortzera. Nik ez dut esaten ez dutela erabiliko eta premiarik ez dutenik sentituko, baina lehen desberdina zen, militantzia handiagoa zegoen". Eta lehen ez zeuden ikasle motak ere badituzte orain: "Etorkinak ditugu, baina ez daude taldeka, eurak bakarrik. Normalean daude sartuta beste ikasleekin".

Ikasleen premiak aldatzeaz gainera, 25 urteotan euskara erakusteko metodoak ere asko aldatu direla kontatu digu; eta batez ere, materiala ugaritu zaiela izugarri. "Emateko modua ere aldatu da". Adibide moduan, kontatu digu orain gurasoei zuzendutako taldeak dituztela, Osakidetzakoendako, eskoletan bertatik eskatutako ikastaroak, eta ume etorkinendakoak, errefortzu moduan.

Aurtengo ikasturtearen gainean, berriz, esan digu gaur, egubakoitza, hasiko dela. Beraz, laster hasiko dira, baita ere, ondo merezitako ospakizuna antolatzen.

**Miren Arregi** > Arrasateko Udal Euskaltegiko irakaslea

## "Arrasateko nagusiek egiten duten euskara oso ona da"



I.B

**A.A./U.M.** > ARRASATE

**Miren Arregik 24 urte daramatza irakasle euskaltegian. Ikasturtea hastear dute; berezia izango dela esan digu.**

**Esperientzia luzea duzu gero irakasle moduan; baina aurten ilusio berezia izango duzu, ezta?**

Aspaldi hasi nintzen: gau-eskolan; gero CIMen eta gero Udal Euskaltegian. Gogoa urtero dut, baina aurten berezia izango da ekintzak izango ditugulako ospatzeko.

**Egia da umeek orain oso gaizki egiten dutela euskaraz?**

Ez dakit gaizki egiten duten; gutxi bai, behintzat. Sentsazioa daukat garai batean gehiago egiten zutela. Ondo edo gaizki egitearena, berriz... Batek esan zuen: "Euskara txarra da egiten ez dena". Hala, euskaldun-berriei ere esango nieke ez lotsatzeko eta egin dezatela.

**Euskaldun-zahar askok ere uste du txarto egiten duela...**

Gazteek entzun beharko lukete gehiago nagusien esana. Arrasateko euskara, nagusiek egiten dutena, oso ona da.

**Euskarari emandako *ostikoren* bat baduzu gogoan?**

Behin, ikasle batek *Ume madarikatuak!* irakurri eta esan zuen: "Baina zer zerikusi dute madariek katuekin?"

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Amezua | Santa Marina 32 | 943 79 09 74 |
| Domeka, 1 | Español | Araba etorbidea 14 | 943 79 18 65 |
| Astelehena, 2 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Martitzena, 3 | Zabola | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguaztena, 4 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Eguena, 5 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Egubakoitza, 6 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Domeka, 1 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Astelehena, 2 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Martitzena, 3 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Eguaztena, 4 | Zabala | Barrenkalea 25 | 943 76 16 87 |
| Eguena, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Egubakoitza, 6 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Domeka, 1 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 2 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 3 | Garate | Kale Barria 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 4 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 5 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Egubakoitza, 6 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 30 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Domeka, 1 | Iturralde | Belorrieta auzoa 1 | 943 08 11 43 |
| Astelehena, 2 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 3 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 4 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 5 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 6 | Fraile | Herriko plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)............943 46 11 11
DYA (Antzuola)............943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)............943 76 55 76
Suhiltzaileak............943 78 28 00
Ertzaintza............943 53 47 20
Osasun Etxeak
- Arrasateko ospitala............943 03 53 00
- Antzuola............943 76 62 23
- Aramaio............945 44 53 40
- Aretxabaleta............943 71 19 59
- Bergara............943 03 54 00
- Elgeta............943 03 54 00
- Eskoriatza............943 71 44 52
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola............943 76 62 46
- Arrasate............943 79 14 39
- Aretxabaleta............943 71 18 63
- Bergara............943 77 91 06
- Eskoriatza............943 71 44 07
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA............902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate............943 79 12 22
- Aramaio............945 44 50 33
- Aretxabaleta............943 77 12 64
- Bergara............943 79 12 22
- Eskoriatza............943 71 40 59
- Oñati............943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea............943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)............943 78 15 12
Nekazaritza ganbera............943 76 10 15
Zerga Bulegoa............943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate............943 77 11 43
- Bergara............943 76 44 42
- Oñati............943 78 36 67

Kiroldegiak
- Aramaio............945 44 53 35
- Arrasate............943 77 16 77
- Aretxabaleta............943 71 26 28
- Bergara............943 76 56 41
- Elgeta............943 76 82 84
- Eskoriatza............943 71 53 28
- Oñati............943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola............943 76 60 65
- Aramaio............945 44 53 74
- Arrasate............943 77 01 05
- Aretxabaleta............943 71 10 27
- Bergara............943 77 91 58
- Eskoriatza............943 71 46 88
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 03 53

Udalak
- Antzuola............943 76 62 46
- Aramaio............945 44 50 16
- Arrasate............943 79 09 00
- Aretxabaleta............943 71 18 62
- Bergara............943 77 91 00
- Elgeta............943 76 80 22
- Eskoriatza............943 71 44 07
- Leintz Gatzaga............943 71 47 46
- Oñati............943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 30**
Lainoak eta eguzkia tarteka ibiliko dira gure zeruan. Dena den, arratsaldean gutxitu egingo dira lainoak eta baliteke garbi geratzea.



**Domeka, 1**
Lainoak ugaritu egingo dira domekan, batez ere arratsalde inguruan. Horren ondorioz, zirimiri arriskua izango dugu.

## EUSKAL HERRIAN

Denetik izango dugu astebururuan geurean. Zapatuan, lainoak eta eguzkia tarteka; arratsaldean goizean baino garbiago. Domekan, berriz, euri arriskua handitu egingo zaigu, batez ere arratsalde partean. Bestalde, tenperaturak jaisten joango dira apurka-apurka.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Zapatua, 23 — **10 ºC**

**MAXIMOA** Zapatua, 23 — **27 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **34,7 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 20** | 32 ºC | 11 ºC | - l/m² |
| **Eguena, 21** | 25 ºC | 16 ºC | 27,5 l/m² |
| **Egubakoitza, 22** | 24 ºC | 12 ºC | - l/m² |
| **Zapatua, 23** | 27 ºC | 10 ºC | 0,1 l/m² |
| **Domeka, 24** | 22 ºC | 12 ºC | 6,2 l/m² |
| **Astelehena, 25** | 20 ºC | 13 ºC | 0,9 l/m² |
| **Martitzena, 26** | 24 ºC | 14 ºC | - l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA IRAILEAN

| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 14 | 22 | 30 | 7 |

# oharrak eta deialdiak

BERGARA
**> Oinarrizko zeramika ikastaroa, laster**
Oinarrizko zeramika ikastaroa emango dute urritik ekainera bitartean, Zabalotegiko dorrean. Izenematea zabalik dago 626 92 04 14 eta 943 20 65 01 telefonoetan.

ARRASATE
**> Alfabetatze eta hitano ikastaroak**
Euskal alfabetatze ikastaroa eta hitano ikastaroa antolatu ditu Udal Euskaltegiak. Argibide gehiagorako, deitu 943 79 70 77 telefonora edo bidali mezua *euskaltegi@arrasate-mondragon.net* helbidera.

ARETXABALETA
**> Algara ludotekan bazkide egiteko aukera**
Urriaren 2an zabalduko dute Algara ludoteka, eta bazkide egiteko aukera dute 3-12 urte bitarteko umeek.

BERGARA
**> San Pedroko katekesi hasiera eguna**
San Pedroko katekesia hasiko da urriaren 2an (2. eta 6. mailetakoendako), 3an (4. mailakoendako) eta 4an (3. eta 5. mailetakoendako).

BERGARA
**> 1933an jaiotakoek bazkaria izango dute**
33an jaiotakoek batera bazkalduko dute azaroaren 12an Zumelagan. Izenematea zabalik dago Intxorta tabernan, eta 6 euro aurreratu behar da.

ARRASATE
**> Sanatana Dharmaren yoga ikastaroa**
Yoga eskolak emango ditu Sanatana Dharmak urriaren 2tik aurrera. Astelehen eta eguazteneko eta martitzen eta egueneko txandak antolatu dituzte. Argibideak: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE
**> Zeramika ikastaroan izena eman daiteke**
Zeramika ikastaroa antolatu du Loixe elkarteak, eta izenematea zabalik dago Gazte Bulegoan (943 77 00 65).

BERGARA
**> Bat-bateko mezularitzaz ikasteko aukera**
Interneteko bat-bateko mezularitzaren gainean irakatsiko dute hilaren 4an eta 5ean KZgunean, 11:00etatik 13:00etara bitartean.

ARRASATE
**> Hobetu gura dutenendako taila ikastaroa**
Tailaren gainean gehiago ikasi gura dutenendako ikastaroa antolatu du Arte elkarteak urriaren 17tik aurrera. Izenematea: 645 70 59 13 edo 943 79 40 79 (Felix).

BERGARA
**> Margo eta marrazketa ikastaroa**
Ume eta gazteendako margo eta marrazketa ikastaroa antolatu du Beart elkarteak, urriaren 7an hasita. Izenematea: 653 71 53 82 (Mayra) edo 665 70 31 75 (Oihana).

ARRASATE
**> 1956an jaiotakoek ospakizuna egingo dute**
50 urte betetzen dituztela ospatzeko, 56an jaiotakoak batzartu egingo dira azaroaren 4an. Izena emateko, 50 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxako euren kontuan.

ARRASATE
**> Iturgintza ikastaroa egiteko aukera dute emakumeek urriaren 10etik aurrera**
Itogin bat geratzeko, komuneko edukiontziko zaratak eta ur-ihesak zelan konpondu, garbigailuaren konexioa zelan egin… Horiek eta gehiago ikasteko aukera dute emakumeek urriaren 10ean hasiko den ikastaro baten, Emakume Txokoan. Izenematea zabalik dago 943 79 41 39 telefonoan.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

ESKORIATZA
**> Margo tailerrean izena eman daiteke**
Urriaren 7an hasiko da margo tailerra. Izenematea zabalik dago kultura etxean, eta 80 euro da.

BERGARA
**> Udal Euskaltegian izena eman daiteke**
Udal Euskaltegian zabalik dago izena emateko epea. Argibideak: 943 76 44 53.

ARETXABALETA
**> Loramendiren hainbat ikastaro**
Bainika, eskulan eta Beinke-Loramendi dantzaren gaineko ikastaroak antolatu dituzte, urrian hasteko. Izenematea zabalik dago egunotan.

OÑATI
**> Bi Internet ikastaro emango dituzte**
Honako ikastaroak emango dituzte urriaren 3an, martitzena, KZgunean: egunkaria Internetez irakurtzekoa (11:00-12:00) eta postal bat bidaltzekoa (12:00-13:00).

ARRASATE
**> San Frantzisko Xabierkoen afaria**
San Frantzisko Xabierren ikasi zuten 1966an jaiotakoek, hirugarren promoziokoek, afaria egingo dute. Izena emateko: Nerea Garai (943 79 90 94), Regina Heriz (943 79 34 23), Ana Villar (*avillar@arizmendi.ikastola.net*).

kale inkesta

# Zer gustatzen zaizu gehien Oñatiko jaietatik?



**Arantzazu Lete**
Langilea
Oñati

Herri eguna gustatzen zait gehien; egun polita da, umearekin-eta ibiltzeko oso aproposa. Bestetik, Maiderri barrakak gustatzen zaizkio. Buelta asko emango ditu aurten ere horietan.



**Eugenio Kortabarria**
Erretiratua
Oñati

Neu musikari izandakoa naiz: bandan, otxotean… Horregatik, kontzertuak gustura entzuten ditut, eta aurten ere joango naiz entzutera. Bestalde, herri eguna ere oso egun polita izaten da.



**Maria Txakartegi**
Ikaslea
Ondarroa

Eguen gauean ibiliko gara tabernetan, ea ze giro dagoen. Entzun dut zapatuan egoten dela giro onena, baina guk unibertsitatean egubakoitzean jai dugunez, etxera joango naiz.



**Isa Contreras**
Langilea
Oñati

Herri eguna da jaietatik gehien gustatzen zaidana. Urtero moduan, aurten ere bakeroak, blusa zuria eta lepoko zapia ipini eta kalean ibiliko gara. Mozorro eguna ere ona izaten da.



**Enrike Madinagoitia**
Langilea
Oñati

Herri eguna oso ona da koadrilako plana egiteko. Sagardo piloa ekartzen dute, eta aurten ere probatuko dugu. Pilota partiduak, bertso saioak… Horietara ere joaten gara.

txaloak eta txistuak



DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

## Zaborra ateratzeko egutegia ez dute zaintzen

Mankomunitatetik iritsi zaigu kexua: Arrasateko erdialdeko bizilagun askok ez dituztela errespetatzen zaborra ateratzeko egunak eta orduak. Ondorioz, zaborra kalean uzten dute, horrek dakarrenarekin: animaliak ibiltzen dira zaborretan, haizeak sakabanatu egiten du, e.a.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

asteko datua

# 120

Debagoieneko Ospitalean eraikin berria egingo dute. Gaur egun, eraikin nagusiaren atzeko aldean dagoena bota egingo dute eta haren lekuan egingo dute berria. Horri esker, ospitaleko ohe kopurua handitu egingo dute: 74tik 120ra.

usteak uste

**Irati Agirreazaldegi**

## Urteaga, bidea zabalik dago jada

Urteaga. Nahikoa denbora pasa da, baina bidea zabalik da jada. Beraz, azkarrago ailegatuko gara, Bergaratik Antzuolara.

Autoa hartuta egin dut Antzuolarako bidea. Erabat konforme ez nago, ordea. Hainbeste itxoin ostean, espero bainuen zerbait hobea.

Hainbeste denbora bidea konpontzeko. Hainbeste denbora saihesbidearen mendeko. Hainbeste denbora Urteaga zabaltzeko. Hainbeste denbora, azkenean bide berarekin topo egiteko.

Bide bera, eta gogoan nuena baino okerrago dago gainera. Asfaltoan ikus daiteke denboraren eraginez zoruak izan duen gainbehera.

Zulo bat edo beste eta hainbat olio mantxa; hori gutxi balitz nonahi obretako kamioietatik jausitako lokatza.

Urteagatik Antzuolako bidera iritsita egin dezagun stop. Sustoren bat edo beste hartua izango du honezkero askok.

Urteagako errepidea, kexa eta protesta irekiera pozik hartu dugu, ordea. Denbora aurrezteko baita modu dotorea.

Aurrezten dugu denbora, baina ea zer datorren gerora; errepideek behar dutelako makina bat mejora.

5 galdera…

# Maria Jesus Olabarria

Jolas denda
Bergara

**1. Kontatu digute dagoeneko ez dela hemen saltzen Marokotik ekarritako narruzko produkturik; egia da?**

Marokoko generoa da saltzen ez duguna. Lehen ekartzen zituzten han turistei saltzen dizkieten produktuak: kuxinak, *pub*-ak eta halakoak. Hemengo jendea hara joaten zen, generoa ekarri eta guri saltzen ziguten: diru-zorroak, gerriko poltsak, pipak… Baina aspalditxo ez direla etortzen. Izango dira akaso zortzi urte.

**2. Ikusten dudanez, ez dugu, bada, askorik igarri; horrek zer esan nahi du, ez dela saltzen?**

Niri jendeak bakarrik eskatzen dizkit narruzko gerriko poltsak. Kuxinek-eta sasoi batean bazuten arrakasta, baina orain geroago eta txikiagoa. Guri, behintzat, ez digute ekartzen.

**3. Euskal Herrian bakarrik gertatu da hori, edo posible da produktuok beste nonbaiten erostea?**

Ez dut uste hor zehar egongo denik. Lehenago joaten ginen azoketara eta genero hori egoten zen; orain aldatzen joan da.

**4. Moda aldatu egin da, horrenbestez; orain jendeak zer eskatzen du?**

Nik, adibidez, hemengo diseinatzaileen jantziak ditut; gehiago saltzen ditut, lehen Indiatik etortzen zena baino. Gu joaten gara aldatzen, jendeak erosten duenaren arabera. Adibidez, Lesakako mutil batzuek kamisetak atera dituzte, ekartzen ditugu eta salduz gero, geroago eta gehiago ekartzen dugu.

**5. Hortaz, orain hemengo jantziak nahiago ditugu, ala?**

Bai, jendeak zerbait desberdina nahi du. Nik dauzkat, adibidez, Bilboko diseinatzaile baten jantziak; Madrilen aurkitu nuen. Lesakako batzuekin ere banabil eta kamisetak, esaterako, Iruñekoak dira. Hemengo jantziak gustatu egiten zaizkio jendeari eta prezio eta kalitate aldetik ondo daude. Gainera, jantzi horrek daude hemen landuta eta eginda.



**ETXEBIZITZAK** > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

# Uribarrin babes ofizialeko 44 etxebizitza eraikitzeko lanak esleitu ditu Udalak

Etxebizitza bloke bi eraikiko dituzte, eta lanak datorren urtean hasiko dira

Lanean hasi ostean, asko jota bi urte izango dituzte obrak bukatzeko



**LIBREAK** Babes ofizialeko etxeak eraikiko dituzten lekuan, gaur egun dabiltza eraikitzen 145 etxe libre. AINARA INUNCIAGA

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Uribarri auzoan eraikiko dituzte babes ofizialeko 44 etxebizitza. UTE Uribarri enpresak eraikiko ditu. Hain justu ere, gaur egun Uribarrin (Garaian) 145 etxebizitza eraikitzen dabilen enpresa bera. Bi bloketan eraikiko dituzte, 2007an hasiko dira lanean eta 24 hilabete baino lehen bukatu beharko dituzte.

Etxebizitza horiek izango dira lurrazal-eskubidekoak; hau da, 75 urterako lagatzen dituztenetakoak. Garajeak eta trastelekuak ere izango dituzte. Etxebizitzek izango duten prezioa, berriz, Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak zehaztuko du. Gaur egun, 1.301,12 eurotan du zehaztuta metro karratua. garaje eta trastelekuei dagokienez, berriz, 454,67 eurotan dago haien metro karratu bakoitza.

Halakoetan ohi den moduan, zozketa bidez banatuko dituzte etxeak. Hori bai, oraindik zozketa hori noiz egingo duten ez dute zehaztu. Dena den, zozketan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da Etxebiden izena ematea.

**1.800 ETXEBIZITZA ERAIKITZEN**

Astelehenneko osoko bilkuran esleitu zizkioten UTE Uribarriri etxebizitzok. Alderdi guztiek (EAJ, PSE-EE, EA, PP, Aralar eta Talde Mistoa) alde bozkatu zuen, EBk, berriz, kontra. Alderdi horretako bozeramaile Ander Rodriguezen esanetan, "Udal honetan ohikoa den operazioa da: babes ofizialeko etxeen eraikuntza bakarrik lurzoru publikoan egingo" dutelako eta ondorioz, "pribatuari ez zaiolako ezer exijitzen". Lakuntza alkateak erantzun zion etxebizitzak eraikitzeko zozketa publikoa izan dela eta ez dela bestelako erakunderik aurkeztu" (Visesa modukorik). Gogorarazi zuen, Arrasaten 1.800 etxebizitza dabiltzala eraikitzen eta erdiak izango direla babes ofizialekoak.

**PRESOAK**

## Ibaetako Agiria babestu du Udalak

Zabarte presoa biriketako gaitzak jota dagoela salatu zuen haren amak

**U.M.** > ARRASATE

Bozeramaileen batzordean EAJren babesarekin onartu zuten Ibaetako Dokumentua osoko bilkurara aurkeztea, eta hala egin zuten. Batzarrean, Udalaren babesa jaso zuen presoen eskubideen aldeko dokumentuak, EAJ, EA, EB, Aralar eta Talde Mistoaren aldeko botoekin eta PSE-EE eta PPkoen kontrakoekin.

Ostean, Premin Sanpedro presoaren anaiak PSE-EEko zinegotziei aurpegiratu zien presoekiko ez dutela legea betetzen. Adibide moduan, gogorarazi zien, besteak beste, Arrasaten badaudela preso bi zigorra beteta izan arren kartzelan daudenak: Iñaki Gaztañaga eta Unai Parot.

Bestalde, Jesus Mari Zabarte presoaren amak, Joxepa Arregik, oso hunkituta eta haserre, salatu zuen bere semea biriketako gaitzak jota dagoela, funtzionarioek izan zutelako autoan sei orduz aire girotua ipinita eta esku-burdinekin, Madrilera eraman zutenean.



Lilura
OIHALAK
*Irudi berria duen denda honetan diseina ezazu Maritxutarako zure gustuko soinekoa, prezio ezin hobean. Gainera, poltsak, eskularruak, galtzerdiak...*
Zerkaosteta 5, behea.
ARRASATE. Tel.: 943 79 89 72

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

MEHER
Bañez doktorea 1
ARRASATE
Tel.: 943 79 63 85
Maritxutarako eskaintza zabala arropa eta osagarrietan.



arbolapeta
arrasate
beinke

Uarkape
jatetxea
*Plater konbinatuak, bokatak, eguneko menuak, karta.*
*Maritxu egunerako dena prest! Ondo pasatu!!*
Otalora lizentziatua 10 Tel.: 943 77 20 04 ARRASATE

PUB HAIZEA


**UDALA** > UDALAREN, GELMAREN ETA OBENERREKAREN ARTEKO HITZARMENA

# Onartu dute Gelmako hitzarmena, behin betiko

## Ezker Batuak boikot kanpaina bultzatu gura du, 'Ez erosi halako prezioetan' leloarekin

UBANE MADERA > ARRASATE

Udalaren, Gelmaren eta Obenerrekaren arteko hitzarmenak behin betiko onespena eman zion osokoak. Puntua onartu zuten EAJ, EA, PSE-EE, PP eta Talde Mistoaren aldeko botoekin; kontra bozkatu zuen EBk eta Aralar abstenitu egin zen.

Hala, bada, zehaztu dute %10eko aprobetxamendu urbanistikoak, enpresa eraikitzaileak Udalari eman behar dizkionak, kontabilizatzen direla, guztira, 5.091.373 eurotan. Zehaztu dute, baita ere, Gelmaren eraikin esanguratsua Udalarendako izango dela eta Obenerrekak arduratu beharko duela hura birgaitzeaz. Edo bestela, horri dagokion kopurua ordainduko dio Udalari. Gainera, Obenerrekak zenbait urbanizazio obra egin beharko ditu. Eta Gelmak enpresa Arrasaten mantenduko du, gutxienez 2020ko uztailaren 1era arte. Horrela egin ezean, 4.500.000 euro eman beharko dizkio Udalari, zigor moduan.

**ALDERDIEN IRITZIA**

Alkateak poza erakutsi zuen: "Horrenbeste zeresan eman duen gaia itxi egin dugulako. Herriarendako hitzarmen ona da eta Gelmako enpresa batzordeko ordezkariak ere oso pozik daude".

PSE-EEko Gartzia ere pozik agertu zen eta esan zuen hitzarmenak baduela garantia nahikoa Gelma Arrasaten geratzeko.

EBk, berriz, haserre handia erakutsi zuen. Ander Rodriguezen esanetan, "enpresa eraikitzaileak izango dituen irabaziak herritarren kontura izango dira". Zalantzan ipini zuen Gelmako lanpostuak seguru egongo direla 2020ra arte. Gainera, iragarri zuten boikot kanpaina bultzatuko dutela bestelako alderdi ezkertiarrekin eta honako leloarekin: *Ez erosi halako prezioetan*.

Bukatzeko, Herri Anitzak prentsaurrekoa egin zuen salatzeko Udalak "informazioa desbideratu" duela eta agintariek nahaste-maniobra egin dutela. Azpimarratu zuten kezkagarriena zera dela: " Obenerrekak 177 etxebizitza libre egin behar zituela eta Udalak 308 egiteko eskubidea eman ziola". Ondorioz, babes ofizialeko 90 etxebizitza gutxiago eraikiko dituztela.



**AZKEN EGUNA** Gaur gurutzatuko dituzte, azkeneko aldiz, ikastetxeko ateak haur-eskolako sei irakasleok. GOIATZ ARANA

**GIZARTEA** > MESEDEETAKO IKASTETXEKO SEI IRAKASLE, KALEAN

# Gaur utziko dituzte lanpostuak Mesedeetako sei irakaslek

## Enpresak proposatutako kontratu aldaketa ez dute onartu gura, eta horregatik doaz kalera

UBANE MADERA > ARRASATE

Irakasleetako batek, Silvia Ezpeletak, argitu digunez, euren haserrea ez dator kontratu aldaketa horrengatik: "Helduak gara eta hori onartzeko gauza gara. Baina eskolakoek uztaila ezkero zekiten zer gertatuko zen eta irailera arte ez digute ezer esan. Eta esan izan baligute, publikora joko genuen lanera". Horrela, kontratu aldaketa ez onartzea eta kalera joatea erabaki dute sei irakasleek.

Gaineratu digute minduta daudela, baita ere, lankideekin: "Gaizki gabiltza oraingo astean, langileen artean ere sortu delako haserrea. Azkenean kontra jarri dira".

**ARAZOAREN AURREKARIAK**

Irailaren 4an hasi zuten ikasturtea Mesedeetan eta hiru egun lehenago bilera batera deitu zituzten haur-eskolako sei irakasleak. Ikastetxearen egoera ekonomiko txarra zela eta zulorik handiena haur-eskolan sortzen zela esanda, kontratua aldatzea proposatu zietela kontatu diote GOITBri: "Proposatu ziguten teknikari kontratua egitea. Horrek zekarren hilean 560 euro gutxiago irabaztea eta astean sei ordu gehiago lan egitea".

Hiru eta bost urte zeramatzaten ikastetxean lanean.

Eskolari dagokionez, ez digute adierazpenik egin gura izan.

TXANPU
Portaloian, Eroski Bidaien ondoan
(ARRASATE)

**Gontzal Beganzo** - Txanpu denda

## "Maritxutan dotore egoteko, orrazkera ere zaindu egin behar da"

GOIENKARIA- ARRASATE

Dagoeneko gain-gainean dago Maritxu Kajoi, eta jendea hasi da egun horretako janzkeraz arduratzen. Txanpu dendakoek gogorarazi gura digute, baina, dotore egoteko orrazkera zaintzea ere ezinbestekoa dela.

**Jantziak bakarrik ez, dotore egoteko ilea ere zaindu egin behar dela.**

Halaxe uste dugu guk. Janzkerei berebiziko garrantzia ematen diegu, baina orrazkera ere zaindu egin behar da, ezinbestekoa da hori.

**Eta, zer egin egun berezi horretarako?**

Zer nolako estiloa gura dugun, hori da argi izan behar dugun lehenengo gauza. Horrela erabakiko dugu zer jantzi gura dugun, eta baita zelako orrazkera eramango dugun ere. Azken kontu horri berebiziko garrantzia eman behar zaio.

**Eta, zelan asmatu orrazkerarekin?**

Lehenik eta behin, orrazkerarekin eroso egotea komeni da. Eta, orrazkera horrek bat egitea soinean daramatzagun arropekin. Eskotea eramateko ilea batuta eramatea komeni da, eta baita bizkarraldea bistan eramateko ere. Ile luzea duenak, berriz, apain eramanda nahikoa du, berez da-eta polita.

**Ilerako apaingarriak ere asko erabiltzen dira.**

Halaxe da, estiloa erabat aldatu gura dutenendako aproposak dira. Gainera, Arrasateko Txanpu dendan apaingarri mordoa ditugu, oso prezio onean. Eta, bezeroaren ileak distira berezia izan dezan osagarri aproposenak ditugu: ordezkoak, orkideak, lumak, loreak, luzapenak...

**Orrazkera zaindu egin behar dela, azken batean.**

Kontuan izan gure orrazkerak berebiziko protagonismoa izaten duela egun horretan. Horrenbestez, egin dezagun zerbait polita eta dibertigarria.

"Txanpu dendan apaingarri mordoa ditugu: ordezkoak, orkideak, lumak..."

"Orrazkerak bat egin behar du soinean daramatzagun arropekin"




Maritxutarako hainbat gomendio eman dizkigu Gontzalek. GOIENKARIA

**MUSIKA** > JASOTAKO LAGUNTZA ESKERTUKO DU ABESBATZAK

# Argentinara joan aurretik kontzertua egingo du Goikobaluk

Hilaren 6tik 15era Goikobaluk lau kontzertu egingo ditu Argentinako hainbat euskal etxetan

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Bihar, zapatua, Goikobalu abesbatzak kontzertua egingo du San Juan Bautista elizan, 20:00etan. Emanaldi horren helburua da abesbatzak Argentinara joateko jasotako laguntza eskertzea. Herriko hainbat enpresa, elkarte, denda eta erakundek lagundu dute. Emanaldi horretan Argentinan abestuko dituzten kantuen aukeraketa egingo dute.

**ARGENTINAN, LAU KONTZERTU**

Datorren egubakoitzean, hilaren 6an, joango dira Argentinarantz Maritxu Kajoiko eskapularioa jantzita. 44 lagun joango dira. Horien artean, gehienak abeslariak, baina baita laguntzaileak, trikitilariak eta beste ere bai.

Cordoba hiriko euskal etxean bi kontzertu egingo dituzte, eta beste bana Villa Maria eta Jose Clemente Paz hirietako euskal etxeetan. Hilaren 15ean izango dira Arrasaten bueltan.

**EUSKAL ETA ARGENTINAR KANTUAK**

Goikobaluk Argentinako eta Euskal Herriko kantuak abestuko ditu. Are gehiago, AEDk Dragoi Janean banatzen dituen kantuliburuxkak ere eramango dituzte, euskal etxeetan mahaiaren bueltan taldean abesteko.



**KONTZENTRAZIOAK** Argentinako emanaldiak prestatzeko hainbat kontzentrazio egin dituzte. GOIKOBALU

euskalgintzaren txokoa




**OSO ERRAZA** Bizpahiru pauso eginda alda daiteke. GOIENKARIA

**GAIA** > INTERNETEN, EUSKARAK LEHENTASUNA

## Euskaraz nabigatzea, uste baino errazagoa

Bizpahiru pauso emanda, Interneten euskarak lehentasuna izateko kanpaina

**I.B.** > ARRASATE

Arrasateko Euskalgintzak Interneten nabigatzaileak euskaraz erabiltzeko kanpaina abiarazi du.

Interneteko erabiltzaileei erakutsi gura die, bizpahiru pauso emanda, euskarari lehentasuna eman diezaieketela nabigatzerakoan. Horretarako, Arrasateko Euskalgintzan dauden erakunde guztiei pauso horiek zelan eman azaltzen duen aurkezpen elektronikoa bidaliko diete. Eta erakunde horietatik langile, ikasle, bazkide, bezero eta bestelakoei ere zabaldu-ko diete.

Informatika-denda, unibertsitate, liburutegi, lantegi eta KZguneetan ere emango dute horren berri.

Arrasateko euskalgintza | arrasatekoeuskalgintza.org



HIKA OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06



**MUSIKA** > JASOTAKO LAGUNTZA ESKERTUKO DU ABESBATZAK

# Argentinara joan aurretik kontzertua egingo du Goikobaluk

Hilaren 6tik 15era Goikobaluk lau kontzertu egingo ditu Argentinako hainbat euskal etxetan

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Bihar, zapatua, Goikobalu abesbatzak kontzertua egingo du San Juan Bautista elizan, 20:00etan. Emanaldi horren helburua da abesbatzak Argentinara joateko jasotako laguntza eskertzea. Herriko hainbat enpresa, elkarte, denda eta erakundek lagundu dute. Emanaldi horretan Argentinan abestuko dituzten kantuen aukeraketa egingo dute.

**ARGENTINAN, LAU KONTZERTU**

Datorren egubakoitzean, hilaren 6an, joango dira Argentinarantz Maritxu Kajoiko eskapularioa jantzita. 44 lagun joango dira. Horien artean, gehienak abeslariak, baina baita laguntzaileak, trikitilariak eta beste ere bai.

Cordoba hiriko euskal etxean bi kontzertu egingo dituzte, eta beste bana Villa Maria eta Jose Clemente Paz hirietako euskal etxeetan. Hilaren 15ean izango dira Arrasaten bueltan.

**EUSKAL ETA ARGENTINAR KANTUAK**

Goikobaluk Argentinako eta Euskal Herriko kantuak abestuko ditu. Are gehiago, AEDk Dragoi Janean banatzen dituen kantuliburuxkak ere eramango dituzte, euskal etxeetan mahaiaren bueltan taldean abesteko.



**KONTZENTRAZIOAK** Argentinako emanaldiak prestatzeko hainbat kontzentrazio egin dituzte. GOIKOBALU

euskalgintzaren txokoa




**OSO ERRAZA** Bizpahiru pauso eginda alda daiteke. GOIENKARIA

**GAIA** > INTERNETEN, EUSKARAK LEHENTASUNA

## Euskaraz nabigatzea, uste baino errazagoa

Bizpahiru pauso emanda, Interneten euskarak lehentasuna izateko kanpaina

**I.B.** > ARRASATE

Arrasateko Euskalgintzak Interneten nabigatzaileak euskaraz erabiltzeko kanpaina abiarazi du.

Interneteko erabiltzaileei erakutsi gura die, bizpahiru pauso emanda, euskarari lehentasuna eman diezaieketela nabigatzerakoan. Horretarako, Arrasateko Euskalgintzan dauden erakunde guztiei pauso horiek zelan eman azaltzen duen aurkezpen elektronikoa bidaliko diete. Eta erakunde horietatik langile, ikasle, bazkide, bezero eta bestelakoei ere zabaldu-ko diete.

Informatika-denda, unibertsitate, liburutegi, lantegi eta KZguneetan ere emango dute horren berri.

Arrasateko euskalgintza | arrasatekoeuskalgintza.org



HIKA OSAGARRIAK

Juan Carlos Gerra 1 ARRASATE
Tel.: 943 79 98 06



# BEHOBIA-DONOSTIA 2006

## KALORIA GUTXIKO MENUA

## Mugi zaitez, denbora aurrera doa eta !!!



**Menua:** 100 €

*Hurrengo platerak barne*

- **Entremesak:** balorazio medikua eta esfortzu proba
- **Lehen platera:** entrenatzaile pertsonala
- **Bigarren platera:** entrenatzeko pultsometroa erabiltzeko aukera
- **Postrea:** autobusean joan-etorria
- **Etxeko oparia:** izena ematearren kamiseta

*** *Laktatodun esfortzu proba egiteko aukera*

ATHLON
DNV
AUKEA Kirol Erakundea

ARRASATE
KIROL MEDIKUNTZA ZERBITZUA
(Musakola Kiroldegia)
Elkano 27. ARRASATE.
**Informazio zabalagoa:** 943 77 16 77
Leku mugatuak!




# ERDU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

- Metodologia komunikatiboa
- Talde dinamika eta erabilera
- Euskararen teoria eta praktika
- Hizkuntza eskakizunak eta EGA

**AURTEN GAINERA BERRIKUNTZA!**

4. MAILA IKASTAROA

- EGA edo baliokidea dutenentzat
- Euskara maila zaintzeko eta hobetzeko
- Lanari egokitutako gaitasun komunikatiboa lortzeko
- Laugarren hizkuntz eskakizuna prestatzeko
- Astean 2 egun, egunero 2 ordu eta erdi

**Matrikulazio epea: irailaren 4tik urriaren 6ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00**

**Garibai, 14-3. • Tel.: 943 77 03 69 • ARRASATE • e-posta: arrasate@aeknet.net**


Amagara
Erdiko kalea 54, behea. Tel.: 943 79 09 09
"Azal bakarra daukagu"
Eguzkiak, ur gaziak eta igerilekuetako kloroak kaltea egina dute jada. Horiei konponbidea emateko ordua iritsi da.
Azalaren errekuperazio programa bereziekin zain gaituzu
SOS
"Zure burua inoiz baino gehiago maita ezazu"
Kontsulta egizu


Maritxu nora zoaz
Iturrira Bartolo
iturrian zer dago ?
ardotxo txuria
biok edango degu
nahi degun guzti
Zure ametsetako trajea dugu...
Aukerarik zabalena festarako soineko, barruko moda eta osagarrietan.
Maritxu Kajoi
2006
Casa Ceciaga
Maalako Errabala, 3
ARRASATE
Tel/Faxa: 943 79 12 62

Kanpotarrak Arrasaten

**Gladis Pardo** > Boliviarra
Umeak zaintzen ditu

# "Kanpotarrok ikasteko irrikan gaude; aukera hori gurako nuke"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Gladisek bi urte egin ditu Arrasaten, eta hasiera gogorra egin bazitzaion ere, azken boladan gusturago dabil. Dituen hiru seme-alaben ikasketak ordaintzeko utzi zuen Santa Cruz atzean, eta bera ere ikasi guran dabil.**

Ekin Emakume Elkartearen bitartez egin dugu bat Gladisekin. Denboraz justu samar dabil, zaintzen dituen umeak jaso behar ditu-eta: "Familia batekin egiten dut lan, haurrak zaindu eta etxeko garbiketak egiten. Oso gustura nago eurekin, eta horrela jarraitu gurako nuke". Zaintzaile lanetan dabilen emakumeak, baina, baditu ikasketak: "Idazkaritza Exekutibo eta Informatikako Teknikari ikasketak egin nituen Bolivian, baina hemen gutxirako balio dute, baliozko egiteko dokumentuekin batera hainbat asignatura ikasi beharko nituzkeelako. Gurako nuke hori egin, baina laguntzak behar ditugu. Alde horretatik, kanpotar asko ezagutzen dut ikasteko irrikan dagoena".

**"Mariacel Ingeniaritza dabil ikasten, eta semeak hegazkinlari izan gura du; ikasketa horiek ordaindu egin behar dira"**


Gladis Pardo.

Gladisek hiru seme-alaba ditu: "Maricel da nagusia (20), Luis Marcel (18) bigarrena eta Bianca Valeria (9) gazteena. Seme-alaben ikasketak ordaintzeko asmoarekin etorri nintzen hona. Mariacelek sistemetako ingeniari izan gura du; Luis Marcelek, berriz, hegazkinlari".

**BI URTE ETXERA ITZULI BARIK**

Denbora tarte hori igaro da seme-alabak azkenekoz ikusi zituenetik, eta hori da gogorrena. Gladisek, baina, itxaropenak ditu datorren urterako, bisitan joateko. Bitartean, Ekuadorko hainbat lagunekin bizi da: "Ikustekoa da etxebizitzen salneurriak zelan dauden hemen. Alde horretatik, hemen diru asko irabazten da, baina bizitza maila ere oso garestia da. Bolivian ez dago horrenbesterainoko lanik, baina diru gutxiagorekin bizi dira".

txutxu-mutxua


GOIENKARIA

# Tomate horiek jateko asmotan dabilena...

Ba horixe, berandu dabilela, erretratuko hiru gaztetxoek (Ander, Gorka eta Ainhoa) aspaldi jan zituzteneta barazki horiek. Badira aste batzuk erretratu hori jaso genuela, baina orain arte ezin izan dugu argitaratu. Hala, erretratua bidali digunak kontatu digu Gesalibarren Matiasek eta bere anaiak aspaldidanik ortu ederra daukatela, eta azken boladan barazki ederrak jaso dituztela. Erretratukoak Matiasen ilobak dira, ortuak emandakoaz gozatzeko gertu. Hala ere, horrelako barazkiak batzeko lehenengo gogor egin behar da lan. Eta, gaztetxo horiek esan dutenaren arabera, tomateak jaso eta jateaz gain, hemendik aurrera lan egitera ere joango dira ortura. "Ikusteko dago hori!", esango du Matiasek.

bere ustez


Oihan Zubizarreta

# Prozesua eta betiko tertulianoak

Esperantzak amiltzen hasi dira. Denborak aurrera egiten du eta gertakizunen garrantzia eta balioa abiaduraren arabera neurtzen ikasi dugun mundu honetan pazientzia galtzen hasi gara. Eta delako prozesuan ezer gertatzen ari ez den sentsazioa zabaldu da jendartean.

Medioetako tertulianoen iritzien arabera ikasi dugu prozesuaren hotz-beroa neurtzen eta hala sortzen ditugu gure itxaropenak eta frustrazioak. Prozesu honek baketzerako eta normalkuntza politikorako prozesu bana dituela esaten digute. Eta iruditzen zait bakea ez dela helburu bat, baizik eta bakerik eza sortu duten kausei soluziobidea ematea, ondoren bakea egin dadin.

**"Bitartean, herritarrok kalera atera behar dugu, dagokiguna ozen oihukatzera"**

Normalkuntzarenak, aldiz, anormalak omen direnak, utopiko-idealistak (biba zuek!), betiko demokraten akelarrera biltzeko asmoa baino ez dela uste dut.

Eta prozesuak demokrazia behar du oinarrian, euskal herritar guztien ahotsari eta nahiari lekua egingo diona. Bitartean, herritarrok kalera atera behar dugu, dagokiguna ozen oihukatzera, betiko tertulianoek horrenbeste berba egin ez dezaten.

MADINA ZURAK
Aroztegia
- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegiko osagarriak

Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea • Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

Txinatar jatetxea
DRAGON ORIENTAL
東方龍
Maritxu Kajoi
egunerako menu bereziak
Deitu eta har ezazu tokia lehenbailehen!!!
943 79 85 33
Araba etorbidea 3 ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**EUSKARA** > EUSKALTEGIETAKO ESKOLEZ GAIN

# Euskaraz egiteko aukera gehiago eskaintzen dituzte Jardunek eta Udalak

Errefortzu eskoletarako eta bertako euskara lantzeko izenemate epea datorren astean amaitzen da; urrian hasiko dira ikastaroak



**ETORKINAK** Aurten sei irakasle ibiliko dira ume etorkinei eta errefortzuko ikasleei euskaraz irakasten Arrizuriagan. GOIENKARIA

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Euskaltegiez gain, Jardun elkarteak eta Udaleko Euskara Zerbitzuak euskaraz ikasteko eta batez ere euskaraz egiteko aukerak eskaintzen dituzte ikasturte berrirako.

**ESKOLAZ KANPOKO ESKOLAK**

Adibidez, eskolaz kanpoko euskarazko eskolak antolatu dituzte: "Hauek dira, batetik, Lehen Hezkuntzako ikasleendako errefortzu eskolak, normalean euskaraz egiten ez dutenendako laguntzak. Bestetik, ume etorkinendako euskarazko errefortzuak emango ditugu, 5 eta 12 urte bitartekoendako eta 12 eta 16 urte bitartekoendako. Euskaraz egitea da klase horien helburua eta doan dira. Iaz 62 ikasle izan genituen eskola horietan", dio Jarduneko Jon Unamunok.

Ume etorkinendako ez ezik, etorkin nagusiendako euskarazko eskolak ere emango dituzte. Udaleko Euskara Zerbitzuak antolatu ditu, Udal Euskaltegiarekin batera. Horiek Udal Euskaltegian izango dira eta aurreko hirurak, Arrizuriaga jauregian.

**BERTAKO EUSKARA LANTZEKO**

Udalak eta euskaltegiak bertako euskara lantzeko ikastaroa ere antolatu dute: "Hamar orduko ikastaroa da eta bi orduko bost eskoletan emango dute", azaldu du Maripi Laskurainek, Euskara Zerbitzuko teknikariak. Ikastaro hori ere Udal Euskaltegian emango dute eta herriko ikastetxeekin batera garatzen ari diren *Gehixago eta hobeto* programaren osagarri izan nahi du.

**BERRIKETAN**

Jardunek, Udaleko Euskara Zerbitzuak eta herriko bi euskaltegiek, bestalde, euskaldun zaharrak eta berriak taldeka batu nahi dituzte Berriketan egitasmoan, euskaraz hitz egiteko. Beraiei komeni zaien orduan elkartzen dira astean eta tertulia egitea da helburua. Iaz 11 talde osatu zituzten eta aurten beste horrenbeste edo gehiago egin nahi dituzte. Ikasturte berrirako ere hasi dira taldeak sortzen eta egitasmoan parte hartu nahi duenak hona deitu beha du: 943 76 08 19.

**OSOKO BILKURA** > UDAKO OPORREN BUELTAN

# Domingo Irala kaleko lanak esleitzea onartu du Udalak opor osteko osoko bilkuran

De Juana Chaos presoari buruzko mozio alternatiboa onartu zuten; Bolu eta Zabalotegikoek argibideak eskatu zituzten Udalaren asmoen gainean

**O.E.** > BERGARA

Pasa den astelehenean, irailak 25, egin zuen Udalak udako oporren osteko lehen osoko bilkura. Juan Jose Arrieta alkateordeak gidatu zuen osoko bilkura, Victoriano Gallastegi alkatea bajan zegoelako.

Osoko bilkura hartan onartu zuten, besteak beste, Domingo Irala kaleko lehen faseko obrak enpresa bati adjudikatzeko prozesua zabaltzea. Obra egiteko aurrekontua da 1.440.000 euro. Lehiaketa bidez esleituko dituzte lehen faseko urbanizazio lanak eta eskaintzak aurkezteko epea da 13 egun natural, lehiaketaren iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik kontatzen hasita. Udalak nahi du kale hori berritzeko lanak aurtengo urtea bukatu baino lehen hastea.

**DE JUANA CHAOS**

Bestalde, Iñaki De Juana Chaos euskal preso politikoaren aldeko mozioa onartu zuen osoko bilkurak, EAJ-EAk aurkeztutako mozio alternatiboa. PSE-EE eta Aralar abstenitu egin ziren eta PPk ezezko botoa eman zuen.

Bergara Aurrerak, berriz, esan zuen aurrerapausoa zela horrelako mozioa onartzea, baina Aralarrek aipatutakoa azpimarratu zuen, De Juana Chaos euskal preso politikoa dela, alegia. Bestalde, Bergara Aurrerak azaldu zuen kontu-hartzaileak berak ere proposatu duela konpromisorik ez onartzea, metatutako 4,5 milioi euroak 2006an kitatuko direla bermatu arte. Beraz, datorren urtea 1,4 milioi euroko zorrarekin hastea ez dela normala esan zuen herri plataformak.

**BOLU ETA ZABALOTEGI**

Bolu eta Zabalotegi auzoetako bizilagunek ere osoko bilkuren aretoa bete zuten beste behin euren kexa azaltzeko Udalak arau subsidiarioetan jasotzen duenarekin. Auzo bietako ordezkariek irakurri zituzten agiri banatan, proiektuaren inguruko argibide gutxi dituztela esan zuten. Udaletik jaso duten erantzuna oso teknikoa dela esan zuten eta ez diela erantzunik ematen euren behar eta galderei: Boluko propano biltegiarekin zer egingo duten, Udalak auzo horri buruz egin behar duen txosten urbanistikoaren emaitzak zeintzuk diren, eta ea Zabalotegi zeharkatuko duen errepidea noranzko batekoa edo bikoa izango den, besteak beste. Alkatea eta hirigintza zinegotzia falta zirenez, auzotarrek ez zuten erantzun zuzenik jaso.

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

**IKUS-ENTZUNEZKOAK** > LEHIAKETA

# Mikel Calvok irabazi du film laburren lehiaketa, 'Ebaki' lanarekin

Aurkeztutako lanen emanaldia egingo dute gaur, egubakoitza, Agorrosinen, 19:00etan

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Ebaki* lanari esker, Mikel Calvo bergararrak irabazi du Udaleko Kultura Zerbitzuak deitutako film laburren lehiaketa. Bigarren saria, berriz, Ainize Arrieta eta Juanma R. Pachon bergararrek irabazi dute, *Mc Guffin* lanarekin. Zortzi lan aurkeztu dituzte lehiaketara eta sari banaketa gaur egingo dute Agorrosinen, 19:00etan. Ondoren, aurkeztutako lanak ikusteko aukera izango da.

**SARI BANAKETA ETA EMANALDIA**

Mikel Calvok 300 euroko saria eskuratuko du eta Arrietak eta Pachonek, 250 euro. Epaimahaia Itsaso Mendizabal (Jardun), Gorka Manjon (Kalexka), Ainhoa Arbelaitz (Xipizaro) eta Amaia Labaienek (Islada Multimedia) osatu dute. Esan bezala, gaurko sari banaketa ekitaldiaren ondoren, lehiaketako lanak ikusi ahal izango dira Agorrosinen. Saritutako lanekin batera, *Krake Lur* (Alberto Pecharroman), *Tuberkulo* (Yera Sanchez), *Show me the way* (Josu Otaegi), *Cartografiando nubes* (Felix Pascual), *Trellats* (Eraitz Loiti eta Irene Ortiz ) eta *Poder sin poder* (Iñaki Laguardia eta Imanol Cordovilla) emango dituzte gaur.



**'MC GUFFIN'** Pachonen eta Arrietaren lanak bigarren saria jaso du.



JOSEBA LETURIA

## Kirol argazkien erakusketa Aroztegi aretoan

Legazpiar argazkilariak izan dira nagusi Udaleko Kirol Zerbitzuak eta Pol-Pol Argazki Taldeak antolatutako lehiaketan. Julian Gil eta Josu Altzelai izan dira irabazleak, koloretako eta zuri-beltzeko kategorietan, hurrenez hurren. Gilek *100 m braza* argazkiarekin irabazi du eta Altzelaik *Aupa neska* izenburuko lanari esker lortu du lehen saria zuri-beltzean.

Herriko onenaren saria koloretan Benito Canterorendako izan da (*Behobia-Donostia*) eta zuri-beltzean Joseba Leturia saritu dute, *Gamueta* argazkiarengatik (goian). Lehiaketako lan onenen erakusketa zabalik izango da Aroztegin, domekara arte. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 21:00etara, eta domekan 12:00etatik 14:00etara.

> ERAKUSKETA

### Juanjo Altunaren margoak Miñaoko Parke Teknologikoan

Juanjo Altuna margolariak erakusketa jarri du Miñaon, Arabako Parke Teknologikoan. *Espacios en construcción* izenburupean, Altuna Akitzuk bere azken lanak erakusten ditu Miñaon. Paper gainean egindako akriliko lanak dira, 47 guztira. Parke teknologikoko pabilioi nagusian ikus daiteke erakusketa urte amaierara arte, abenduaren 31ra arte, hain zuzen ere.

Erakusketa aretoa astelehenetik larunbatera izango da zabalik, 09:00etatik 20:00etara.

> IKASTAROAK

### Pintura gaztetxoentzat eta eskulanak eta zeramika nagusientzat

Beart elkarteak 5 eta 15 urte bitartekoendako pintura eta marrazketa ikastaroa antolatu du. Urriaren 7an hasita, zapatu goizetan izango dira eskolak, 10:00etatik 13:00etara. Izenematea, 653 71 53 82 zenbakian (Mayra; iluntzean).

Bestalde, BEKEk eskulanen ikastaroa antolatu du emakumeendako. Argibideak, 625 70 78 92 (Koro) telefonoan. Eta zeramika hastapen ikastaroa Zabalotegiko dorrean izango da. Izenematea, 626 92 04 13 telefono zenbakian.

> IKASTAROAK

### Sendabelarren eta altzari berritzearen gaineko ikastaroak

Udaleko Kultura Zerbitzuak bi ikastaro antolatu ditu: batetik, sendabelarrena urriko martitzenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Urriaren 3an hasi eta urriaren 31n amaituko da. Bestalde, *Altzarien zaharberritzea* ikastaroa urriaren 3tik abenduaren 26a bitarteko martitzenetan izango da, 18:30etik 20:30era.

Izenematea zabalik dago kultura etxean, irailaren 30era arte. Argibideak, 943 77 91 58 telefono zenbakian.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Dixula
BOKATAK DAUZKAGU
Barrenkalea 32
BERGARA
Tel.: 943 76 44 95

ARRI
Industri hornidura
Latigilloak
Telleria 2, BERGARA
Tel.: 943 76 19 04
Faxa: 943 76 43 03
Sakelakoa: 656 78 64 84

# UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK

K21 KALITATEA





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak







**ALTZARI DENDA**
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04




## AKULU AEK EUSKALTEGIA

MAILA GUZTIETAN IKASTARO PRAKTIKOAK

**Astean hiru egun 2 ordu**

- **Metodologia komunikatiboa**
- **Talde dinamika eta erabilera**
- **Euskararen teoria eta praktika**
- **Hizkuntza eskakizunak eta EGA**

**Matrikulazio epea: irailaren 4tik urriaren 6ra • Ordutegia: 11:00-13:00 / 18:00-20:00**

**Arrizuriaga jauregia Espaloia • Tel.: 943 76 05 18 • BERGARA • e-posta: bergara@aeknet.net**




**GAZTEAK ETA SENIORRAK** Josetxo Muniategik zuzenduko du territorialeko taldea, eta Lander Juaristiren esku egongo dira gazteak; Aitor Goiti eta Unai Orgaz izango dira infantil mailakoekin. JOSETXO MUNIATEGI

**ESKUBALOIA** > AURRE-DENBORALDIA

# "Derrigor jokatu behar dugu azkar"

## Bihar jokatuko dute Bergarako eskubaloi taldeek aurre-denboraldiko azken norgehiagoka

## Datorren asteburuan hasiko dute liga; taldean argi dute zertan egin behar duten lan

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Bihar arratsaldean izango da Bergarako taldeendako azken entsegua egiteko momentua, gazteek eta nagusiek datorren asteburuan hasiko dute-eta benetako lana. Hala, infantil mailako taldeak Urolaren kontra jokatuko du bihar (16:00). Geroago, gazte mailako taldeak ere kontrario bera izango du, Urola (17:15). Eta, eskubaloi ikuskizuna amaitzeko, territorial mailan jardungo duten Bergara eta Leitzaran izango dira aurrez aurre.

**LAU TALDE**

Infantil mailan harrobi ona izango du Bergarak, nesken eta mutilen talde bana izango dute-eta. Eta, gazte mailako taldeaz baliatuko dira jokalariak territorial mailara egokitzeko. Josetxo Muniategik azaldu digu hori: "Gazte mailako taldeak garrantzi handia izan behar du aurten, eurak dira-eta datorren urtean goiko mailan izango direnak. Alde horretatik, gazteek ohitu egin behar dute talde nagusiaren jokatzeko modura; horretarako egiten dituzte hainbat entrenamendu-saio talde nagusiarekin".

**EZAUGARRI BEREZIAK**

Bergararen jokoak hainbat ezaugarri ditu: "Bergaran ez ditugu gainontzeko taldeek izaten dituzten jokalari sendo eta indartsuak. Alde horretatik desabantaila dugu, defentsa lana egiterakoan batez ere. Horrek esan gura du derrigor jokatu behar dugula azkar, erritmo handiarekin, eta defentsan kantxan ondo zabaldu. Joko aldetik beste talde batzuek egiten dutena baino politagoa da gurea, baina errazagoa da irregularra izatea, taldeak ez du izaten-eta beti azkar jokatzeko gaitasuna. Badaude defentsaren erdian geldi-geldi geratzen diren jokalariak; guk ezin dugu horrelakorik egin, eta defendatzeko beste erreminta batzuk erabili behar ditugu".

**HELBURU GARBIAK**

Joan den denboraldiko liga ondo baino hobeto amaitu zuten bergararrek, eta amaiera hartan erakutsitako gorputzaldiak kopan izan zuen jarraipena. Finalerako sailkatzea zen mahoneroen helburua, baina atean geratu ziren, finalerdian kaleratu zituzten-eta: "Orduan kolpea hartu genuen, baina taldeak ahaztu du hori. Dena dela, ondo etorri zen, jokalariek ikusi egin zutelako zer egiteko gauza diren. Orain, ikusi egin behar da presio moduko hori zelan bideratzen dugun, alde ala kontra egingo digun".

Kontuak kontu, goiko kategoriatik ez da inor jaitsi, eta joan den urteko hiru taldek nazional mailara egin dute jauzi. Horrek esan gura du, Ormaiztegi, Urnieta edo Usurbilekin batera, Bergarak kategorian agindu egin behar duela.




**UDALAREKIN EUSKARAZ.**
Bergarako Udalak euskaraz funtzionatzen du neurri haundi batean. Bulegoetako langile guztiak euskaldunak dira eta barruko funtzionamendua euskaraz da nagusiki. Baina oso inportantea da herritarrek ere Udalarekin euskaraz jardutea. Horregatik, Udalak idatziak euskaraz jaso nahi dituzten herritarrei horretarako aukera eskaintzen die eta 4300 lagun dira hori eskatu dutenak.
EBPN
euskara biziberritzeko plan nagusia. Bergara
Informazio gehiago:
www.bergara.net
Euskara Zerbitzua: 943 77 91 66
BERGARAKO UDALA


> MENDI IRTEERA

## Pol-Pol eta Gorla mendi elkarteek irteera antolatu dute urriaren 12ko zubirako; Gredosera joango dira

Gredosko (Avila) mendi zerrara egingo dute irteera Pol-Poleko eta Gorla mendi elkarteko lagunek. Urriaren 12ko zubian joango dira hara, lau egunetako txangoa egiteko. Hala, antolatzaileek mendizale guztiak gonbidatu gura dituzte irteera horretan esku hartzeko. Izena emateko azken eguna urriaren 6a izango da, datorren egubakoitza. Txartelak Gracian eta Agirre dendetan daude salgai, 120 eurotan. Esandako moduan, martxoaren 12an abiatuko dira Avila aldera; 16:30ean egin dute hitzordua, pilotalekuan.

> FUTBOLA

## Eibarren lehiatuko da Bergara; BTLS taldeak, berriz, Gazteak-en zelaian jarraitu gura du bolada ona

Lehenengo erregionalean, norgehiagoka bat irabazi eta beste bat berdinduta, Neka Galanen mutilak laugarren postuan daude sailkatuta. Asteburuan, berriz, zortzigarren lekuan dagoen Eibartarrak taldearen kantxara joan beharko dute garaipen bila.

Bigarren erregional mailan, berriz, jokatu dituen bi partiduak irabazita lider da BTLS Bergarako talde berria. Hala ere, lehia estua dago, Elgetak, Soraluzek eta Antzuolak dituzte-eta seina puntu. Asteburuan, Gazteak taldearen kontra jokatuko du BTLSk.

Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko irailaren 29a / **GOIENKARIAren GEHIGARRIA /** Arduraduna: Leire Kortabarria / Maketazioa: Oxel Arrieta



# SAN MIGELAK 2006

## Aretxabaletako jaiak

ARGAZKILARIA: GOIENKARIA

ARETXA AUTOAK

Debagoieneko espezialista onena marka hauetan:

SEAT Audi

San Migel jai zoriontsuak opa dizkizue!

Basabe poligonoa A-2-4 20.550 Aretxabaleta • Tel.: 943 71 00 68

www.autosaretxa.com




• Erakusketak
• Antzerki, zine eta musika-zikloak
• Liburuen argitalpena
• Kanpaina desberdinen eragiketa
• Erakusketa eta ikus-entzunezko materialen alokairua

KULTURGAIAK
HURBIL
KULTURA ZERBITZUAK

HURBIL KULTURGAIAK, S.L.
Arkarazo auzoa • Bikarixuena baserria • p.k. 160
20550 ARETXABALETA
tel.: 943.71.42.08 • faxa: 943.71.47.08
e-posta: hurbil@hurbilkulturgaiak.com

EGITARAUA

# JAIETAKO EGITARAUA

## Egubakoitza, 29

**19:00** BURUHANDIEK kalejira egingo dute, Aretxabaletako TXISTULARIEKIN batera.
**19:30** ERDI AROKO KONDAIRA herriko plazan.



TXALAPARTA SAIOA.

**22:30** 'SASI ARTEAN' UMEENDAKO IKUSKIZUNA egingo du Gero taldeak Iturrigorri frontoian.

## Zapatua, 30

**10:00-14:00** ARTISAU FERIA eta 12. AZOKA BIOLOGIKOA Durana kalean eta herriko plazan. Taloak eta sagardoa hartzeko aukera goiz osoan.
**10:30** DIANA herriko txistulariekin.
**11:30** LEIZARRA MUSIKA ESKOLAKO TRIKITILARIEK kalejira egingo dute.
**12:30** TXALAPARTA emanaldia Durana kalean.
**13:00** SALDA JANA izango da Durana kalean.
**Goiz osoan** talo txosna egongo da Durana kalean.
**13:00** BILBOKO GAITARIEK bazterrak alaituko dituzte euren musikarekin.
**14:30** HERRI BAZKARIA egingo dute herriko plazan. Bertsolariak, umeen txokoa, koadrilendako jolasak...
**Segidan,** ASTO LASTERKETA.
**18:00** LARRIN DANTZA girotuko dute Bilboko gaitariek Durana kalean.
**19:00** TXATUNGA BENBE taldearen emanaldia herriko kaleetan barrena.
**22:00** EUSKDISKOTEKA herriko plazan DJ euskaldun batekin.



ARTISAU FERIA

## Domeka, 1

**13:00** HERRI KIROLAK herriko plazan.

Aizkolariak:
Ernesto Ezpeleta *Bihurri*
Jose Ignacio Flores *Arbizu*
Maika Aristegi
Maider Berra

Harri-jasotzaileak:
Joseba Ostolatza (Euskadiko txapelduna)
Jon Goenatxo

Aurkezlea: Ziriako (Arrate Irratiko kazetaria)

**16:00** XIV. San Migel MUS TXAPELKETA herriko plazan. Izenematea, 15:15etik 15:45era.
**19:00** Mikel Deunaren kontzertua Iturrigorrin: *El caserío.* Aretxabaletako Leizarra musika eskolaren eta Aretxabaletako abesbatzaren emanaldia.



DANTZA IKUSKIZUNA

# Euskal dantzekin 'Sasi artean' murgilduko gara

Iturrigorri frontoian
**Egubakoitza, 29**
**22:30**
Gero dantza taldeak egingo du emanaldia

## Gaur iluntzean, Iturrigorri frontoian izango da dantza eta musika ikuskizuna Axular ikastolako umeen eskutik

ARANTZAZU EZKIBEL

***Sasi artean*** **Kutxaren laguntzarekin antolatutako ekitaldia da, umeek egina. Ume talde baten eta iratxo baten arteko harremana kontatuko digute, guztia musika eta dantzez alaiturik.**

Gaztetxoentzako gaua izango da gaurkoa Aretxabaletako jaietan. Hain zuzen ere, Donostiako Gero dantza taldeak *Sasi artean* umeen ikuskizuna eskainiko du Iturrigorri frontoian, Kutxaren laguntzarekin antolatuta.

**IRATXO BATEN ISTORIOA**

Dantza eta musika ikuskizuna 22:30ean hasiko da. Hain zuzen, Axular ikastolako umeek iratxo baten istorioa kontatuko digute euskal dantzen bidez.

Iratxoa sasi artean bizi da. Egun batean, neskatila bat oinez doa mendian barrena eta ahots arraro bat entzun du; hurbildu, eta sasi artean izaki bizidun bat sumatu du. Adiskideei deitu, eta horietako batzuek, ausartenek ziur asko, izaki hori zapaltzeari ekin diote; txikitu egin nahi dute. Baina lortu ezinda, alde egin dute. Izaki hori iratxoa da-eta...

Bat-batean, ipotxa askatu egin da, eta *Argitxo* dela konturatuta, gure lagunek ongietorria egin diote. Ipotxak bere bidea jarraitu du euskaraz urratsak emanez, oinez, korrika, kilometroak eginez, ibilaldian edo sasi artean.

**KULTURA BULTZATZEA HELBURU**

2004. urtean, Axular ikastolako guraso batzuek Gero taldea sortu zuten, euskal dantzan beste urrats bat emateko asmoz. Helburua zen kultura landu eta bultzatzea. Horretarako, gure dantzak eta musikak *jantzi* egin nahi izan dituzte; beste musikekin apaindu, argiekin margotu eta gaurko tresna eta teknikekin mimatu.

Aukera paregabea dugu gaur Iturrigorrira hurbildu eta euskal dantzez eta musikaz gozatzeko.



GOIENKARIA

Gure betiko dantzei gaurkotasun ukitua ematen diete Gero dantza taldekoek.

**'Sasi artean' umeen ikuskizuna 22:30ean hasiko da, Iturrigorri frontoian**

**Donostiako Axular ikastolako umeek osatzen dute Gero dantza taldea**







GUREA
Gora San Migelak!
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64


Kimua
Loradenda
• Lore natural eta arti zialez egindako konposizioak
• Etxera eramateko zerbitzua
• Teleordainketa
• Ezkontzak (elizen dekorazioa, ezkontzetarako lore sortak,...)
• Hilerrietarako lore koroak
ONDO PASAU SAN MIGELAK!
Araba ibilbidea 24 Aretxabaleta
Tel.: 943 53 49 40

**ARTISAU FERIA ETA AZOKA BIOLOGIKOA**

# Artisauak eta azoka, jaietako beste gune bat

## XII. azoka biologikoa eta artisauak Duranan izango dira

ARANTZAZU EZKIBEL

**Artisauak eta azokak ere jaietako parte dira. Aretxabaletako jaietan, bihar goizean izango dira.**

Jaietako ekitaldien artean, bihar goizean ospatuko diren artisau feria eta XII. azoka biologikoa hitzordu garrantzitsuak dira. Hala, 10:00etatik 14:00etara egongo dira salgai eta ikusgai gure produktuak Durana kalean eta herriko plazan.

### BERTAKO SALTZAILEAK

Eguna giro onean hasteko, 10:30ean diana izango da herriko txistularien eskutik. Ondoren, Lizarra musika eskolako trikitilariak arituko dira herriko kaleetan zehar.

Azoka biologikoa Durana kalean eta herriko plazan jarriko dute. Bertara ibarreko baserritarrak gerturatuko dira produktu biologikoak saltzera.

### ARTISAU POSTUAK

Euskal Herri osotik etorritako artisauak izango ditugu bihar ikusgai Durana kalean; egurra, burdina, saskiak eta larrua lantzen dituztenak, besteak beste.

Ondoren, herri bazkaria egingo dute herriko plazan, bertsolariek girotuta.

**Euskal Herri osotik etorritako artisauen lanak egongo dira salgai Durana kalean eta herriko plazan, bihar goizean**




ARETXABALETAKO UDALA

Bertako baserrietako produktu biologikoak erosteko aukera izango dugu. Artisauak lanean ere ikusiko ditugu.




Fino
Gizonezkoen
ile apaindegia
Ondo pasau herriko jaixak!
Durana 19 • Aretxabaleta
Tel.: 666 264 886


"Danondako jaixak.
Danondako udala.
Danondako herrixa.
Danondako askatasuna.
Danondako bakia.
Danondako Euskal Herrixa.
Gora San Migel jaixa eta aupa Atxabalta!
aretxabaletako
aralar

MUS TXAPELKETA

# Kartazaleendako, XIV. San Migel Mus Txapelketa

Herriko plaza

**Domeka, 1**
**16:00**

Adin guztietako kartazaleendako mus txapelketa antolatu dute.

## 100 bat lagun espero dituzte domekan, Herriko plazan; 16:00etan hasiko dira partidak

UBANE MADERA

**Hamalaugarren aldiz mus txapelketa jokatuko dute San Migel jaietan. Hitzordua da herenegun, domeka, herriko plazan. 15:15etik 15:45ak arte izenematea zabalduko dute. Gero, jokoa hasiko da!**

Eguraldiak laguntzen badu, plazan. Eta laguntzen ez badu, udaletxeko arkupeetan. Hantxe elkartu beharko dute musean jokatu nahi duten bikoteek domekan. Esandako moduan, izenematea da 15:15etik 15:45era eta 20 euro ordaindu beharko da bikoteko. Gero, 16:00etan hasiko dira partidak. Txapelketaren antolatzaile Inma Migelek esan digu aurreko urteetako txapelketetan 50 bikotek parte hartu izan dutela, eta aurten ere antzerako kopurua espero dutela: "Gehienak gizonezkoak izaten dira; akaso 50 bikotetik bi bakarrik izango dira emakumezkoak".

Kontuak kontu, jende asko espero dute txapelketan, eta, horren ondorioz, aurreikusten dute luze joko duela jokoak, "iluntzera arte seguru, akaso 21:00ak arte iraungo du".


GOIENKARIA

**Txapelketan parte hartu gura izanez gero, egunean bertan plazara joan eta han, 15:15etik 15:45era hartuko dituzte izenak**

**Estreinatu bako kartak emango dituzte antolatzaileek, eta, ondorioz, ez da epailerik izango txapelketa zaintzen**

### LAU SARI DIRUTAN

Lau sari banatuko dituztela ere kontatu digu: "Batutako diruaren arabera prestatuko ditugu sariak, aurreneko lau bikoteendako". Dena den, diruarekin batera, txapeldunei txapela emango dietela gaineratu digu eta lehenengo eta bigarren bikoteek garaikurra ere eskuratuko dutela.

MAKAI
Koop. E. Mugatua

BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU
•
UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

Ondo ibili San Migeletan!


ARETXABALETAKO UDALAK
SAN MIGEL
JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUE ARETXABALETAR GUZTIOI!
Aretxabaletako
Udala

HERRI BAZKARIA

# Herri bazkarirako menu berria: txuletak patatekin

Herriko plazan

**Irailaren 30ean 14:30**

Herri bazkaria, bertsolariak, umeendako jolasak...

## Presoen Lagunen Taldeak antolatutako herri bazkaria bihar, zapatua, izango da

MIREIA BIKUÑA

**Bi aldaketa nagusi ditu aurtengo herri bazkariak: menua eta tokia. Marmitakoaren ordez, txuletak patatekin izango da menua; eta bazkaria Aretxabaletako plazan egingo dute.**

Azkeneko urteotan herri bazkaria frontoian egin ondoren, aurten herriko plazan egitea erabaki dute. Bertan jarriko dituzte mahaiak. 350 lagun espero dituzte antolatzaileek. Hala, 400 txartel jarri dituzten salgai herriko hiru tabernatan: Orly, Urbaltz eta Gurea tabernetan, hain zuzen. Horren harira, antolatzaileek gogorarazi nahi dute ez dutela txartelik salduko herri bazkariaren egunean bertan: "Aurten menua aldatzea erabaki dugu. Marmitakoarekin ez zen arazorik egoten azken orduan lagun gehiago etorrita ere. Baina txuletak erosi aurretik zenbat lagun etorriko ziren jakitea komeni zitzaigun. Hala, bazkari egunean txartelik ez saltzea erabaki dugu", azaldu digu antolatzaile taldeko Nerea Altunak.

### SAGARDOTEGIKO MENUA

Txuletekin batera, patatak eta entsalada egongo dira menuan; postrerako, gazta eta irasagarra (menbrilloa), eta gero, kafea eta kopa.

Era berean, hori guztiori bustitzeko Petritegi sagardotegitik ekarritako bi kupel jarriko dituzte: "Gure asmoa sagardotegiko menuaren antzekoa egitea zen. Ia berdina da, baina bakailaorik gabe", azpimarratu digu antolatzaile taldeko kide batek.




ARTXIBOA

Orain arte, frontoian egin izan dute herri bazkaria, eta aurten, plazan egingo dute.

### BERTSOLARIAK ETA JOLASAK

Bazkari ondorengoa animatzeko beste ekintza batzuk ere iragarri ditu Presoen Lagunen Taldeak: Debagoieneko hiru bertsolariren saioa izango da, eta Gazte Ekimenaren eskutik, koadrilendako jokoak. Bada, koadrila irabazleari baserriko produktuez osatutako saskia emango diote opari. Eta umeentzat ere egongo da aukerarik: aurpegiak margotzeko tailerra izango dute. Gainera, herri bazkarian parte hartzen dutenen artean gaztak zozketatuko dituzte.

### BESTE EKINTZA BATZUK

Herri bazkariaren ondoren, koadrilendako asto lasterketa egongo da. Herriko plazan izango da.





Zorionak aretxabaletar guztioi!

Altzariak
Diseinua
Apainketak

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK • DISEINUA
Bizkai 1 ARETXABALETA Tel.: 943 79 08 07


KTIBOS
ZAPATA DENDA
Murubide 2 behea / Tel.: 943 53 37 33
ARETXABALETA
POMPDAPI
San Migel zoriontsuak igaro!


ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK
ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
ACTIVA
Ondo ibili San Migeletan!
Iparragirre kalea 4 ARETXABALETA Tel.: 943 53 31 86

EUSKDISKOTEKA

# Euskaraz, dantza giroaz gozatzeko aukera

## DJ euskaldun batek dantzarako musika ipiniko du zapatuan



GOIENKARIA

Benetako diskoteketako moduko argien eta kearen artean dantza egingo dute gaztetxoek.

LEIRE KORTABARRIA

**Euskdiskofestak arrakasta izan du Aretxabaletara etorri denetan; orain ere bisita egingo digu.**

Gaztetxoek kaleko giroaz gozatzeko aukera izango dute San Migel jaietan. Horretarako, aurreko jaietan –Andramari jaietan, adibidez– harrera polita izan duen ekitaldia ekarriko du: Euskdiskoteka. Bihar, zapatua, izango da, herriko plazan, 22:00etan.

**MUSIKA, ARGIAK…**
Disko-jartzaile euskaldun baten eskutik, gaztetxoek aire zabalean dantza egiteko aukera izango dute. Horretarako, euren gustuko musika ipintzeko eskatu ahal izango diote DJari. Euskarazko abestiak ez ezik, ingelesezkoak, gaztelaniazkoak… izango dira aukeran. Agertokia, kemakina, flash argiak eta argi mugikorrak… Hainbat motatako elementu ikusgarriek girotuko dute dantzarako gau hori.

**Disko-jartzaileari gustuko abestiak eskatzeko aukera izango dute 12-16 urte bitarteko gaztetxoek**

12-16 urte bitartekoendako ekintza da, eta helburua da gaztetxoei gauean ondo pasatzeko alternatiba bat ematea. Aretxabaletan eta Debagoien osoan ekintza arrakastatsua da.

**ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK**
**Obra eta proiektuen kudeaketa integrala**

ARQUERO CONSTRULAN S.L.

San Migel jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Zuzendaria: Lyonel Arquero
Dekorazioa: Soraya Arquero

Basabe poligonoa 4, EQ-11 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 51 608 77 28 67 679 45 57 64
construlan@euskalnet.net www.construlansl.com


fotodepilazioa
Presta zaitez laser depilaziorako
• Besapeak
• Iztaiak
• Aurpegia
• Sorbalda
• Hankak
• Besoak
Gemes
estetika
Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18
ARETXABALETA
Etorri eta informa zaitez
konpromiso barik.
Depitotal®
Ondo pasa jaixetan!


J.J. ITURGINTZA
IRURE
• URA • GASA • KALEFAKZIOA
Mitarte 15 ARETXABALETA
Tel. / Faxa: 943 79 31 87
ONDO IBILI
SAN MIGELETAN!!!

TRIKITILARIAK

# ‘El Caserio’ zarzuelan oinarritutako kontzertua

Iturrigorri frontoian

**Urriaren 1ean 19:00**

Jesus Guridiren zarzuelan oinarritutako kontzertua

## Ordu eta laurdeneko kontzertua eskainiko du Iturrigorri frontoian Aretxabaletako abesbatzak

MIREIA BIKUÑA

**Jesus Guridik idatzitako *El Caserio* zarzuelako pasarterik ezagunenak bildu ditu Aretxabaletako abesbatzak. 35 lagunek hartuko dute parte emanaldi berezi horretan.**

*El Caserio* zarzuelak hiru ordu irauten du, eta Aretxabaletako abesbatzak ordu eta hogei minutuko moldaketa egin du; zarzuelako hamaika kantu jaso ditu. Kantu batzuk abesbatzak abesten ditu eta beste batzuk, aldiz, bakarlariek. Leizarra musika eskolako kideek ere parte hartuko dute kontzertuan.

Sasibill baserrian kokatzen da istorioa. Santi da baserriko jabea eta Arrigorriko alkatea. Santik Ana Mari eta Joxe Migel ezkondu nahi ditu, baina Joxe Migel ez dago oso konforme. Hori dela eta, Santik berak erabakiko du Ana Marirekin ezkontzea. Eta, erabaki hori jakinda, Joxe Migel jeloskor jarriko da. Hala, Ana Mariren ezkontza proposamena onartuko du. Aldi berean, Txomin eta Inozenzia baserriko morroiak maitemindu egingo dira.

Mariatxen Urkia, M. Carmen Etxandia, Entzi Zubiri, Jose A. Esnaola eta Jose J. Etxeberria dira kontzertuko bakarlariak.



ARTXIBOA

San Migel Deunaren kontzertua urteroko ekitaldia da, eta Aretxabaletako abesbatzak eta Leizarra musika eskolak egiten dute.

### TRIKITILARIEN KALEJIRA

Irailaren 30ean egingo dute kalejira Leizarra musika eskolako trikitilariek. Aste honetan egin dute azken entsegua. Eskola orduan hitz egin genuen Maddi, June, Haizea eta Oihanerekin: "Musika eskolan ikasten duguna erakusteko aukera ematen digute kalejirek. Oso gustura ateratzen gara kalera", esan ziguten.

**Irailaren 30eko kalejiran musika eskolako 40 lagun aterako dira, trikitia eta panderoa jotzen**

40 laguneko taldea izango da Aretxabaletako kaleak animatuko dituena. Trikitilariekin batera panderojoleak ere arituko dira, zapatuan, 11:30ean hasita.

DAGDA
IRISH
Pub

San Migeletan egiguzu bisita!





Belorrieta 3, behea ARETXABALETA Tel.: 943 71 25 96

Egunero irekita goizeko 10etatik gaueko 12ak arte
Larunbat eta igandeetan 10etatik goizaldeko 1,30ak arte

Gosariak
Era askotako pintxoak
Inportazioko garagardoak
Kafeak
Kopak
Giro ona
Udako terraza

Konpainia ezin hobean garagardo on bat gozatzera etor zaitez!

Zenbaki
Aholkulariak

TÜV
TÜV Internacional
Grupo TÜV Rheinland
EMPRESA CERTIFICADA
ISO 9001:2000

• Kontabilitatea
• Fiskalitatea
• Lana
• Juridikoa

SAN MIGEL JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

BASABE
jatetxea
Basabe poligonoa Aretxabaleta
Tel.: 943 77 07 94

• Eguneko menua • Karta
• Plater konbinatuak eta ogitartekoak

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)
SAN MIGEL ZORIONTSUAK IGARO!





DCA company
Design, Consulting & Computer Assistance

Mantentze-lan informatikoa.

Behar informatikoen azterketa.

Diseinua.

Informatikako materialen salmenta.

Gestio komertzialerako aplikazioa.

Vodafone Mobile Connect 3G.

**Informazio geihago:**
**943 71 41 61**
**www.dcacompany.com**



© **DCACompany**.
Basabe poligonoa C, 2. pab. – 20550 Aretxabaleta – Gipuzkoa

EAJ
PNV

**Aretxabaletako EAJ/PNV-k**
**jai zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!**

**mingainari tiraka**

**Amaia Torre** > In Faradis dendakoa

# "Freskoa den edozein usain gustatzen zait"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Kolonia eta lurrin poteak, makillajea, xaboiak zein etxerako garbiketa produktuak aurki ditzakegu Bergarako In faradis dendan. Amaia Torre bergararrak uztaila ezkero dihardu bertan, eta txukun egoteko sekretuak kontatu dizkigu.**



**Goizero makillatzen direnetakoa zara?**
Bai, gustatu egiten zait. Gainera, gimnasia erritmikoan ibilitakoa naiz eta ikuskizunetarako makillatu egiten ginen.

**Nezeser batean zer ezin da sekula falta?**
Nork bere gorputza garbitzeko produktu guztiak dira beharrezkoak nezeserrean.

**Zein kolorerekin ez zinateke makillatuko?**
Laranjarekin. Aurpegiko bizitasuna moteltzen du.

**Aurpegia distiratsu izateko sekretua?**
Eguneroko tratamenduak erabiltzea: krema hidratatzaileak, esaterako.

**Eta etxeko baldosak?**
Dendako produktuekin garbitzea.

**Zein famatu makillatuko zenuke?**
Jennifer Lopez. Haren aurpegia gustuko dut, eta makillatuta politagoa egon daiteke.

**Azkenaldian oparitu dizute koloniarik?**
Bai, orain dela gutxi. Dendan ikusten ditudanekin alderatuta ez da marka garesti batekoa, baina gustuko dut.

**Gustuko usain bat? Eta gorroto duzuna?**
Freskoa den edozein usain gustatzen zait; melengak, enpalagosoak direnak, berriz, ez ditut batere atsegin, burukomina eragiten didate. Hala ere, pertsona bakoitzak bere usaina eta bere gustuak ditu usain kontuan.

**Etxerako garbiketa produktuak saltzen dituzue, baina zuk zein etxeko lan duzu gogokoen?**
Gustatu ez zait bat bera ere gustatzen, baina denetarik egiten dut.

**In Faradis da dendaren izena. Zuk norekin joango zinateke paradisura?**
Maite dudan edozein pertsonarekin.

**bergararrak kanpoan**

**Iker Larrañaga** > Web kudeatzailea
Londresen bizi da

# "Londresen bakoitzak nahi duen modukoa izateko aukera du"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Dublinen urtebete eman eta atzerriko abenturetan esperientzia hartuta, Londresera jo zuen ekainean lan bila Iker Larrañagak, hemengo lan merkatua kaxkar zegoelako.**

Londresko kanpoaldean bizi da Iker eta Hyde Park alboan egiten du lan. "Hemengo bizimodua azkarragoa den arren, nirea lasaia da. Alde judutarrean bizi naiz. Parke zoragarriz eta mota guztietako jantokiz beteta dago".

**KOADRILARIK EZ**

Askatasuna da Iker gehien harritu duena: "Bakoitzak nahi duen modukoa izateko aukera du, inork epaitu gabe. Muga bakarra besteenganako errespetua da".

Koadrila kontzepturik eza, berriz, ez du atsegin: "Lagun arteak ez dira hangoak bezala. Nork bere guneak dauzka, ikasle etxeko lagunak, lanekoak, gimnasiokoak... Baina ez dago koadrila tradiziorik. Familiarekiko gertutasuna ere nahiko galdua dago".

**"Hemengo bizitza azkarragoa bada ere, ni alde judutarrean bizi naiz eta bizimodu lasaia daramat"**



Iker Larrañaga, erdian, lagunekin.

Londresi aurkitu dio alde positiborik ere: "Eskaintza kulturala, askatasuna, norbera izateko eta batez ere mundu osoko lagunekin lan egin eta lagunarteak sortzeko aukera. Perspektiba hartzeko modu onena da Afganistango lagun baten etxera joatea, hain ezberdinak ez direla ulertzeko".

Londresen familiaren eta lagunen falta sumatu du: "Interneti esker distantziak txikiagoak dira, baina beti eurak falta zaizkit. Distantziak erakusten du zer den garrantzitsua".

Ez daki noiz arte geratuko den Londresen, baina "ez dut nire burua hemen denbora luzerako ikusten. Esperientzia hartu nahi dut hemen. Ingelesaren traba gainditua, lan interesgarriak aurkitzea errazagoa da. Gazteengan konfiantza handiagoa dago".

Londresera joanez gero honakoa gomendatu digu: "Bertakoekin eta kanpotarrekin nahastea eta hango kulturan barneratzea".

**bere ustez**



Andres Osa 'Sakona'

# Aitzakien ordez konpromisoak

Zapaterok bide onetik goazela dio, baina egiten den guztia konstituzioaren eta legearen barruan egingo dela. Jakina, bake prozesua nahi du. Hau da, ETA desegin, belauniko ipini, kale istilurik ez eta ezker abertzalea ahuldu, makaldu, antzutu. Benetako arazoari jaramonik ez.

Imaz ere baikor azaltzen da. Kale ekintzetaz dio "dauden bitartean ez dago ez elkarrizketarik, ez mahairik osatzerik, ez ezer". Aitzakia soilik. Erru guztia, ezker abertzaleak du! Baina, indarkeria ez al zen bat arazoaren sintoma?

**"Legebiltzarreko lehen plenoan Lehendakaria inoiz baino motelago ikusi genuen"**

EAkoek ongi erantzun diete. Garbi dago: PSOEk hauteskundeak ditu helburu. Bitartean dibertsioa, entretenimendua, denbora pasa, aitzakia eta gezurra besterik ez.

Batasunak dio askatasun prozesua blokeaturik dagoela. Bistakoa da.

Eta zer esan legebiltzarreko lehen plenoan ikusi eta entzun genuenari buruz? Lehendakaria inoiz baino motelago ikusi genuen. Egoera honetan berak aspaldidik izan duen mezua: "Hitza herriari eman, erabaki eskubidea errespetatu eta eskubidea denez ez da negoziazio mahaian ipini behar", defendatzeko indarrik izango duen zalantzak ditugu.



POL-POL
Taberna
943 76 07 78. Bergara



Irrintzi
kafetegia
Irala 3. BERGARA
Tel.: 943 76 48 26



JAUJA
KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

Karlos Harategia

Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
ARETXABALETA

Jon Díaz Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
ARETXABALETA

KARLOSEK ETA JONEK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUETE.

URKULU
FERRETERIA • BRICOLAGE
INDUSTRIA HORNIDURAK

SAN MIGELETAN,
Atxabaltar guztiei
eta kampotik bisitan datozenei

ZORIONAK!





hurbila eta profesionala

Torrebaso Pasealekua, 16 • 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Tel. 943 71 30 30 • Fax 943 71 25 55 • urkulu@cadena88.com
www.urkulu.com

**EUSKARA** > LORAMENDI EE-REN UDAZKENEKO ESKAINTZA

# Pala txapelketa eta dantza ikastaroa udazkenean

Beinke elkartea sortu zutela 20 urte beteko dira aurten, eta pala txapelketa eta Beinke-Loramendi dantza ikastaroa antolatu dituzte girotzeko



**BEINKE-LORAMENDI DANTZA** Urriaren 19an hasiko dute ikastaroa abenduaren 15eko urteurrena gertatzeko. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Gertu dauka Loramendi Euskara Elkarteak udazkeneko kultura eskaintza. Abenduan, gainera, urteurren polita dauka ospatzeko: 20 urte Beinke elkartea sortu zutela.

**ANTZERKIAK ETA BERBALDIAK**
Urrian hasi eta abendua bukatu bitartean ia astero izango ditugu ekintzak Durana kaleko 11. atartean. Eta hasteko antzerki bi eskainiko dituzte: urriaren 6an, *Amama Pantxikaren altxor ezkutua* izango da, Algara ludotekak antolatuta, Arlutz osteko kantxan; eta urriaren 27an, *Ugaztun eme baten irrikak* bakarrizketa eskainiko du Teresa Lopez de Munain aktoreak.

Azaroaren 9an, Maite Gartzia aditua etorriko da, Tril emakume taldeak gonbidatuta, eta autoestimuaren gaineko zenbait sekretu kontatuko dizkie. Hilaren 16an, Iñaki Arnaiz aretxabaletarrak Brasilgo egoeraren gainean egingo du berba; eta hilaren 23an, Pirinio eta Alpe mendietan bizikletaz egindako bidaia aurkeztuko du Aitor Arotzenak.

Abendua hasteko, hilaren 1erako Piztiak taldearen kontzertua antolatu dute, eta hilaren 15ean, Loramendiren *arbaso* Beinke elkartea sortu zela 20 urte ospatuko dituzte. Jaialdi berezia egin gura dute egun horretan. Abendua agurtzeko, hilaren 21ean, *Marilurrek 7522630 ipuin dakizki* ipuin kontaketa eskainiko die Ane Meabek Algara ludotekako umeei.

**IKASTAROAK**
Ikastaroak ere etorriko dira udazkena girotzera. Urriko bigarren astean hasita, eskulanak egingo dituzte martitzenetan Rosa del Aguilaren gidaritzapean, eta bainika lanak eguaztenetan Blanca Perearen eskutik. Tril emakume taldeak antolatzen ditu biak eta urriaren 9ra bitartean eman dezakete izena interesatuek. Ohiko ikastaroak ez ezik beste batzuk ere egongo dira aurten: grafologia ikastaroa Irune Ibarraren eskutik azaroan, sukaldaritza ikastaroa abenduan eta Beinke-Loramendi dantza ikastaroa, urrian hasi eta abendura bitartean. "Abenduko hitzordua girotzen hasteko ekitaldi bi antolatu ditugu: dantza ikastaroa eta pala txapelketa", azaldu digu Leire Lardizabal antolatzaileak.

**PALA TXAPELKETA**
Ikastaroez gain, txapelketa antolatu dute aurten: *Joteko Prest!* I. pala txapelketa. Herritarren artean abenduko urteurrena girotzea du helburu. Hala, neska-mutil guztiei egin gura diete dei Loramendiko kideek txapelketan parte har dezaten. Iturrigorri pilotalekuan jokatuko dituzte partiduak, urriaren 17an hasita, eta finala abenduaren 15ean izango da. Urriaren 11 baino lehen eman behar dute izena bikoteek, 20 euro ordainduta.

KONTUAN HARTZEKO

### Beinke-Loramendi dantzaren nondik norakoak

Jose Ramon Vitoria arrasatearrak konposatutako musikarekin Beinke-Loramendi dantza asmatu zuten Loramendi dantza taldeko kideek 1994an –Beinke desagertu eta Loramendi sortu ostean–, eta bi elkarteen bateratzea du ardatz dantzak. San Migel jaietan egin izan dute beti, baina azken hiru urteotan ez da hala izan. Bada, orain, berreskuratzea erabaki dute, abenduaren 15ean dantzan egiteko. Hala, urriaren 20an hasita ikastaroa egingo dute eguenetan, 19:00etatik 20:00etara, Basabeazpi ikastolan.

IOSU
harategia • taberna
Urdaitegia-gozotegia • Kroasantegia • Gertatutako janariak
Javik eta Juanek San Migel jai zoriontsuak opa dizkizuete!
Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08





JAUSORO OSTATUA
Zorionak aretxabaletar guztioi!
Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61





**GIDA** > AISIALDIA ETA ELKARTEGINTZA

# Elkarteen eta antolatzen dituzten jardueren berri dakartzan gida

Udalak banatu du, eta helburua da herriko elkarteak eta antolatutako ekintzak ezagutzea parte hartzeko

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Egunotan banatu dute etxez etxe Aretxabaletako aisialdi eta elkartegintzaren gida. Udaleko hainbat sailek elkarlanean egindako gida izan da, eta helburua da herrian dauden elkarteak ezagutaraztea eta antolatzen dituzten ekintzen berri izatea ondoren parte hartzeko.




**GIDA** Herriko aisialdi eta elkartegintzaren gaineko gida banatu du Udalak. M.A.

**SEI ARLO JASOTA**

Sei arlotan banatu dute gida: kirola, musika eta dantza, bestelako ikastaroak, jaiak, ekipamenduak eta herriko elkarteak. Udaleko Kirol Zerbitzuen eskaintzarekin batera herriko gainerako eskaintzen berri ematen dute, eta Leizarra musika eskolako jarduerak jaso dituzte. Herriko zein auzoetako jai guztiak dakartza, baita Udalak antolatzen dituen ikastaroen berri eman ere. Udalak herritarren zerbitzura dituen ekipamenduen zerrenda dago, eta herrian ditugun elkarte guztiak jaso dituzte.

**ELKARLANEAN EGINDA**

Kultura, kirola, gazteria, euskara eta prebentzio zerbitzuetako arduradunek jardun dute lanean, eta Gazteria Zerbitzuko teknikari Maider Etxanizek zera azaldu digu: "Aretxabaletan ondo pasatzeko dauzkagun aukera batzuk jasotzen ditu gidak: batetik, denbora librean egiteko dauden aukerak, eta, bestetik, elkartegintza zerrenda eta kontaktua elkartu ditugu". Inork ez badu jaso etxean, eska dezala udaletxean edo Udaleko zerbitzuetan.

> PARROKIA

## Herriko hainbat umek hartuko dute bataioaren sakramentua domekan, 11:30eko eukaristian

Bataioak egingo dituzte domekan, urriaren 1ean, 11:30eko mezan. Hain zuzen ere, astelehen eta martitzenean bilerak egin zituzten gurasoen umeek hartuko dute bataioaren sakramentua.

Bestalde, urriaren 4an hasita liturgiaren gaineko ikastaroa egingo dute, Arrasateko abadetxean, eguaztenetan.



KURTZEBARRI ESKOLA

## Badatoz San Migelak!

Bertan daude San Migel jaiak, eta Kurtzebarri eskolako 3. mailako ikasleak azokan izango ditugu bihar. "Aurreko bi urteotan lan handia egin dugu ortuan eta gogo handia dugu gure barazkiak saltzeko", diote ikasleek. Hala, gomendatu digute barazkiok jaterakoan gogoz egitea eta eurekin oroitzea, eta, zelan ez: "Ondo pasa San Migelak!".





**LUDOTEKA** Ate irekiak egin dituzte astean, ume eta gurasoek elkarrekin ezagutzeko ludoteka. M.A.

**AISIALDIA** > LUDOTEKA ZABALIK

# Ludoteka zabalik astelehenetik aurrera 3 eta 12 urte artekoentzat

Bazkide egiteko bertara hurreratu besterik ez dago, eta urtarrila arteko kuota ordaindu beharko dute

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Astelehenetik eguenera bitartean izan ditu ateak zabalik Algara ludotekak, ume eta gurasoek elkarrekin ezagut zezaten jolas txokoa. Datorren astelehenetik aurrera umeak izango dira jaun eta jabe.

**BAZKIDE EGITEKO AUKERA**

Herriko ikastetxeetako 3 urtetik gorako ume guztiek eraman dituzte ludotekako bazkide izateko txartelak etxera. Astelehenetik aurrera izango dute bazkide egin eta jolas txokora hurreratzeko aukera. Aurten, gainera, urtarrila bitarteko kuota bakarrik ordaindu beharko dute, momentuz, gurasoek, eta ez urte osokoa. Adin bakoitzak bere ordutegia izango du; hortaz, jakin gura duenak ludotekan galdetu besterik ez dauka.

**ANTZERKIA URRIAREN 6AN**

Algara ludotekak hainbat txoko ditu jolasean jardun, eskulanak egin edo ipuinekin gozatzeko, eta guztiak izango dituzte gertu astelehenean. Ikasturteari hasiera emateko, baina, hurrengo egubakoitzean, urriak 6, antzezlana eskainiko diete ludoteka ostean dagoen kantxara hurreratzen direnei: *Amama Pantxikaren altxor ezkutua*. Musika oinarri duen antzezlana da, eta kantu eta dantzen bitartez umeen irudimena piztuko dute hainbat pertsonaiak. Ekitaldia 17:00etan da.

> ERRETIRATUAK

## Erretiratuen Eguneko bazkarirako txartelak hartzeko azken eguna urriaren 3a da

Urriaren 7an ospatuko dute herriko erretiratuek euren eguna. Salda, meza eta bazkaria eskainiko dizkie Udalak, eta bazkarira joateko txartelak Gizarte Zerbitzuetan hartu behar dituzte, 10 euroren truke. Urriaren 3a, martitzena, izango da azken eguna. Hau da ordutegia: 11:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

> ISTILUAK

## Aretxabaletar bat atxilotu zuen ertzaintzak, hiru labankada eman zizkiolako lagun bati

Joan den domeka goizaldean atxilotu zuten ertzainek 23 urte dituen Aretxabaletako mutila, beste lagun bati labanarekin egin ziolako eraso. Mitarte kalean gertatu zen erasoa eta lekukoen arabera eztabaida sutsua sortu zen bien artean. Borrokan hasi zirenean eman zizkion labankadak: bi besoan eta hirugarrena giltzurrunaren alboan. Hilketa saiakera egotzi diote aretxabaletarrari.



M.A.

## Iradokizunak egiteko aukera

Ikusgai daude kirol etxe berria egiteko lehiaketako sei ideia onenak udaletxeko ganbaran. Panel eta maketa bidez ikus daitezke ideiok urriaren 7a bitartean, eta inkesta txiki bat utzi dute betetzeko. Udalak proiektua egiteko hautatu duen *Leihotik* izeneko ideiari hobekuntzak edo aldaketak ere proposa diezaiokete herritarrek.



TXIMAK
ILE APAINDEGIA
TEL.: 943 79 83 64
HERRIKO PLAZA 5 • ARETXABALETA
Tximak ile apaindegiak San Migel zoriontsuak opa dizkizue

Orly aretxabaleta
San Migeletan egiguzu bisita!
Girorik onena geurean!
Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33

**OSOKO BILKURA** > OHIKO OSOKO BILKURA EGIN ZUTEN ATZO, EGUENA

# Errepide Planaren alegazioak izan zituzten berbagai, besteak beste, osoko bilkuran

Elbarriendako etxebizitza bat alokairuan jartzeko asmoa du Udalak

Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko mugarrien aktari onarpena eman zioten



**OHIKO BILKURA** Eskoriatza eta Aretxabaleta arteko mugarrien aktari onarpena eman zioten Osoko Bilkuran. I.B.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Atzo, eguena, iraileko ohiko osoko bilkura egin zuten eta hainbat gai izan zituzten berbagai: Udalak eta Jaurlaritzak egindako akordio baten bitartez, elbarriendako egokitutako etxebizitza bat errentan jartzea; Aretxabaleta eta Eskoriatza arteko mugarrien aktari behin betiko onarpena ematea; Gorosarri inguruko auzobidearen mugatzea definitzea; eta Aldundiaren Errepideen Planari alegazioak aurkeztea, besteak beste.

Udalak Jaurlaritzari emandako lurzoru baten truke Jaurlaritzak Udalari hiru etxebizitza eta diru kopuru zehatz bat ematea adostu zuen. Horren harira, Jaurlaritzak Intxaurtxueta auzoan bultzatutako alokairuzko etxebizitza sozialetako bat –elbarriendako prest zegoena– hutsik gelditu zen. Hortaz, Udalak etxebizitza bat alokagai jarriko du epe laburrean jakin badakielako herrian premian dauden elbarriak daudela.

**ERREPIDEEN GAINEKO ALEGAZIOAK**

Bestalde, Alkatetzatik hainbat alegazio aurkeztu egin dizkiote Aldundiaren Errepideen Planari, epea eguaztenean bukatu zelako. Atzo osoko bilkuran eztabaidatzekoak ziren. Hain zuzen ere, planaren aurrerapenean Eskoriatzan egin beharreko jarduerak aintzat hartzea, eta Bolibartik saihesbidera irteera egitea.

**GAZTEAK** > GAZTELEKUAREN IREKIERA

# Gaur, egubakoitza, ikasturtea hasteko irekiera jai koloretsua egingo dute gaztelekuan

16:30ean zabalduko dute eta, besteak beste, mahai-futbol txapelketa eta merienda antolatu dituzte; eta hennazko tatuajeak egingo dituzte

**I.B.** > ESKORIATZA

Heldu da herriko hainbat gazte zain zeuden unea. Gaur, egubakoitza, emango dio hasiera ikasturteari gaztelekuak.

Ikasturtea ondo hasteko eta irekierak merezi duen oihartzuna izan dezan, jaia antolatu dute Gazteria saileko udal arduradunek. 16:30ean izango da hori. Ordu horretatik aurrera, hainbat ekimen izango dira lau pareta horien artean.

**MAHAI-FUTBOL TXAPELKETA**

Batetik, gaztelekuaren arduradunek mahai-futbol txapelketa antolatu dute. Interesatuek hara jo beharko dute arratsaldeko lehenengo orduan. Horrez gain, gura dutenei hennazko tatuajeak egingo dizkiete, teknika horretan adituak diren hainbat lagun izango dira-eta.

Hori guztia borobiltzeko eta besteak beste txapelketan esku hartuko duten gazteak indarberritzeko, merienda handia prestatuko dute gaztelekuan bertan.

Horra hor, bada, egubakoitz arratsalderako gonbitea eta plana, hain zuzen ere.

> INTERNET

## Hainbat ikastaro eta lehiaketa bat KZgunearen eskutik

Eskoriatzako KZguneak hainbat ikastaro antolatu ditu urrirako. Hain zuzen ere, urriaren 6an, posta elektronikoaren gainean arituko dira 11:00etatik 13:00etara; urriaren 20an, postal elektronikoak aurkitzen eta bidaltzen irakatsiko dute. Hori 11:00etatik 12:00etara izango da. Bukatzeko, urriaren 27an, asteburu bateko egonaldia Internet bidez prestatzeko aholkuak emango dituzte, 11:00etatik 13:00etara.

Bestalde, digitalizatutako argazki zaharren lehiaketa antolatu dute, eta Eskoriatzako erabiltzaileek ere esku hartu ahal izango dute. 1975 aurrekoak izan beharko dira argazkiak, eta KZguneen webgunearen bitartez bidali beharko dira. Argazkiak webgunean argitaratu eta hilero sariak emango dituzte.

> PINTURA

## Urriaren 7an hasiko dute urteroko pintura tailerra

Udaleko Kultura Sailak jakitera eman du pintura tailerrean esku hartzeko izenematea zabalik dagoela, eta ikastaroa urriaren 7an hasiko dela.

Urtero moduan, ikastaroa zapatu arratsaldetan egingo dute, 14:30etik 17:00etara, kultura etxean bertan. Aspaldian Gasteizen bizi den Manu Gomez arrasatearra da irakaslea, eta ikastaroa helduei zuzenduta dago.

Kultura Sailetik azpimarratu dute ikastaro horretan margolari bakoitzak bere erritmoa eramango duela. Hain zuzen ere, maila eta ezagutza desberdineko ikasleek bat egiten dute, eta irakasleak bakoitzari dagokion aholkuak edo zuzenketak egingo dizkio.

Interesatuek 80 euro ordaindu beharko dituzte ikasturte osoagatik –urritik ekainera arte–. Horretarako, kultura etxera jo beharko dute ikastaroa hasi aurretik.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**AISIALDIA ETA EUSKARA** > JOLAS-KUTXAK JARRI DITUZTE

# Umeek euskaraz egiteko jolas-kutxak jarri dituzte herriko lau jolasgunetan

Jolas-kutxa horietan asmakizunak eta jolasak sartu dituzte, umeek euskaraz jolas dezaten.

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Uda aurretikoa zen asmo hori, eta dagoeneko jarri dituzte lau jolas-kutxa hainbat jolasgunetan. 2005ean udalerrian euskararen erabilera aztertu zutenean, Udaleko Euskara Saila konturatu zen umeen artean erabilera jaitsi egin zela. Datu horrekin arduratuta, arazo hori ekiditeko asmotan egitasmo batzuk abian jartzea erabaki zuten. Eta horietako bat da, hain zuzen ere, jolas-kutxen proiektua.

**JOKOAK ETA ASMAKIZUNAK**

Umeen erabileran gehiago erategiko jolasguneetara jotzea erabaki zuten. Momentuz lau jolas-kutxa jarri dituzte: Intxaurtxuetan, biblioteka parean, Olaeta plazan eta kiroldegi aurrean. Horiez gain, beste bi jarri gura dituzte: bata, Dorleta auzoan; eta bestea, erdigunean.

Jolas-kutxa horien helburu nagusia da jolasguneetan umeek euskaraz egin dezaten gailuak jartzea, eta aldi berean gurasoak ere aukeraketa horretan inplikatzea. Horrekin batera, proiektua baliatu dute talde jolasak bultzatzeko eta euskal jolasak berreskuratzeko.

**TXORROMORROKA, POTE-POTEKA**

Kutxa bakoitzean asmakizunak eta jolasak sartu dituzte. Guztira, jolas-kutxa bakoitzean hiru asmakizun eta sei jolas aurkitu ahal izango dira. Udaleko langileek astero asmakizun eta joko bana sartuko dituzte. Horiek bukatu ostean, beste batzuk sartzen joango dira.

Jokoen artean, gure tradizioetan barneratuta dauden hainbat joko aukeratu dituzte, hala nola: *txorromorroka, pote-poteka, gordeketa*... Talde jolasak izan daitezen hobetsita, jakina.



**UMEENDAKO** Umeen ohituretan eragiteko ia ezinbestekoa da jolasguneetara jotzea. I.B.



**ELKARLANA** Maider Zubillagak eta Maite del Reyk egin dituzte lanok. I.B.

**ERAKUSKETA** > 'BEGIRADA POETIKOA'

# Margolanen eta poesiaren erakusketa, Ibarraundin

Bi artistak egindako margolan eta poesiek lotura handia dute elkarren artean

**I.B.** > ESKORIATZA

Gaurtik, egubakoitza, urriaren 15era arte *Begirada poetikoa* izeneko erakusketa egongo da ikusgai Ibarraundi museoan. Astelehenetik egubakoitzera eta domeketan goiz eta arratsaldez egongo da zabalik; zapatuetan, berriz, arratsaldez bakarrik zabalduko dute.

Erakusketa horren egileak Arrasateko Maite del Rey eta Maider Zubillaga dira. Lehenak Filologia ikasketak egin ditu eta bigarrenak, Arte Ederrak. Del Reyk poesiak idazten ditu eta Zubillagak, berriz, margolanak. Bi lagunak orain dela urtebete inguru konturatu ziren egiten dituzten lanek lotura handia daukatela. Hortaz, Arrasateko Harresi aretoan erakusketa antolatu zuten elkarlanean, eta oso harrera ona izan zuen.

**HIZKUNTZA DESBERDINAK**

Maite del Reyk hala azaldu dizkigu bi artistek dituzten antzekotasunak: "Hizkuntza desberdinak erabiltzen ditugu, baina azken finean sentitzen eta pentsatzen duguna antzekoa da. Maiderrek irudien bidez pentsatzen du eta neuk, hitzen bidez. Hori da desberdintasun ia bakarra".

**MARGOLANAK, POESIAK...**

Ibarraundiko erakusketan hamar bat margolan jarri dituzte erakusgai, horietako gehienak abstraktuak. Horiekin batera, margolanekin lotura handia duten poesia sakon eta iradokitzaileak. Eta lan horiez gutxiez gain, hainbat instalazio. Instalazioak egiteko, orain arte jantziak, arrain-ontziak, bideo proiekzioak eta beste erabili dituzte. Oraindik ez digute zehaztu Eskoriatzako erakusketan zeintzuk jarriko dituzten.

BIARK STUDIO SL
Arkitektura proiektuak
Usaetxe plaza 1 behea Esk (Kopyprest parean)
ARRASATE
Tel.: 943 798033 Mug.: Asier (652755446) Aritz (679736329)
E-posta.: biark@arquired.es







Berriztapenak



Obra berriak



Hirigintza



Erreformak

Marisol Abreu Fariñas > Psikologoa

# "Ezberdina edo kanpokoa dena baliatzen dute beste gelakideak aberasteko"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

**Venezuelakoa da Marisol Abreu eta bertan egin zituen Psikologia ikasketak. Antzuolan bizi da orain, eta Euskal Herriko Unibertsitatean gradu-ondoko ikasketak egin ostean, Antzuolako eskolan etorkinak nola hartzen dituzten aztertu du.**

**Zer dela eta aukeratu duzu Antzuolako eskola azterketa egiteko?**

Antzuolan bizi naiz eta nire semea Venezuelatik etorrita Antzuolako eskolan hasi zen. Ikusi nuen hura sartu zenean eskolak egindako harrera prozesua eta funtzionamendua aztertzea interesgarria iruditu zitzaidan.

**Zeren gaineko azterketa da?**

Migrazioen gaineko ikasketak egin nituen eta proiektua egiteko gai bat hartu behar nuenez, atzerriko ikasleen harrera planaren gainean egitea erabaki nuen. Jakin nahi nuen nola lan egiten zuten beste herrialde batzuetatik zetozen neska-mutilekin.

**Nola egin duzu azterketa?**

Elkarrizketak egin ditut. Eskolako zuzendaria, lau irakasle eta euren umeak atzerritik eskolara ekarri dituzten hiru guraso elkarrizketatu ditut. Euren esanetan oinarrituta egin dut analisia eta ondorioak atera.

**Zer ondorioztatu duzu?**

Ikasleen harrera plana pauso zehatz batzuetatik harago doa; filosofia pedagogikoa dago. Eskolaren helburu nagusia ikaslearen ongizatea da. Umearen familia, harremanak, bizilekua, aldaketa nola bizi duen... hartzen dituzte kontuan. Ez dute liburutik erabiltzen, ez dago uniformerik. Itxura batean, badirudi ez dagoela egitura zehatzik, baina egon badago. Eraikuntzan oinarritzen da hezkuntza. Berez duen ezagutza besteekiko harremanekin osatzen da. Esperientziaren bidez iristen dira kontzeptuak ezagutzera. Beraz, ume bat kanpotik datorrenean kontuan hartzen da nondik datorren bere kultura, zein informazio dakarren... Ez dago diskriminaziorik; alderantziz esango nuke agian ezberdina dena gehiago hartzen dutela kontuan.

Lan metodologia oso baliotsua da eta beste zentro batzuetara eraman behar lukete. Ezberdina dena baliatu egiten da gainontzeko gelakideak aberasteko. Ezberdintasunean dago aberastasuna; beraz, kultura arteko hezkuntza da hemengoa.



Kultura arteko bitartekotzaren gaineko ikasketak egin nahi ditu Marisolek. I.A.

**"Antzuolako eskolako metodologia beste zentro batzuetara zabaldu behar litzateke"**

bere ustez



Mikel Larrea

## Antzuola zabala da bere osotasunean

Antzuola 27 $km^2$-ko azalera duen herria da, eta hauetatik $km^2$ bat izango da hiri gunea. Beraz, 26 $km^2$ dauzkagu ingurune berde gisara: basoak, zelaiak, errekatxoak eta parkeak.

Gazte ginenean gurasoek ez gintuzten etxeko atarian, auzoko jolas parkean edo eskoletako jolaslekuan bilatzen, zeren Irainen amuarrainak harrapatzen, Bizkalatzan sagarrak lapurtzen edo Irimoko puntan egon gintezkeen.

Lurraldea ezagutzen genuen eta etxean geunden. Ez genuen behar inolako aitzakiarik ezta antolatutako txangorik mendira edozein egun eta ordutan joateko.

**"Ez genuen behar aitzakiarik ezta antolatutako txangorik mendira joateko"**

Adinaren ondorioa izango da, baina espezie sedentario bihurtu gara. Etxe ondoan edo lantegitik gertu nahi dugu aparkalekua, autobus geltokia aldatu digutelako protesta egiten dugu, zabor edukiontzia distantzia aproposera nahi dugu, baita etxe azpian gure umeek gozatzeko parke berdea ere. Dena eroso, dena gertu.

Erosotasun hauek guztiak Antzuola zabala dela ahaztu arazten digute, eta gure etxeko egongelan parke berdeak sartu baino lehen, inguruan ditugun Trekutz, Asaldegieta, Gorla eta hainbat leku zoragarri sustatu eta mantendu egin beharko genituzke.



GOIZPER

**SARIA** Euskara planak saritzat emandako haritza landatu zuten *Izperra*-koek.

**EUSKARA** > GOIZPER LANTEGIKO ALDIZKARIA

# 'Izperra' berripaperaren 50. zenbakia kalean da

Irailean kaleratu duten zenbakian orain arteko aldizkari guztien azalak jaso dituzte

I.A. > ANTZUOLA

Goizper lantegiko euskara planaren barruan hilero berri paper bat kaleratzen dute, eta 50. zenbakira iritsi dira. Aldizkarian Goizperreko eta Olakerreko berriak, kanpokoak, lankideei egindako elkarrizketak, txisteak, errezetak... jasotzen dituzte, euskaraz.

Irailekoa 50. zenbakia izanik berezia da. Orain arteko argitalpenen azalak atera dituzte.

Urtero euskara planaren barruan sari bat ematen dute eta aurten *Izperra*-ko lantaldeari eman diote. Haritz landare bat da saria eta Goizperreko lurretan landatu dute.

> LEHIAKETA

## Patata tortilla lehiaketarako izena emateko azken eguna urriaren 4a izango da

Datorren urriaren 7an, zapatua, patata tortilla lehiaketa izango da gaztetxoendako. Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailetakoendako eta DBHko lehen eta bigarren mailetakoendako dago antolatuta. Parte hartu nahi izanez gero urriaren 4a baino lehen eman behar da izena udaletxean. Parte-hartzaileek osagaiak eraman behar dituzte eta Udalak ipiniko ditu azpiegiturak.

> SAGASTIKO PARKEA

## Besteak beste, Sagastiko zelaiarekin zer gertatuko den erabakitzeko herri galdeketa eskatu dute

Sagastin parkea egitearen aldeko plataformak mozioa aurkeztu du Udalean. Eskatu dute Sagastiko zelaiarekin eta gizarte eta kultura ekipamenduekin zer egin erabakitzeko herri galdeketa egitea eta emaitzak errespetatzeko konpromisoa hartzea. Baita ere galdeketaren emaitzak jakin artean obrak ez hastea. Mozioa hurrengo osoko bilkuran aztertzea eskatu dute eta bilkura arratsaldez egitea "herrian gaiaren gainean dagoen kezka kontuan hartuta".

> ERRETIRATUAK

## Hitzaldia, antzerkia eta irteera antolatu ditu erretiratuen elkarteak kultura asterako

Erretiratuen elkarteak kultura astea antolatu du. Datorren astean barrena hainbat ekitaldi izango dira, erretiratuendako. Urriaren 3an, hitzaldia egongo da Olaran etxean, 18:00etan. Pertsonen arteko harremanak hobetzeko argibideak emango ditu Eibarko Adindu elkarteko kide batek. Urriaren 5erako antzerkia iragarri dute. ONCEko talde batek *Terapia de grupo* antzezlana egingo du Olaranen, 18:00etan. Egubakoitzean, berriz, Iratxe eta Garesera irteera egingo dute erretiratuek. Besteak beste, Señorio de Sarria upategia bisitatuko dute, eta Iratxe hotelean bazkaldu.

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

KIROLA > KONPONKETA TXIKIAK EGINGO DITUZTE PILOTALEKUAN

# Udala kezkatuta, frontoiko hormako margoa altxa delako

Bolatoki tabernan eta kirol instalazioetan konponketa txikiak egiteko beharra dago

Pilotalekuko hormetan azterketa teknikoa egiten dihardute arazoa zein den jakiteko




**PINTURA** Berriz margotu behar dela erabakiz gero eraikuntza enpresa arduratuko da lan horietaz. I.A.

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA
Pilotalekua berritu eta kiroldegian ere hainbat berrikuntza lan egin bazituzten ere, konponketak ez daude guztiz amaituta.

Joan den ekainaren 12an Udaleko ordezkariek lanak ikuskatu eta obrako zuzendariarekin eta eraikuntza enpresako buruekin bilera izan zuten. Batzarrean adostu zuten hainbat konponketa txiki egiteko daudela oraindik. Datozen egunotan, Susana Azkoitia eraikuntza enpresako koordinatzailea kirol teknikariarekin jarriko da harremanetan dena ikuskatzeko.

**KONPONKETA TXIKIAK**
Besteak beste, kirol instalazioetan egin beharreko konponketak honakoak dira: tabernan bi zulo estali, biltegi txikian bat eta bigarren solairuan bestea; termostatoei estalkiak ipini edo bestela termostatoak aldatu; sauna aldeko diferentzialak konpondu; galdara gela eta tabernako koadro elektrikoa seinaleztatu; aerotermoen ikuskapen elektrikoa egin; eta sukaldeko horma-konketa konpondu.

Frontoia berritu zutenean hormak margotu zituzten, baina pintura altxatu egin da, eta horrek kezka sortu du Udalean.

Hori dela eta, hormaren azterketa teknikoa egingo dute eta berriz margotu behar bada eraikuntza enpresak hartuko du bere gain lan hori.

**SQUASH KANTXA GERTU**
Squash kantxan zoru berria ipini dute, eta baita hormak margotu ere. Horren harira, Bolatoki tabernara joan behar da kantxan jokatu nahi bada, eta oraingoz lekua badagoela esan digute.

Bestalde, Udaleko Kirol Zerbitzutik gogorarazi nahi dute kirol ikastaroetan izena emateko epea gaur amaitzen den arren taldeak osatu artean nahi duenak aukera izango duela, eta oraingoz badagoela tokia.

> KULTURA

## Zinema, erakusketa, antzerkia eta musika urrian Espaloian

Gaur, barikua, Aukeran dantza taldearen *Bideak* ikuskizuna egongo da 22:30ean Espaloian. Irailean hainbat emanaldi egon ostean, urriko egitaraua ere gertu daukate kafe antzokikoek. Udako bideari jarraituz, zineklubeko saioak eguaztenetan izango dira udazkenean ere. Urriaren 4an, 21:30ean hasita, Benito Zambrano zuzendariaren *Habana Blues* filma emango dute. Eguaztenetako zinema emanaldiez gain, Kontxi Idigorasen pintura erakusketa, Danbaka musika lehiaketa, *Erreka Mari* antzerkia, ardo dastatzea eta Wagon Cookin taldearen jazz kontzertua daude iragarrita Espaloiko urriko egitarauan.

> JAIAK

## Zezenketa komikoaren DVDa salgai ipini dute

Azoka Nagusiko jaietan egin zuten zezenketa komikoa filmatu eta muntaketa egin ostean, DVDa denek batera ikusi zuten ikuskizunean parte hartu zutenek. Ostatu tabernan noizean behin botatzen dute eta nahi duenak bertan dauka eskuragarri. Elorrioko IKB enpresak egindako lana 12 euroren truke eros daiteke. Nahi duenak izena eman beharko du Ostatuan bertan eta ondoren, zezenketaren antolatzaileek kopiak aterako dituzte. Zezenketa bera ez ezik, prestaketa, kaleko irudiak... daude DVDan.

GIZARTE ZERBITZUAK > ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

# Sei familiak eskatu dute etxean laguntzailea izatea

Hiru langilek dihardute Elgetan etxez etxeko laguntza zerbitzuan; familia bakoitzak diru sarreren arabera ordaintzen du

**I.A.** > ELGETA
Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudia onartu du. Orain arte Udalak bere ordenantza izan du zerbitzuaren gainean. Udala arduratu da adineko autonomoez eta Foru Aldundia ezinduei zerbitzua eskaintzeaz. Hemendik aurrera araudi bateratua izango da Gipuzkoarako.

Zerbitzua da nor bere kasa baliatzeko edo familiari eusteko arazoak dituztenendako. Zerbitzuaren gaineko informazioa nahi dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo behar dute.

**BALDINTZAK**
Elgetan sei familiak jasotzen dute etxez etxeko laguntza. Teknikariek egoera bakoitza aztertzen dute, eta, besteak beste, kontuan hartzen dute zenbaterainoko ezintasuna duten eskatzaileek, diru sarrerak eta erroldatuta dagoen. Familia bakoitzak diru sarreren arabera ordaintzen du zerbitzua. Bestalde, laguntza zertarako eskatzen denaren arabera ikusiko da ea lan horiek egiteko ezintasunik duen eskatzaileak eta ea laguntza behar duen.

Zerbitzua emateko enpresa bateko hiru langilek dihardute Elgetako etxeetan.




MIREN ARGI ZEZIAGA

## Plazaolako trenbidean bizikletan

Eguraldi eskasa egin zuen arren, 30 lagun inguru joan ziren Egoki taldeak antolatutako mendi bizikleta irteerara joan zen asteburuan. Plazaolako trenbide zaharraren inguruan bi ibilbide egin zituzten: trenbidetik bertatik 20 kilometroko bidea batzuek eta trenbidearen inguruko mendietan 45 kilometrokoa gainontzekoek. Bada, Egoki taldeak hurrengo irteerak eta kirol ekintzak antolatzeko urriaren 9rako egin du hitzordua. 19:00etan izango da batzarra, Intxorta elkartean.

**KIROLA** > KURTZETA-GAIN ELKARTEAREN AZKEN TIRADA ETA BATZAR NAGUSIA

# Biharko tiradarekin denboraldia itxiko dute plater tiroketakoek

Tiradaren ostean urteko batzar nagusia eta afaria egingo dute; iazko akta, balantze ekonomikoa eta bazkide berriak izango dituzte aztergai

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Biharko, zapatua, 17:00etan egin dute hitzordua Kurtzeta-Gain elkartekoek, San Migel Tirada egiteko. Denboraldiko bosgarren eta azken tirada da. 25 platereta-ra egingo dute.

Tirada berezia da; izan ere, biharko saioan izendatuko dituzte Kurtzeta-Gain elkarteak antolatzen dituen bost tirada horietan ondoen jaurti duten biak (talde urdinetik bat eta talde gorritik beste bat). Lehia handia dago, talde urdinean Oskar Arrizabalaga eta Felipe Ullibarriaranaren artean plater bakarreko aldea dagoeta; talde gorrian, berriz, Enrike Ullibarriarana, Juan Luis Nafarrate eta Iñaki Ullibarriarana ibiliko dira nor baino nor gehiago. Hala, bihar gailentzen diren biek, irabazteko poztasunaz gainera, bi lagunendako sari bana irabaziko dute. Hala kontatu digu Kurtzeta-Gain elkarteko idazkari Enrike Ullibarriaranak.

**BATZAR NAGUSIA**

Arratsaldea Kurtzetan egin ostean, Uribarriko elkartean dute hurrengo hitzordua; urteko batzar nagusia eta afaria egiteko. Hain zuzen ere, batzar nagusian iazko akta onartzea proposatuko dute, balantze ekonomikoa egingo dute eta bazkide berrien eskaerak aztertuko dituzte. Horrez gainera, bi urteren ostean idazkaria eta presidentea aldatzea dagokio plater tiroketa elkarteari. Horrenbestez, Enrike eta Angel Ullibarriaranaren postuetarako pertsona berriak izendatuko dituzte.

**POZIK DENBORALDIAREKIN**

Kontuak kontu, biharko ekitaldiekin agur esango diote denboraldiari, udaberrira arte (dena den, tiroko zelaia zabalik izango da datorren astean). Enrike Ullibarriarana oso pozik dago aurtengo jardunarekin: "Kanpoan maila altua erakutsi dugu aramaioarrok: Landan, Gatzagan, Amurrion eta Andorran, adibidez. Eta guk antolatzen dugun lehiaketetan, berriz, gutariko inork ez du tirada bat baino gehiago irabazi eta horrek erakusten du talde barruan maila altua dagoela".

Taldekoak pozik daude, baita ere, taldean dauden junior mailako tiratzaileen jardunarekin: "Markel Arriolabengoa, Jon Nafarrate eta Eneko Garaita oso ondo ibili dira".






**JENDE UGARI** 70 lagunek parte hartu zuten txangoan. ALAIAK ELKARTEA

**ERRETIRATUEN ASTE KULTURALA** > TXANGOA

## Arrakasta izan du Alaiak elkartearen irteerak

Txangoak izan duen harrera ona ikusita, datozen hilabeteotan beste bat antolatzeko asmoa dute

**U.M.** > ARAMAIO

Pozik ibili ziren Aramaioko erretiratuak Bizkaia eta Kantabria aldean. Hala adierazi digu elkarteko kide Maria Angeles Garatek. 70 lagunek parte hartu zuten ekitaldian.

Emaitza positibo horren aurrean, datorren hilean edo bi hilabete barru beste txango bat antolatzea pentsatzen dabiltza Alaiak Erretiratuen eta Pentsiodunen elkarteak, seguru asko, azokaren bat ikustera.

**ZERBITZUAK** > ARRATOIAK ERREKAN

## Agirrek 30 urteko zigorra osorik bete beharko du

Espainiako Auzitegi Nazionalak erabaki du 2011ko maiatzaren 3ra arte ez dutela askatuko

**U.M.** > ARAMAIO

Urriaren 28an ziren Jon Agirre askatzekoak, baina 2011ko maiatzaren 3ra arte atzeratu dute preso aramaioarraren askatasunerako data.

Hala jakinarazi digu Askatasunak. Presoen aldeko elkarte horren esanetan, irailaren 21eko data duen probidentzia baten bidez erabaki dute Jon Agirrek 30 urteko kartzela zigorra osorik bete beharko duela.

Hori horrela, salatu dute Jon Agirreren egoera "bahiketa politiko bat gehiago" dela. Gogorarazi dute presoak gaixotasun sendaezinak dituela, eta, hala ere, ez diotela 92. artikulua aplikatu nahi, "baldintzapeko askatasunerako duen eskubidea ukatuz".

> ZUIAKO KOADRILA

### Argibideak ematen eta harrera egiten erakusteko ikastaroa

Jendeari harrera egiteko prozesuan trebetasuna lortzen laguntzeko antolatu du Zuiako Koadrilak *argibideak emateko eta harrera egiteko tekniken* gaineko ikastaroa. Ondategin izango dira eskolak, gizarte zentroan; urriaren 16an hasi eta urriaren 26ra arte. Izena emateko Zuiako Koadrilara jo behar da urriaren 6a baino lehen.

> ARRATOIAK ERREKAN

### Ahateei jaten ematea debekatuta, arratoiak desagertze aldera

Kexuak jaso dituzte Udalean, errekan arratoiak azaldu direlako. Alkateak jakinarazi digu Jaurlaritzan horren gaineko kontsulta egin dutela eta erantzun dietela zepoak ipintzeko. Baina neurri hori hartu baino lehen, bestelako bideak landu gura ditu Udalak. Esaterako, errekan dabiltzan ahateei jaten ematea debekatzea erabaki du.

**AISIALDIA** > PATINEKIN JARDUTEKO 'U' ITXURAKO PLATAFORMA

# Bengoerrekako parkean jarriko dute patinen gunea

San Migel plazan jarritako *U*-a orain dela urte bi kendu zuen Udalak, kexak jaso zituelako; orain, berriro jartzeko eskatu dute herriko gazteek

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Herri batzarra egin zuten joan zen astean gatzagarrek. Udalak deitutako batzarra izan zen, eta patinete eta patinekin jarduteko *U*-a izan zuten berbagai. Heldu zein gazte, 24 lagun inguru hurreratu ziren batzarrera.

**BI IDATZIAK AURREZ AURRE**

Aurreko agintaldiko kideek jarri zuten *U*-a San Migel plazan. Jarri eta berehala, baina, kexak jasotzen hasi ziren Udalean: zarata handia ateratzen zutela, era arriskutsuan ibiltzen zirela... Ezustekoren bat ere izan zuen herritar batek, eta kentzeko eskaera egin. Hala, 2004ko irailean jaietarako kendu, eta Udalak ez zuen berriro jarri.

Orain aste bi inguru, berriz, idatzia jaso zuten udaletxean *U*-a jartzeko eskatzen. Herriko gazteek idatzitako eskaera zen hainbat sinadurarekin, eta horren aurrean herri batzarra egitea erabaki zuten Udaleko ordezkariek. Bi idatziak erakutsi zizkieten elkartutakoei, eta erabakiren bat hartu beharra zegoela adierazi. Nonbait jartzekotan San Migel plazan ez zedila izan eskatu zuten batzuek, eta Bengoerrekako parkea aipatu zuten. "Ez dakit toki aproposena den, eguzkia gutxi ikusten duen toki ilun eta hezea da, eta herritik urruntxo geratzen da", azaldu zigun Jon Sasiainek.

Hori dela eta, orain daukaten egurrezko *U*-a saltzea erabaki zuten, hondatu egingo litzatekeelako hezetasunarekin, eta porlanez egindakoa jarriko dute Bengoerrekako parkean. Bestea saldu bezain laster hasiko dituzte lanak parkean.

## Giro ederra izan dute 'sorginek' 20 urteren ondoren

Asteburu bikaina egin zuten emakumeek Frantziako Salies de Bearn herrian eta Gipuzkoako kostaldean. Asko ikusi eta ikasi dute, baina hori baino gehiago izan da asteburua. 20 urte dira bidaiak egiten hasi zela Sorginak taldea, eta oraindik giro ederrean ibiltzeko gai direla frogatu dute: "Asko poztu gara gazteak etorri direlako aurten, eta herriko gainerako emakumeei anima daitezela eskatuko genieke", dio Rosa Urreta kideak.



MARIATZEN



**KIROLA**

## Apurtutako saskia jarriko dute, konponduta

Uztailean jarri zuen Udalak eta abuztu bukaeran apurtuta azaldu zen

**M.A.** > GATZAGA

Uztail hasieran jarri zuen Udalak saskibaloian jokatzeko saskia pilotalekuan. Herriko gazteek denbora pasatzeko beste aukera bat izatea gura zuten, baina hilabete bi eskas iraun du aipatutako saskiak. Abuztu bukaeran baldarren batek apurtu egin zuen. Jon Sasiain zinegotziak kendu egin zuen konpontzeko, eta astean bertan jarriko du lehengo lekuan. Oraingoan, baina, beste era batera jartzeko asmoa dauka, luzeago iraun dezan.

GARCIA ENBALATZEAK

• Enbalatze tolestagarriak
• Paletak
• Egur kutxa eta kaiolak
• Mota guztietako taulak
• Aglomeratuak, tablexa, DM, etab.
• Enkofratzeko taula



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 – Gojain industrialdea
Tel.: 945 46 62 09 Faxa: 945 46 56 33
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com

**TXIRRINDULARITZA** > MARKEL IRIZAR ETA JON ODRIOZOLA

# Odriozola: "Euskaldunok ditugun balioak errepidean erakutsi behar ditu taldeak"

Oñatiarrak biak, eta Euskaltelendako lanean. Markel Irizarrek atsedenaldia hartuko du orain, eta Jon Odriozolarendako orain hasiko da erronka berria. Agindu egingo du batek, eta agindu ak bete besteak




**LAGUN-MINAK** Markel Irizar ondoen ezagutzen duena ibiliko da Euskaltel-Euskadi gidatzen. Oñatikoak Oñatikoa estutuko du gehien, seguru. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > OÑATI

Markel Irizar Euskaltelera jauzi egitekotan zenean Jon Odriozola zuen errepideko lagun: "Baina ez zen nire momentu onena izan", diosku Odriozolak: "Markel sekulako ilusioarekin zebilen, eta, egia esateko, profesional moduan egin nituen azken urteak nahiko tristeak izan ziren. Markelek ilusio handia eta entrenamendu mordoa, eta ni alderantziz". Hala ere, nork esango zuen hiru urte geroago talde berean egongo zirenik: "Inork ere ez zuen horrelakorik uste izango, eta niretako oso berezia da, Markelengan konfiantza handia dudalako. Badakit Markelendako polita izango dela ni zuzendari izatea, baina baita gogorra ere. Ondo ezagutzen dut Markel, eta daukana aterako diot, seguru".

**ZUZENDARI ZORROTZA**

Markelek ere ondo daki Jon zuzendari zorrotza izango dela: "Badakit txirrindulari zenean Jonek ez ziola bere buruari horrenbeste exijitzen, baina zuzendari moduan oso zorrotza da. Neuretako albiste oso pozgarria izan da Jon Euskaltelera datorrela jakitea, baina badakit sufritu ere egingo dudala. Entzun gura ez dituzunak lagun batek esaten dizkizunean gogorra egiten da. Orbean ere zorrotza izan da, baina hor daude emaitzak".

Hamar urte profesionaletan egin dituen txirrindulariak badu zer irakatsi; horren gainean ere galdetu diogu Markeli: "Bizikletan elkarrekin ibiltzen ginenean gauza asko ikasi nituen, baina ezberdina zen, entrenatzen genbiltzalako. Jonek gomendioak emanda ere, zuzendaria beste bat zen. Orain, lasterketan atzean izango dut Jon, eta gauza gehiago ikasi ahal izango ditut".

**TALDE IZAERA LANDU**

Haimar Zubeldiaren eta Iban Mayoren izenak ibili dira egunotan dantzan, eta taldearendako txirrindulari garrantzitsuak badira ere, Euskaltelen helburuetako bat da talde izaera gehiago lantzea; bizpahiru txirrindularik horrenbesteko garrantzirik izan barik. Filosofia horrekin bat datoz bai Markel eta baita Jon ere: "Horregatik nago Euskaltelen, Igorrek (Gonzalez de Galdeano) buruan duen ideiarekin bat egiten dudalako: taldeak egon behar du beste guztiaren gainetik. Taldeak identitatea izan behar du, karakterra, eta daukagun ilusioarekin lortu egingo dugula uste dut. Badakit ez dela erraza izango, aldaketa handia izango delako, baina niretako Mayok eta Markelek exijentzia maila bera izango dute. Bistan da lasterketan nork bere helburua izango duela, baina jarrera bera eskatuko diet biei".

Alde horretatik, hori izan da Jon Odriozolak Orbean egin duen lana, eta horregatik ikusten du bere burua gertu: "Erronka polita da, eta lan hori egiteko gauza naiz, Orbean ere gauza bera egin dudalako. Bistan da Orbea ez dela Euskaltel, baina ondo ikasi dut zein den egin beharreko lana".

**ORBEA ETA EUSKALTEL**

Zein da bi talde horien arteko aldea? Izan ere, Orbean 15 txirrindulari izan ditu, eta Euskaltelen 30 izango ditu: "Bai, baina zuzendari gehiago gaude taldea gidatzeko. Euskaltelek komunikabideei begira askoz ere oihartzun handiagoa du, eta hor egongo da alde handiena, nire lana jende askok jarraituko duela. Bestela, posible da lasaiago ibiltzea, Orbean gauza mordoa egin behar izaten nituen-eta".

Zer gertatzen da, baina, txirrindulariek zuzendariak baino gehiago irabazten dutenean? Orduan, agintzea ez da horren erraza izaten: "Egia da futbolean eta bestelako kiroletan gertatzen direla horrelako arazoak, baita txirrindularitzan ere. Nire iritziz, baina, horrek ez du inongo garrantzirik. Nire lana taldea gidatzea da, eta txirrindulariaren lana taldearendako lan egitea. Gero, ziklista bakoitzak bere balioa izango du, errepidean lortu duen ordainsaria, baina hori beste kontu bat da. Hau da, niretako guztiak izango dira berdinak, argi daukat hori".

**KASTA GOGORREKOAK**

Horrelakoak izan behar dute Euskalteleko ziklistek, Euskaltel bera. Izaera horrekin iritsi ziren maila gorenera, eta baliteke azken urteotan hori apur bat aldatzea: "Taldeak daukana eman behar du", esan digu Markelek. "Akaso, azken bi urteotan taldea lasaitu egin da apur bat, baina lehengora itzuli behar dugu. Zaleek ikus dezatela lasterketa bakoitzean dena eman dugula. Gerta daiteke garaipen handirik ez erdiestea, baina kasta hori erakutsi egin behar dugu". Jonek jarraitu du berbetan: "Euskaldunok ditugun balioak errepidean transmititzea izan behar du gure lanak, orduan zaleak gurekin izango dira-eta. Lehen esandako moduan, baina, horretarako talde-lana egin behar dugu".

Zaleak ere ez dira beti ondo portatu. Alde horretatik, Astarlotzak Espainiako Itzulian zehar *Berria*-n idatzi dituen artikuluetako baten gainean izan gara berbetan. AGR2ko ziklista ohiak (Euskaltelek fitxatu du) zale batek Mayori esandakoaren gainean hausnarketa egiten zuen: "Izan ere, Euskaltel Euskal Herriko bosgarren futbol taldea bilakatu dela esan ohi dut", dio Markelek: "Futbolean esaten direnak hasi gara gu ere entzuten. Horrelakoak entzutea gogorra izaten da, eta ez du askorik laguntzen. Akaso, baina, zale hori taldeko bazkide izango da, eta badu protesta egiteko eskubidea".

KONTUAN HARTZEKO

## Ivan Velasco txirrindulari arrasatearra, Euskalteletik gertu

Jon Odriozola ez dago hori baieztatzeko moduan, baina esan digunaren arabera, Arrasatekoak aukera handiak ditu datorren denboraldian Euskaltel taldean egoteko: "Nirekin Orbean izan dudan txirrindularia da Ivan, eta lan txukuna egin duela da esan dezakedana. Aukera handiak ditu Euskaltelera jauzi egiteko, baina hori oraindik ezin da baieztatu".

**ARRASATEKOA ORBEA-OLARRA TALDEAN EGON DA**

Euskaltelendako harrobia den Orbean jardun du Ivan Velascok, eta esku hartu duen itzulietan Arrasatekoak neurria eman du. Euskal Bizikletan ere ibarreko errepideetan ikusi ahal izan genuen, erorikoa izan zuen arte. Gauzak ondo badoaz, Ivan Euskaltelen dabilen bigarren debagoiendarra izango litzateke.



**IVAN VELASCO** Arrasateko txirrindularia. X.U.

**SASKIBALOIA** > MUGARRI ALKESA

# Denboraldiko lehena, "eta gogorra", Urdanetaren kantxan

Mugarri Alkesak bihar hasiko du denboraldia; denboraldi ederra egin eta gero Zurututzaren mutilek berriro hasi behar dute lanean, hutsetik

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Errepikatzeko moduko denboraldia izan da ekainean amaitutakoa, eta Ointxe! klubekoek gustura sinatuko lukete horrelako beste urte bat. Bada, horrek duen zailtasunaz jabetuta, Mugarri Alkesakoek bihar hasiko dute denboraldia, poliki-poliki, partiduz partidu, joan den urtekoa errepikatu aurretik badaudelako lehentasun handiagoko helburuak: lehenbailehen mailari eustea, esaterako.

**LEHENENGO BIAK KANPOAN**

Mugarri Alkesak Urdanetaren kantxan hasiko du bihar denboraldia (17:30, Loiu), eta eguaztenean izango dute bigarren jardunaldia, Lizarran. Ondo hastea ezinbestekoa dela jakinda, lehenengo bi partiduak etxetik kanpo jokatzeak ez du askorik laguntzen. Lehena, gainera, Urdanetaren kontra: "Guretako talde oso deserosoa da, ondo ezagutzen gaituzte-eta. Ez da maila oso oneko taldea, baina txakur zaharrak dira. Gainera, maila oso oneko bi jokalari dituzte (Casado eta Llanoso). Casado izan da azken 3 urteetan gure ligan puntu gehien egin dituen jokalaria", dio Zurututza entrenatzaileak.

Eta Loiutik Lizarrara egingo dute jauzi. Zurututzaren hitzetan, "datorren asteburuan Alartzia ezkontzen da, eta norgehiagoka aurreratzea lortu dugu. Jokalari garrantzitsua da, eta igarriko dugu haren hutsunea". Norgehiagoka eguaztenera aurreratuta, egun gutxiren buruan erabakiko da taldeak liga ondo ala gaizki hasiko duen. Ezin ahaztu, gainera, joan den urtean EBArako igoera fasea jokatuta kontrarioek gogoz hartuko dutela Arrasate.



**ITURRIPEN ZAIN** Zaleek bi jardunaldi itxaron beharko dituzte Mugarri Alkesa Iturripen jokatzen ikusteko. GOIENKARIA

**BESAIDE** > MENDIKO IRTEERAK

# Besaidek ekintzez beteko du urria

Datorren hilerako lau hitzordu antolatu dituzte; tartean, beteranoen martxa eta Val d'Aranera mendi irteera

**X.U.** > ARRASATE

Urrian lau hitzordu nabarmendu gura izan dituzte Besaideko lagunek. Batetik, datorren asteburuan egingo dute, hilaren 8an, Euskal Herriko Mendi Federazioak antolatutako beteranoen martxa. Pipeonen hasiko dute mendi ibilaldia, eta Pico Cerveratik igarota Biastera (Errioxa) iritsiko dira. Bazkaldu, baina ez dute Biasterin egingo, Bastidaraino gerturatuko dira-eta horretara. Urriaren 8ko irteera horretan interesa duenak aste barruan izango ditu Besaideren egoitzan argibide guztiak. Astelehenetik eguenera arte egongo dira izenak hartzen, 19:30etatik 20:30era arte.

Urriaren 12ko zubirako, berriz, Besaidek Val d'Aranera joateko txangoa antolatu du. Lau eguneko irteera izango da eta datorren astelehena eta martitzena izango dira (19:30-20:30) izena emateko egunak.

**BESAIDE MTB-KOAK URBASARA**

Egun bakarreko irteerak egin eta gero, urriaren 22an egingo dute Besaide MTBkoek aste bukaera osorako irteera, Urbasara. Urriaren 16an eta 17an izango dira Besaiden izenak hartzen (19:30-20:30).

Eta, urriko irteerekin amaitzeko, hilaren 29an joango dira Gipuzkoako Mendi Federazioko lagunak Ordiziara, beteranoen martxa egitera. Izenematea urriko azken astean.

> FUTBOLA

### Ibarreko hiru taldeek etxetik kanpo jokatuko dute; puntuak behar dituztenean, gainera

Mutrikuk hartuko du Aloña Mendi, Beriok Mondra eta Idiazabalek Aretxabaleta. Ibarrekoak atzealdean daude, eta bada garaia puntuak erdiesten hasi eta atzean egoteak sortzen duen egonezina gainetik kentzeko. Oñatiarren kontrarioek ere ez dute urtea ondo hasi. UDAk, berriz, kontuz ibili beharko du Idiazabalekin.

> ESKUBALOIA

### Euskadiko senior mailan lehiatuko den Arrasatek bihar hasiko du ibilbide berria, Iturripen

Denboraldi berria, eta kategoria berrian. Beñardo Balerdiren eta Fertxu Rodriguezen mutilek bihar arratsaldean (18:00) ekingo diote denboraldi berriari. Gainera, Arrasateko zaleen aurrean egingo dute debuta, Iturripen. Arrasatekoek Portugalete izango dute lehenengo norgehiagokan kontrario.






Kobate HARROBIA
Kobaundi HORMIGOIAK
ERAIKUNTZARAKO MOTA GUZTIETAKO HARRIAK

Ondo pasau
Garagartzako jaixetan

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.

Belun
Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE




Arteaga
Landetxea
Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82



**> KONTZERTUA** Anari eta Sorkun gaur gauean Arrasateko 3.60 aretoan **> 45**

**> 28 KANALA** Tolosaldeko telebista abiaraziko dute gaur **> 51**

**> IVAN VAZ** Moda Diseinua eta Patroigintza ikasi du, eta poliki-poliki moda ibiltokietarako lanak egiten hasi zen. Horren aldeko apustua egin du eta Cibelesen egon berri da **> 50**



# Lihoak Debagoienean izan duen garrantzia

Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak *La historia desconocida del lino vasco* liburua eman du argitara

Besteak beste, lihoak Debagoienean izan zuren garrantzia aztertzen du egileak

Liburuaren aurkezpena atzo egin zuten Oñatin, San Migel jaietako ekitaldien barne

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Jose Antonio Azpiazu historialari oñatiarrak *La historia desconocida del lino vasco* (Ttarttalo argitaletxea) izenburuko liburua argitara eman du. Aurkezpena atzo egin zuten, Oñatiko udaletxean. Lihoaren istorio ezkutuarengatik galdetuta, zera erantzun digu Azpiazuk: "Artisautzarik edo euskal lihoaren industriarik egon zen Arin Dorronsororen, Julian Alustiza Arantzazuko fraidearen edo Orixeren Iruleak olerkien esker dakigunaren aurretik? Juan Antonio Mogelen *Peru Abarka* eleberrian (1802) lihoa zela lantzen zen ederto azaltzen da eta garai hartan zuen garrantzia ere jasota dago. Manuel Larramendik XVIII. mendearen erdialdean idatzitako *Corografia de Guipuzcoa* lanean ere garai baten amaiera antzematen da, kanpotik etorritako produktuen agerpenarekin, lihoa bera baino iraupen laburragokoak eta ez hain naturalak".

**LIHOA DEBAGOIENEAN**

Lihoaren urrezko aroa XVI. eta XVII. mendeetan kokatzen du Azpiazuk: "Tradizionalki zera uste izan dugu: euskal industriaren oinarria burdingintza eta Ternuko arrantza zirela. Baina XVI. mendearen amaieran, Europako hainbat herrialdek Ternuarekiko interesa azaldu zuten eta horrekin batera euskal marinelen eta flotaren gainbehera etorri zen. Eta sasoi hartan, hainbat agiri ofizialetan, diru iturri nagusiak, komertzializagarriak direnak, burdingintza eta lihoa zirela jasotzen da. Debagoienean are eta garrantzi handiagoa zeukan lihoak: Bergarak ehungintzan zuen tradizioa aski ezaguna da, Antzuolak lihoaren produkzioan garrantzi handia zeukan baita, eta Oñati edo Arrasate ez ziren atzean geratzen orduan... XIX. mendean etorri zen krisialdia, besteak beste karlistaldien ondorioz. Berrikuntza garaia baino krisiarena da XIX. mendea: instituzioak ez ziren gauza izan sistema berriak ezartzeko, zaharrak ez ziren errentagarriak eta kalitateak behera jo zuen, Europako beste herrialde batzuen industriaren aurrean".

**EUSKAL HERRIA ETA PORTUGAL**

Euskal Herriaren eta Portugalen arteko harremana oso sendoa izan zen lihoaren urrezko aroan. Merkataritza hartu-eman hori idiliotzat jotzen du Jose Antonio Azpiazuk bere azken liburuan: "Urte askoan oso harreman ona egon zen eta ohikoa zen marinel portugaldarrak gure portuetan ikustea; Europan oso estimatua zen lihoa ekartzen zuten Euskal Herrira. Euskaldunek ere Portugalera jotzen zuten, armak eta nekazaritzako lanabesak saltzera. Debagoieneko hainbat produktu saltzen ziren Lisboan eta merkatari oñatiarrak han ibiltzen ziren. Lagun arteko harreman hori idiliotzat bataiatu dut liburuan, azken batean merkataritzan ibiltzen ziren euskal emakumeen eta lihoa ekartzen zuten Portugalgo gizonen artean ere harreman estuak egon zirelako...".

(44. orrialdean jarraitzen du)




**LIHOA ETA EMAKUMEA** Liburuaren azalean agertzen den emakumea egilearen amona da: Bibiana Igartua oñatiarra.

## Lihoaren gertuko historia

(43. orrialdetik dator)

Lihoarekin zerikusia zuen prozesu guztia emakumeen esku zegoen. Linazia portura edo baserrira heltzen zen momentutik emakumeak ziren protagonista: "Emakume askok lihoaren lantze eta salmenta inguruan antolatzen zuten bizimodua eta ekonomia, baita onespen soziala ere. Ezagutzen ditugun argazkietan ere emakumeak dira protagonista". Hain zuzen ere, Azpiazuren liburuko azaleko argazkian egilearen amona agertzen da: Bibiana Igartua oñatiarra, Santikutz errotakoa. Irudia 1950. urtearen ingurukoa da.

**ERABILERA UGARI**

Lihoaren erabilerari dagokionez, nagusiki, izarak, toailak, prakak, alkandorak eta ohe-estalkiak egiten zituzten garai hartan. Hala ere, Azpiazuk kontatzen duenez, *meatilla* zen ezagunena eta gehien eskatzen zutena. Neskame izateari uzten zioten emakumeek janzten zuten oihala zen. Liho oso finarekin (baliteke Portugaldik ekarritako linazia erabiltzea horretarako) eta mehearekin (gardenkiekin) egiten zen *meatilla* eta ez zen saltzen bakarrik Gaztelan, Andaluzian eta Valentzian; Europara eta Amerikara ere esportatzen zuten".

*La insólita solicitud del obispo Juan de Zumarraga* da liburuaren ataletako baten izenburua. Jose Antonio Azpiazuk argitu digu Juan de Zumarraga gotzainaren kontua: "Durangokoa zen, Mexikon ibili zena, eta, oker ez banabil, hura izan zen hara inprenta eraman zuena. Negozioetarako abilezia berezia zuen eta Durangoko komunitateari lihozko 3.000 alkandora eskatu zizkion, bere arreba han bizi baitzen. Izugarrizko eskaera zen sasoi hartarako, baina Zumarragak bazekien Durangaldeak eskaerari aurre egiteko ahalmena bazuela. Era berean, konbentzituta zegoen harrera ona jasoko zutela alkandorek Mexikoko merkatuan, kalitate bikainekoak zirelako. Beste agiri baten, berriz, jasotzen da Zumaiatik mihise eta *meatilla* mordo bat esportatu zituztela Amerikara".



**HISTORIALARIA** Jose Antonio Azpiazu, kaleratu berri duen liburuarekin. GOIENKARIA

JOSE ANTONIO AZPIAZUREN LAN BERRIA

## Emakumeen garrantzia: lihoaren prozesu osoa euren esku egoten zen gurean

Liburua idazteko orduan, hark bi aurrekari dituela azaltzen du Azpizuk: "Batetik, 1995ean argitaratu nuen *Mujeres vascas: sumisión y poder*. Hor jasotzen dira lihoaren gaineko kontuak. Bestetik, *Historia de un rapto* liburuan (1997) argi geratzen da mojek lihoa erabiltzen zutela bizimodua aurrera ateratzeko. Gizonezkoek idatzi dute historia eta horrek eragin zuzena izan du bizitza ekonomikoan zein sozialean emakumeei protagonismo txikia emateko orduan. Lihoaren kasuan argi geratzen da, Euskal Herrian behinik behin, emakumeen lana ezinbestekoa zela".

Azpiazuren arabera, oraindik ere badaude lihoaren prozesu osoa ezagutzen duten emakumeak, linazia ereintzen zenetik merkatuan oso estimatuak ziren mihiseak egin arte: "Herrialde beheretako produkzioarekin konparatzerik ez dagoen arren, komertziotik bizi ziren hemengo emakume asko eta asko", dio Azpiazuk. "Oraindik ere baserri askotan esaten dizute linaputzuak non zeuden: ur azpian zurtoinak sartzen zituzten, lihoaren zuntza, lehengaia lortzeko. Ondoren mazoekin astintzen zuten linuarriarekin zurtoinak biguntzeko eta trangak edo guraize handi batzuk ere erabiltzen zituzten. Ohol batzuen laguntzarekin zarakarra eta zuntza bereiztu ondoren, haria egin eta ehungailuan mihiseak edo liho ehunak egiten zituzten, fintasun ezberdinarekin, eta marrazkiak gehitzen zizkieten, apaingarri gisa". Azpiazuren lan berriak 167 orrialde ditu eta 15,60 eurotan salduko dute.



**LIHOA** Euskal Herrian emakumeek landu izan dute lihoa. SAN TELMO MUSEOA



ITVRRIETA
Sagardotegia· Erretegia
ARRAGA AUZOA • ARAMAIO Tel.: 945 44 53 85
605 70 64 51

Maritxu
Kajoi 06
Bazkariak
Afariak

**Menu 1**
Onddo nahaskia
Mikuit-a
Txipiak plantxan
Bixigua
Txuleta
Sagardoa, txakoliña, ardo ondua.
Postrea eta kafea
45 €

**Menu 2**
Iberikoak
Kroketa nahasiak
Onddo nahaskia foierekin
Rapea
Azpizuna
Sagardoa, txakoliña, ardo ondua.
Postrea eta kafea
36 €

**MUSIKA** > DANBAKA MUSIKA LEHIAKETAREN BIGARREN EDIZIOA

# Astelehenean jakinaraziko dituzte Danbakan esku hartuko duten 19 talde

Aurkeztutako talde guztien kantuak entzungai daude *danbaka.com* webgunean. Gainera, musikazaleek aukera izango dute zuzenean arituko den 20. taldea aukeratzeko



**TALDEENDAKO ERAKUSLEIHOA** Argazkian, Turboamor, aurreko edizioan sailkatzea lortu zuen taldeetako bat. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > DEBAGOIENA

Bukatu da Danbaka musika lehiaketan esku hartzeko epea. 28 talde aurkeztu dira eta estilo askotako eskaintzak jaso ditugu. Dagoeneko epaimahaia hasi da taldeen grabazioak entzuten, eta astelehenean, urriaren 2an, *Astelehe-neko Goienkaria*-n emango dituzte aditzera zeintzuk diren sailkatutako 19 taldeak.

**20. TALDEA, ENTZULEEN ESKU**

Behin epaia ezagutzera eman ostean, musikazaleek gustuko duten taldea bozkatzeko aukera izango dute *danbaka.com* webgunearen bitartez. Horretarako aukera izango dute urriaren 5a bitartean.

**KANTU GUZTIAK ENTZUNGAI**

Lehiaketara aurkeztu diren talde guztien kantuak *danbaka.com* webgunean daude, gura duenak entzun ditzan.

**ABONUAK SALGAI**

Kontzertuetarako abonuak salgai daude, 18 eurotan, eta modu honetan eskura daitezke; 902 36 38 51 telefono zenbakian; Goienako egoitzetan eta Espaloia Kafe Antzokian. Gaztekutxa dutenek merkeago eskuratu ahal izango dituzte.

**MUSIKA**

## Anari eta Sorkun, eszenatoki berean

Ingalaterrako 999 eta UK Subs taldeak arituko dira gaur Oñatiko jaietan

**I.B.** > ARRASATE

Zoritxarrez Euskal Herrian emakumezko musikari gutxi daude. Bada, oihartzun handienetakoa lortu duten bi lagun, Anari eta Sorkun, Arrasateko 3.60 aretoan izango dira gaur, egubakoitza, luxuzko emanaldia egiten, 23:00etan. Anari azkoitiarrari Bap! eta Inoren Ero Ni taldeetan aritutako musikariek lagunduko diote; eta Sorkun oreretarrari, Gasteizko Neubat taldekoek. Sentimendu eta eskarmentu handiko musikariak dira biak ala biak.

**OÑATIN PUNK KONDAIRAK**

Oñatin, Des-Kontrol eta Afonia taldeez gain, Ingalaterrako punkaren ikur 999 eta UK Subs arituko dira gaur, 22:00etan, txoznetan.

Debagoieneko
PROFESIONAL LIBERALAK



ABOKATUAK
**BERNARDINO MAIZTEGI**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81
**JUAN ANTONIO SIERRA**
BERGARA / Irizar 2
T: 943 76 03 35
**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es
**RAFAEL ARANBURU**
BERGARA / Irizar 5
T: 943 76 10 81

BIDEO EKOIZPENAK
**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

AHOLKULARITZAK
**AIERDI AHOLKULARITZA**
BERGARA / Artekale 1
T: 943 76 03 50
**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
ARETXABALETA / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es
**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com
**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83
**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK
**DORLETA EGUIARA FDEZ-RIVERA**
ARRASATE / Arrasate Pasealekua 16 - 1D
T: 636 38 69 87 / 943 79 58 80
deguiara@yahoo.es
**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53
**JUAN MARI OSINAGA**
ARRASATE / Zerkaosteta 17, behea
T: 943 79 67 78
F: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

ASEGURUAK
**GOIENA ASEGURU ARTEKARITZA**
ARRASATE / Antso Abarca 6
T: 943 79 59 81
BERGARA / Zurradero 2
T: 943 76 97 65

DISEINU GRAFIKOA
**ISLADA MULTIMEDIA**
BERGARA / Telleria 17 A05 (Labegaraieta ind.)
T/F: 943 76 33 56
islada@isladamedia.com

ETXE ADMINISTRAZIOAK
**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
URIBESALGO@telefonica.net

GESTORIAK
**EGUREN**
BERGARA / Irala 3
T: 943 76 21 65

PROKURADOREAK
**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 71 23 91** zenbakira.

INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
- Duplexa Masterreka. 180 m2.
- Duplexa Ortuibar. Oso ondo.
- Masterreka 92 m2. Ondo.
- Koldo Eleizalde 87 m2. Ondo.
- Angiozar. Bi solairu. Berritzeko.
- Ibargarai 118 m2. Oso ondo.
- Zabalotegi 50 m2. Oso ondo.
- T. Aranzadi 140 m2. Oso ondo.
- Berria 66 m2. Prezio ona.
- Bidekurutzeta 96 m2. Ondo.
- Fraiskozuri 104 m2. Ondo.
- Ortuibar 97 m2. Oso ondo.
- Zubiaurre 70 m2. Ondo.
- Zubiaurre 65 m2. Oso ondo.

***Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzon.2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobea.***

**Antzuola:**
- Elkarren ondoan eraikitako 8 txalet salgai: Hiru solairu, eguzkitsuak, sarbide ona, garajea, txokoa eta terraza.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA:**
- Ibargarai 118 m². Oso ondo.
- Bidekurutzeta, 60 m². Oso ondo.
- Zabalotegi 79 m². Berritzeko.
- Duplex berria. 72 m² + 34 m².
- Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
- Matxiategi 80m². Ondo.
- Masterreka duplexa 170 m2.
- Zabalotegi 80 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 71 m². Erdi berrituta.
- Artekale 74 m². Ondo.
- Angiozar bi solairuko etxea. Berritzeko.
- Masterreka 87 m². Oso ondo.
- Ibargarai 80 m². Ondo.
- Fraiskozuri 102 . Ondo.
- Arrizuri 97 m². Oso ondo.
- Zubiaurre 62 m². Ondo.
- Simon Arrieta 73 m2. Berritzeko.
- Martoko 93 m2. Berrituta.
- **San Lorentzon 18 etxebizitza berri. Garajea eta trastelekuarekin.**

**ANTZUOLA:**
- Duplex berria erdialdean.
- Sagasti 71 m². Ondo.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdia arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

**943 25 05 01 sailkatuak@goiena.com**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK DOAN JARRIKO DITUGU. GAINERAKOAK, 16 EURO (+BEZ) ORDAINDU BEHARKO DITUZUE MODULUKO.**
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**NACEX**
Autoa daukan mezulari autonomoa behar da.
943 79 92 77
NACEX

**BERGARA**
Irailaren 2an Santa Marina elizan Canon 70/200, F4 objetiboa hartu zuenari bueltatzea eskatzen zaio. Bueltatzea sarituko da.
943 76 30 33

**ARRASATE**
Esperientziadun ile-apaintzailea behar da.
676 22 33 18

**OÑATI**
Ile apaintzailea behar dute Pake Lekun baja bat betetzeko.
943 71 62 20

**ARRASATE**
Plazan dagoen Zuk Nahi taberna alokatzen da.
618 76 34 40
605 76 08 29

**ESKORIATZA**
Zerbitzaria behar da Otzeta tabernan.
943 71 31 67

**ANGIOZAR**
Ortzi erretegia alokatzen da.
943 78 22 80
665 72 24 46

**ARRASATE**
Amets tabernak zerbitzaria behar du, ezinbestekoa da euskara jakitea.
943 77 09 23

**BERGARA**
Simon Arrietan etxebizitza salgai, 80 m2, prezio interesgarria.
664 73 49 60

**ESKORIATZA**
Apotzaga auzoan, taberna errentan ematen da.
943 71 49 96

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Duplexa salgai Sagasti auzoan. Eraikuntza berria. Garaje handia. 666 72 47 12.

**Antzuola.** Etxebizitza salgai Sagasti auzoan. Hiru logela, bi komun, egongela, sukaldea, despentsa, balkoia eta terraza. Garajea aukeran. Deitu telefono honetara: 607 63 48 88.

**Arrasate.** 60 m2. Bi logela, sukaldea, egongela, ganbara eta bi balkoi. Berritua. Deitu telefono honetara: 639 84 71 73.

**Arrasate.** Etxea salgai San Andres auzoan. Berrituta. 200.000 euro. Deitu telefono honetara: 943 79 24 59.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai erdialdean. 96 m2. Sukaldea, hiru logela, bi komun, berogailua eta igogailua. Garajea eta trastelekua aukeran. (18:30-20:30). Deitu telefono honetara: 686 24 97 48.

**Bergara.** Apartamentu berria salgai erdialdean. 40 m2. Sukaldea hornituta. Deitu telefono honetara: 656 00 88 85.

**Bergara.** Zubiaurre kalean. Guztiz berritua. Hiru logela eta berogailua ditu. 943 28 76 36.

**Oñati.** 86 m2. Bidebarrietan. Hiru logela, sukaldea, egongela, bi bainugela, trastelekua eta garajea. 635 73 08 67.

**Oñati.** Baserri bat saltzen da. Deitu telefono honetara: 943 78 14 72.

**Oñati.** Etxebizitza saltzen da. Deitu telefono honetara: 943 78 03 08.

**Oñati.** San Lorentzon etxea salgai. Garajearekin eta ganbararekin. Deitu telefono honetara: 943 78 03 08 edo 656 74 80 47.

**Oñati.** San Lorentzon. Garajearekin eta ganbararekin. 943 71 64 46 edo 656 77 17 23.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza errentan ematen da. Deitu telefono honetara: 635 71 96 28.

**Arrasate.** 3 logelako etxebizitza alokagai. Deitu 20:00etatik aurrera. Deitu telefono honetara: 610 94 22 28.

**Arrasate.** Ikasleendako etxebizitza alokagai Unibertsitatetik oso gertu. Deitu telefono honetara: 943 79 35 66 edo 695 70 76 25.

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza emango nuke errentan. Unibertsitatetik gertu dago. Ruben. Deitu telefono honetara: 655 71 89 36.

**Vera (Almeria).** Apartamentua ematen da errentan naturista-gune baten. Jantzita (TB, garbigailua, mikrouhin-labea...). Igerilekua. Deitu telefono honetara: 657 73 94 25.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Bikote batek etxea errentan hartuko luke. Deitu telefono honetara: 659 35 92 21.

**Aretxabaletan** bi neskak etxea errentan hartuko lukete. 658 73 91 65 edo 617 98 62 10.

**Arrasate.** Bikote batek estudio, apartamentu txiki edo logela bat edo biko etxebizitza errentan hartuko luke. Deitu telefono honetara: 666 97 80 88.

**Arrasate.** Etxebizitza errentan hartu nahi nuke. Bi emakume eta ume batendako. Uribe ingurua bada, hobeto. Telefonoa: 667 34 89 40.

**Arrasate.** Langile batek estudio bat errentan hartzeko prest. Deitu telefono honetara: 639 96 30 98.

**Debagoiena.** Etxea hartuko nuke alokairuan, bizpahiru logelarekin. Hilero 500 euro ordaintzeko gertu. Deitu telefono honetara: 630 31 84 34.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Nerea edo Eli. Deitu telefono honetara: 650 93 96 93 edo 653 70 50 68.

**Arrasate.** Ikasle bat behar da etxea osatzeko Arrasate erdialdean, Eskola Politeknikotik 5 minutura. Deitu telefono honetara: 606 56 97 49.

**Bilbo.** Logela hartuko nuke alokairuan. Deitu telefono honetara: 665 75 10 73.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Antzuola.** Beheko auzoan garaje itxia salgai. 607 72 02 42 edo 699 79 60 38.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia saltzen edo alokatzen duterdialdean (Santa Kruz). 685 72 16 52 edo 665 73 40 09.

**Arrasate.** Garaje itxia Erguin kalean, Larrea parean. 16 m2 eta lehen solairuan. Autoa erraz sartzeko moduan, maniobrarik gabe. 669 49 49 96.

**Arrasate.** Garaje itxia salgai Jokin Zaitegi plazan. Deitu telefono honetara: 646 45 47 59.

**Arrasate.** Garajea salgai Makatzena auzoan. Deitu telefono honetara: 945 12 09 94.

**Arrasate.** San Andres auzoan 42 m2-ko garaje itxia saltzen da. 667 53 89 66 edo 636 34 77 08.

**Bergara.** Garaje itxia saltzen da. San Lorentzo auzoan (Zapelaitz azpian). Deitu telefono honetara: 943 76 40 05.

**Bergara.** Garajea salgai Zurraderon. Deitu telefono honetara: 660 93 00 32.

### 203. ERRENTAN EMAN

**Aramaio.** Garaje itxi eta berria errentan ematen da Iturri Zuri kalean. 15 m2 gutxi gorabehera. Gauez deitu. 945 44 51 97.

**Aretxabaleta.** Garaje itxia errentan ematen da Aretxabaletako-Mitarte kalean. Deitu telefono honetara: 943 76 29 21.

**Arrasate.** Garaje itxia errentan Olarte kalean. Deitu telefono honetara: 628 88 18 77.

**Bergara.** Garaje itxia alokatzen da Boluko Arane Erreka kalean. Deitu telefono honetara: 943 76 48 46.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Autokarabana** sartzeko garajea hartuko genuke errentan. Zazpi metro luzeran eta hiru altueran. Deitu telefono honetara: 699 60 20 10.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Ibargarai kalean 55,20 m2-ko lokala. Deitu telefono honetara: 630 86 55 06.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergaran** pertsona bat behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Goizean, 07:30etik 11:30era. 943 03 45 30.

**Emakumea** gertu etxeko garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Orduka. Esperientziaduna. 676 55 15 46.

**Emakumea** gertu pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 619 92 40 86.

### 402. ESKAERAK

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek umeak edo adinekoak zainduko lituzke, arratsaldez. 659 82 72 18.

**Arrasate.** Emakume euskaldun batek umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Deitu telefono honetara: 659 82 72 18.

**Arrasate.** Emakumea prest etxeko lanak egiteko, pertsona nagusiak zaintzeko... Isabel. Telefonoa: 628 35 41 00.

**Bergara.** Arratsaldeetan lan egingo nuke, orduka (15:00etatik aurrera). Deitu telefono honetara: 646 12 53 20.

**Bergara.** Argiketari instaladorea eta argiketari laguntzailea behar dira. 651 70 72 40.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten ari naiz eta zapatuetan zerbitzari lanak egingo nituzke. 679 15 31 65.

**Bergara.** Neska edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaintzen, zerbitzari... Esperientzia eta informeak. 663 46 93 60.

**Debagoiena.** Emakumezkoa eskaintzen da egunez zein gauez etxe baten lan egiteko, adinduak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Nati. Deitu telefono honetara: 656 76 78 12.

**Debagoiena.** Lanak egiten dira igeltsuarekin, pladurrarekin eta pinturarekin besteak beste. Deitu telefono honetara: 615 73 87 01 edo 699 15 24 00.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen eta garbiketan esperientzia duen emakumea lanerako prest. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Ostalaritzan lan egiteko prest nago. Baita sukaldari ere. Deitu telefono honetara: 666 00 52 12.

**Emakumea** gertu garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko. Agiriak ditu, eta izaera goxoa. Roxana. Deitu telefono honetara: 662 08 22 03.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Bergara.** DBHko 2. mailako eskola partikularrak hartuko nituzke. Euskaraz badira, hobeto. 943 76 16 42.

**Bergara.** Eskola partikularrak jasoko nituzke etxean. 21:00etatik aurrera deitu, mesedez. Telefonoa: 943 76 03 75.

### 502. EMAN

**Alemanezko** irakasle bat behar da, Bergaran, 13 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei klaseak emateko. Deitu telefono honetara: 607 33 96 85.

**Arrasate.** Ingeles eskolak ematen ditut. Deitu telefono honetara: 943 77 16 90.

**Arrasate.** Klase partikularrak ematen dira, euskaraz eta gaztelaniaz. DBHko 4. mailara arte eta batxilergoan matematika, fisika eta ingelesa. Deitu telefono honetara: 665 70 18 90.

**Bergara.** Eskola partikularrak ematen ditut. Irakasle titulua daukat. Deitu telefono honetara: 943 76 27 81.

**Ingelesa.** Ingelesa ikasteko (hizketaldi eskolak) bertako irakasle baten bila nabil. Deitu telefono honetara: 635 56 33 31.

**Ingelesko** klaseak ematen dira. 943 79 03 83.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Ford Escort** familiarra. 2.000 euro. 129.000 km. 649 69 33 02.

**Ford Focus** salgai. Gasolina. 130 zaldi. 1999koa. 699 60 20 10.

**Golf GTI 3** 2115 cv. 155.000 km. Eibach suspentsio-sistema. Tintadun beirak. 669 57 47 96.

**Golf GTI** autoa salgai. SS-AF. Prezio interesgarria. 652 77 71 08.

**Honda** CBR F Sport Rossi motorra salgai. 15.000 kilometro ditu eta oso ondo zainduta dago. Salneurria adostear. Telefonoa: 636 64 90 60.

**Jeep** Grand Cherokee salgai. 2001ekoa. Narruzko jarlekuak ditu, martxa aldaketa automatikoa, ordenagailua, e.a. Oso egoera onean. 655 72 04 12.

**KTM** motorra salgai. 400 cm3 gogorrean. 1997koa. Oso egoera onean eta matrikulatua. 2.500 euro. Deitu telefono honetara: 627 42 63 12.

**Opel Astra** salgai. Gasolioa. 1997koa. Deitu telefono honetara: 699 60 20 10.

**Rieju RR.** Kolore berdea. 2002 urtekoa. 49 CC. Egoera onean eta matrikulatuta. Deitu telefono honetara: 656 00 85 15.

**Volkswagen California** furgoneta salgai. 1997koa. Berogailuarekin. 20.500 euro. Deitu telefono honetara: 660 83 78 55.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bergara.** Basolurra emango nuke errentan. 678 72 75 72.

**Bigarren eskuko liburuak** salgai. Egoera eta prezio onean. 660 04 77 70.

**Borsini** etxeko akordeoia salgai. Egoera onean. 943 76 47 48 edo 600 83 33 81.

**Canon** bideokamera salgai. 400 euro. 943 79 72 53.

**Citroen Saxo** diesela salgai.85.000 km. (2000koa).Telefonoa: 657 79 70 78.

**Egurrezko bi mahai** bere aulkiekin salgai. Baserri, txoko edo borda baterako egokiak. Prezio ona. Telefonoa: 943 79 31 66 edo 635 75 09 47.

**Hektarea bateko pinudia** salgai Bergaran. 678 72 75 72.

**Karabana.** Knaus Azur markakoa. 4 lagunentzako. Gama altukoa eta oso egoera onean. Telefonoa: 615 77 00 01.

**Nikon F65** eta objektiboak: 28-80, 70-300 Nikon originalak, prezio onean. 635 71 15 34.

**Opel Tigra** salgai. 1.4 16 v eta 90 ZP. 8 urte eta 110.000 km. Oso egoera onean. Aire girotua. Deitu iluntze aldera. Telefonoa: 669 26 21 19.

**Oñati.** Lursaila salgai. 9,5 hektarea pinudi. 659 04 20 99.

**Patinak** saltzen ditut. 35-38 zenbakitakoak, berriak, 25 eurogaitik. 670 08 12 16.

**Pearl** markako bateria salgai. Osagarri guztiak ditu. 600 eurotan. 636 64 90 60.

**Piragua** salgai. 649 01 12 28.

**Scalextric** berri-berria. Telefonoa: 636 66 51 18.

**Txakurrendako** pentsua salgai. 660 05 98 23.

### 803. EMAN

**Setter** arrazako txakurra opari egiten da. Urte eta erdi du. Gorra da. 678 43 31 07.

URONDO
Elektrizitatea

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



**Ainhoa Jausoro** eta **Jesus Santa Cristina** arrasatearrek ezkondu zireneko hamargarren urteurrena ospatu zuten irailaren 28an familiakoekin. Zorionak eta urte askotarako Julen, Ane, Irati eta familia guztiaren partetik!



**Eñaut Arriaran** eta **Maider Zubillaga** arrasatearrak zapatuan ezkonduko dira Arrasateko San Juan Bautista elizan. Zelai Zabal jatetxean bazkalduko dute eta Thailandiara joango dira bidaian. Zorionak, koadrilakoen partetik eta zoriontsuak izan, bikote!



**Gorka Astondoa** eta **Izaskun Arriaran** aramaioarrak zapatuan ezkonduko dira Barajuengo Andra Mari elizan. Bazkaria Otxandixoko Gorozondo jatetxean egingo dute. Zorionak, Gorkaren senideen eta Iturrioste eta Artikillu baserrietakoen partetik.

ESKER ONA

## Idoia Leniz Azkarate

Donostian hil zen 2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko maiatzaren 29an.

ESKELA

## Idoia Leniz Azkarate

Donostian hil zen 2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela.



*Polita izan da zu ezagutzea eta
zoragarria gure bizitza
zurekin konpartitzea. Bihotzez.*

Tere, Elena, Nati, Maika, Uxu eta Itziar.
Bergaran, 2006ko irailaren 29an.

ESKER ONA

## Idoia Leniz Azkarate

Donostian hil zen 2006ko irailaren 22an, 42 urte zituela.

Bergarako San Martin Agirre herri eskolako ikasle, guraso eta irakasleek bat egiten dute senideen saminarekin.

San Martin Agirre herri eskola

Bergaran, 2006ko irailaren 29an.

ESKELA

## Paco Aranbarri Riviere

Valentzian hil zen 2006ko irailaren 5an, 77 urte zituela.



*Bat izan zaiztela,
zu aita ta neu bat garen bezala.*

Arrasaten, 2006ko irailaren 29an.

URTEURRENA

## Pantaleon Barandiaran Martinez

Donostian hil zen 2005eko irailaren 29an.



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 1ean,
11:30ean,
Aretxabaletako Andra Mari elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Karmelo Garaitonandia Kortabarria

Aramaion hil zen 2004ko irailaren 29an, 63 urte zituela



Bigarren urteurreneko meza
domekan, urriaren 1ean,
13:00etan, Aramaioko Uribarri
auzoko San Esteban elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Romana Sagastigutxia Etxeberria

Blas Altunaren alarguna

Bergaran hil zen 2006ko irailaren 22an, 96 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko irailaren 29an.

ESKER ONA

## Isabel Ortueta Zabarte

Arrasaten hil zen 2006ko irailaren 18an, 81 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Arrasaten, 2006ko irailaren 29an.

URTEURRENA

## Florencio Gruzeta Axpe

2005eko irailaren 27an hil zen, 74 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza
domekan, urriaren 1ean,
12:30ean,
Eskoriatzako San Pedro elizan.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Iban Elejalde Ayastuy

Gasteizen hil zen 2006ko irailaren 21ean, 35 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aramaion, 2006ko irailaren 29an.

ESKER ONA

## Carmen Garai Lazpiur

Bergaran hil zen 2006ko irailaren 5ean, 87 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko irailaren 29an.

ESKER ONA

## Pilar Sáenz Montoya

Tomás Gonzalezen alarguna

Gasteizen hil zen 2006ko uztailaren 28an, 85 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta Mizpirualde egoitzakoei -zuzendaritza,
erizaintza, laguntzaileak eta beste langileak-
eskerrik asko sendikoen izenean.

Bergaran, 2006ko irailaren 29an.

## bila-bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Oihal mota / Nartzisoa | | Heldu, umo / Poesi mota | | Dudan / Pozoia duena | |
| | | | | | | | | |
| | | | Jolasa, josteta / Fruitu gorri eta gozo | | | | | |
| Lurraren satelite / Landare mota | | Itzal / Ubel | | | | | | |
| | | | | Nonbait / Edo | | | | |
| Emeak ez direnak / IRUDIKO MENDIA | | | | | | Idi hitz-elkarketan / Arreske | | |
| | | | | | | | | |
| Ehun mota / Haur txiki | | | | | Nafarroako urtegia / Iodoa | | | |
| | | | | Argitasunik gabe | | | | |

GOIENKARIA



## umore giroan

Kike Amonarriz

**TUTTI ATHLETI! (196)**

Bi tolosar hauek, asteburua pasatzera Bilbora joan dira. Gaua iritsi eta Tutti Athleti! bertoko jatetxe italiarrera sartu dira.

Zerbitzariak karta eman eta ez dute denbora luzerik behar izan aukeraketa egiteko:

- Nik spagettoak eta nire adiskideak ravioloak.

- Oso ongi. Dena dela, ez gaizki hartu, baina...–esan die zerbitzariak edukazio handiz- ez da spagetto eta raviolo esaten, spagetti eta ravioli baizik.

- Oso ongi, orain esadazu non dauden komunik, kaki egin nahi nuke eta.

## sudokua

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 9 | | | | 2 | | | |
| | | 8 | 4 | 5 | | 3 | | |
| 3 | | | | 9 | | | 2 | 6 |
| | 2 | | | | | 5 | | 7 |
| | | 1 | | 3 | | 8 | | |
| 5 | | 7 | | | | | 3 | |
| 4 | 3 | | | 2 | | | | 5 |
| | | 9 | | 4 | 1 | 2 | | |
| | | | 9 | | | | 8 | |

## hieroglifoa

Zer lapurtu zioten baserritarrari?



## hizki salda

Arabako bost herri

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| X | I | B | A | L | P | S | N | E |
| O | D | N | O | U | D | L | A | Z |
| B | U | R | I | B | S | M | U | A |
| E | L | O | R | S | L | E | G | I |
| R | A | L | Ñ | U | O | N | M | S |
| T | N | I | A | R | U | G | A | B |
| S | T | U | R | T | X | I | L | A |
| G | Z | I | K | A | U | S | M | P |
| B | I | A | S | T | E | R | I | Ñ |

## soluzioak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | P | ■ | L | ■ | Z |
| | | | L | I | L | I | P | A |
| | | | ■ | K | I | R | O | L |
| ■ | I | ■ | G | E | R | I | Z | A |
| A | L | O | E | ■ | I | N | O | N |
| ■ | A | R | R | A | K | ■ | I | T |
| A | R | B | E | L | A | I | T | Z |
| ■ | G | A | Z | A | ■ | E | S | A |
| N | I | N | I | ■ | I | L | U | N |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 9 | 4 | 3 | 7 | 2 | 1 | 5 | 8 |
| 2 | 1 | 8 | 4 | 5 | 6 | 3 | 7 | 9 |
| 3 | 7 | 5 | 1 | 9 | 8 | 4 | 2 | 6 |
| 8 | 2 | 3 | 6 | 1 | 4 | 5 | 9 | 7 |
| 9 | 6 | 1 | 7 | 3 | 5 | 8 | 4 | 2 |
| 5 | 4 | 7 | 2 | 8 | 9 | 6 | 3 | 1 |
| 4 | 3 | 6 | 8 | 2 | 7 | 9 | 1 | 5 |
| 7 | 8 | 9 | 5 | 4 | 1 | 2 | 6 | 3 |
| 1 | 5 | 2 | 9 | 6 | 3 | 7 | 8 | 4 |

**Jeroglifikoa:** Oilar bi
o-ilar-bi


| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| X | I | B | A | L | P | S | N | E |
| O | D | N | O | U | D | L | A | Z |
| B | U | R | I | B | S | M | U | A |
| E | L | O | R | S | L | E | G | I |
| R | A | L | Ñ | U | O | N | M | S |
| T | N | I | A | R | U | G | A | B |
| S | T | U | R | T | X | I | L | A |
| G | Z | I | K | A | U | S | M | P |
| B | I | A | S | T | E | R | I | Ñ |


## bono fotoa



**Urtean egun batez, Oñati baserritar jantziz mozorrotzen da, eta baserriko sagardo, talo, abere, fruitu eta barazkiek hartzen dituzte herriko kaleak. Zein da egun hori?**

**Argazkia eta galdera** > Iñigo Biain

Super BM

Super BMk emandako
**50 euroko erosketa-txartela**
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA ..............................

IZEN-DEITURAK ..............................
TELEFONOA ..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**Koipesol ekilore-olioa**
Litroko botila

**1,19 €** 198 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA
**IRENE DZ. DE GEREÑU**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!
Galderaren erantzun zuzena: Euskal Gotikoa

# Presta zaitez udazkenerako




*DORLETA ETA TXARO estetika zentroa*
**ESKORIATZA**
**Aranburuzabala 22 • 943 71 51 20**
**Skeyndor azalerako saio mikroesfoliatzaile berritzailea**



*GANTXEGI mertzeria*
**BERGARA**
**Telesforo Aranzadi 2 • 943 76 00 79**
**Etxean gustura egoteko**




*KILIMA ume eta haurdunentzako arropak*
**ARETXABALETA**
**Ilargi plaza 6 • 943 53 34 96**
**Jean Bourget jantziak**



*LIE lurrindegia*
**ARETXABALETA**
**Mitarte 18 • 943 79 38 59**
**Francesco Biasia poltsa**



*XARMANTA opariak*
**ESKORIATZA**
**Gaztainadui 21 • 943 71 53 87**
**Huit barruko arropa**




*Maria Jesus argazkilaria*
**ARETXABALETA**
**Herriko plaza 10 • 943 77 12 55**
**Argazki-muntaia bereziak**




*ZARRAOA lurrindegia*
**ARRASATE**
**Kanpantorpea 4 • 943 79 12 19**
**Larruzko artikuluak, Bitxitegia, Kosmetika, Opariak**




*HAURRAK umeen arropak*
**ARETXABALETA**
**Lezama zentro komertziala 15 • 943 77 14 86**
**Ikks jantziak**



*PAGALDAI opariak*
**ARETXABALETA**
**Durana 33 • 943 79 10 14**
**Philippe Matignon galtzerdiak**

**Ivan Vaz** > Patroigilea eta moda diseinatzailea

# "Marrazten hasten naizenean, guztia ahaztu eta zeharo deskonektatzen dut"

Ivan Vaz aretxabaletarrak oso txikitatik daki marraztea gustuko duela. Hala ere, 18 urterekin fabrikan lanean hasi eta alboratuta eduki zuen zaletasun hori. Orain dela urte batzuk, berriz, Moda Diseinua eta Patroigintza ikasten hasi zen, eta poliki-poliki moda ibiltokietarako lanak egiten hasi zen. Orain, fabrikan eszedentzia hartu eta horren aldeko apustua egiten dihardu.









JOSETXO ARANTZABAL

**IKER BARANDIARAN** > ARETXABALETA

**Ivan Vaz albiste da Cibelesko ibiltokian hainbat diseinu erakusgai jarri dituelako, baina badira urte batzuk halako lanak egiten diharduela, eta sariak ere jaso ditu.**

**Zer izan gura zenuen nagusitan?**

Gogoan daukat oso txikitatik arkitekto izan gura nuela. Betidanik izan dut oso gustuko marraztea, eta, halako baten, nik egindako marrazkiak errealitate bihurtuko zirela pentsatzeak erakartzen hasi ninduen.

**Arkitekto izateko asko ikasi behar da. Ikasle ona zinen?**

Bai, oso ona. Asko ahalegintzen nintzen eta oso emaitza onak lortzen nituen. Are gehiago, arkitektura egiteko asko ikasi behar zela banekien.

**Eta zer dela-eta ez zenuen arkitektura ikasi?**

Selektibitatea egin ostean, arkitekturan izena eman nuen eta hartu egin ninduten, baina justu orduan kooperatiban kontratu iraunkorra eskaini zidaten. Etxean esan zidaten aukera hori ez galtzeko eta Fagorren *hozkailu sailean* lanean hasi nintzen, 18 urterekin, bajen ordezkapenak egiten.

**Hortaz, noiz eta zelan hasi zinen moda diseinuak egiten?**

Denbora soberan edukiz gero, zerbait egiteko baliatzen dut denbora hori. Horregatik, mantentzearen gaineko ikastaro bat egiten hasi nintzen, baina ezinezkoa zitzaidan fabrikako lanarekin uztartzea. Halako baten, lagun batek Gasteizko akademia baten zegoen eskaintzaren berri eman zidan. Moda diseinua irakasten zuten, eta posible zen goizez zein arratsaldez eskolara joatea.

**Berehala konturatu zinen hori zela gustuko zenuena?**

Ez. Arropa gustuko dut, baina ez nekien hala harrapatuko ninduenik. Esaterako, patroigintza konplikatua da, baina aldi berean oso interesgarria ere bada. Buelta asko eman behar dizkiozu, eta oso lan sortzailea da. Are gehiago, behin marraztu duzuna eginda ikustea zirraragarria da.

3 urte egin nituen akademia horretan eta izugarri gozatu nuen han ikasten.

**Eta orduan diseinu lanak egiten hasi zinen, ezta?**

Bai, poliki-poliki nire moda bildumak sortzen hasi nintzen. Fabrikako lanarekin ez dut denbora luzerik izan, baina ahalegindu naiz urtero bildumaren bat egiten.

**Hainbat desfile eta lehiaketatan esku hartu duzu..**

Bai, hartzen dudan denboraren arabera ahalegintzen naiz ahalik eta gehienetan esku hartzen. Gasteizko diseinatzaile gazteen mostran bost bat aldiz erakutsi ditut lanak. Horietako baten sari nagusia irabazi nuen. Horren ondorioz, Gijongo desfilean esku hartzeko aukera izan nuen. Horrez gain, urte baten Euskal Herriko diseinatzaile onenaren saria eskuratu nuen.

**Zerk erakartzen zaitu gehien arlo horretatik?**

Batez ere, marrazten hasten naizenean guztia ahazten dudala, zeharo deskonektatzen dut. Horrez gainera, ibiltokian norberak egindako sorkuntza bat ikusita zirrara berezia sentitzen da: horrenbeste jendek ikustea, esaten dizutena...

**Orain dela gutxi Cibeles ibiltokirako lan egin duzu...**

Bai. Aukera ikaragarria izan zen. Devota&Lombako tailerreko arduraduna ezagutzen dut eta hark proposatu zidan eurendako lan batzuk egiteko. Hortaz, fabrikan eszedentzia hartu nuen eta Madrilera jo nuen. Ezkongaiendako bilduma egiten hasi nintzen. Horren ostean, Cibeleserako praken patroiak egin nituen, eta jaka bat diseinatu nuen. Oso harrera ona izan zuen, eta gustura errepikatuko nuke.

**Eta Gasteizen ere hainbat lan erakutsi dituzu. Zertan inspiratzen zara?**

Bai. Gasteizkoan *Urrezko mendean* oinarritutako lanak erakutsi ditut, eta kritika onak izan ditut. Gauza askotan inspiratzen naiz eta hainbat gai jorratu ditut: *Carmen* opera, *Prestige* ontziaren hondamendia, hinduismoa, e.a.

**Zer asmo daukazu orain? Aretxabaletara bueltatuko zara?**

Nire asmoa da eszedentziari eustea eta derrigorrezkoa bada hori luzatzea. Poliki-poliki banabil lanbide hau ikasten eta merezi du horretan ahalegintzea. Bestela, fabrikan badakit zer daukadan. Zortzi urte daramat hor eta dagoeneko aspertu naiz lan hori egiten. Hobe dut patroigintzan eta diseinuan lana aurkitzen saiatu. Horretarako, Madrilera eta Bartzelonara joateko asmoa dut.

PERTSONALA

**Herria:** Aretxabaleta. **Adina:** 26 urte. **Zaletasunak:** Kirola egitea, mendira joatea eta irakurtzea. **Zelan ikusten duzu zure burua 30 urte barru?** Egia esanda, ez dakit non egongo naizen datorren urtean. Hortaz... **Zer amets daukazu betetzeko?** Gustuko dudan zerbaitetan lanpostua lortzea. **Gizateriaren asmakizunik handiena?** Idazkera. **Diseinatzaile bat?** Josep Font. **Non egin duzu parrandarik handiena?** San Ferminetan. **Zeintzuk dira Debagoieneko jairik onenak?** Portasolgoak ziren niretzat gustukoenak, baina kendu egin zituzten.




**LANTALDEA** Argazkian, Jon Aldanondo, Naiara Uranga eta Itziar Muxika, 28 Kanaleko lantaldea. GALTZAUNDI

**TELEBISTA** > BESTE EUSKARAZKO TOKIKO TELEBISTA BAT

# 28 Kanala sortu da, Tolosa eta inguruko euskarazko telebista

Beste euskarazko telebista lokal bat sortu da: 28 Kanala, Tolosaldeko Telebista. Gaur abiarazi dute eta, hasiera batean, bi orduz emitituko du, proba modura

**ENEKO AZKARATE** > BERGARA

Tolosaldeko Telebista aurkeztu dute oraingo astean. 28 Kanala dauka izena euskarazko telebista lokal berri horrek eta Tolosa eta inguruko herrietan ikus ahal izango da. Oraingoz probatan ariko dira, egunean bi orduz emititzen, jendeak etxeko antenaketa egoki ditzan. Datorren urtetik aurrera, ostera, egunean lau orduko programazioa izango dute, Goierri eta Tolosaldeko telebistek elkarlanean ekoiztuak.

Tolosaldeko Garapen Agentziak, hau da, hango mankomunitateak bultzatuta sortu da telebista berria. Digitalizazioaren eta tokiko telebisten lege berriaren aurrean, Tolosaldean telebista sortzeko egitasmoa lantzen jardun dute azken urtean, eta, prestaketa lanak egin ostean –materiala erosi, grabaketa lan batzuk egin…–, gaur, egubakoitza, abiatu dute. Goierri Telebistakoek jardun dute prestaketa lanetan, eta, hain justu ere, Jon Aldanondo izango da telebista berri horren arduraduna, Goierrikoaren arduraduna dena.

Enpresa pribatu batek kudeatuko du telebista, baina Tolosaldeko 28 udalek diruz lagunduko dute. Euskaltelen kableko azpiegitura eta ohiko seinale analogikoa erabiliko dute etxeetara heltzeko. Hasiera batean, Tolosa, Ibarra, Zizurkil, Villabona eta Asteasun ikus ahal izango da, hau da, populazio osoaren %75-80rengana helduko dira (30.000 lagun inguru). Egoitza Tolosan edukiko dute, Udalak lagatako lokal batean.

Inbertsioa 60.000 euro izan da, eta, horretaz gain, urtean 120.000 euroko aurrekontua izango du telebistak. Kamerak, editatze gela eta emisio automatizatua izango dituzte telebista egiteko. Bi lagun, kazetari eta kameralari bana eta asteburuko beste bi kolaboratzaile ariko dira.

Euskarazko telebista lokalak batzen dituen Tokiko elkarteko kide izango da Tolosaldeko 28 Kanala ere, eta, horri esker, programazioa osatu eta ordu gehiagoz emititzea lortu nahi dute etorkizunean.

**ALDIZKARIA** > 'JAKIN'-EK 50 URTE

# Urrezko ezteiak ospatzen dihardu 'Jakin' aldizkariak

Mahai-inguruak egingo dituzte azaroan Koldo Mitxelenan, 50eko hamarkadaz

**E.A.** > BERGARA

Urrezko ezteiak ospatzen dihardu *Jakin*-ek. Dagoeneko hainbat ekitaldi egin dituzte –sortzaileei omenaldia Arantzazun, Hemeroteka DVD formatuan eta Interneten…–. Beste ekitaldi batzuk, berriz, udazkenean egingo dituzte, hala nola, 50eko hamarkadaren gaineko mahai-inguruak Donostiako Koldo Mitxelenan azaroaren 7an, 8an eta 9an –*Jakin* aldizkaria 1956an sortu zen–, *Jakin*-en historia batzen duen DVD edo dokumentala eta ekitaldi instituzionala Miramar jauregian azaroaren 16an.

Arantzazun sortu zen *Jakin* aldizkaria, frankismoan, ikasleen gidaritzapean eta berauen aldizkari moduan. 1967an Arantzazu utzi, zuzendari finkoa hartu eta hiri giroan kokatu zen. Bi alditan jaso du debeku administratiboa eta guztira 10 urteko isilaldia izan du. Franco hil eta gero, 1977an abiatu zen berriro ere eta harrezkero etenik gabe kaleratu da gaur arte.

*Jakin* pentsamendu eta kulturako aldizkaria da. Bi hilabetean behin kaleratzen da eta zenbaki gehienak gai baten jiran antolatu ohi dira. Joan Mari Torrealdai da aldizkariaren zuzendaria. *Jakin*-ek webgunea ere badauka: *www.jakingunea.com*. Aldizkariaz gain, beste bi lerrotan mamitzen du lana *Jakin*-ek: liburugintzan, *Jakin irakurgaiak* sailarekin; eta bibliografian, XX. mendeko euskal liburuen katalogoarekin.



Joan Mari Torrealdai. GOIENKARIA

> PRENTSA

### 'Aldizka' izeneko gehigarria argitaratuko du urriaren 9an 'Asteleheneko Goienkaria'-k

Aldizkari itxurako argitalpen berria banatuko da urriaren 9an *Asteleheneko Goienkaria*-rekin batera. *Aldizka* da gehigarri horren izena eta bi hilean behin banatuko da, hasiera batean. Gai monografikoak landuko dira aldizkari bakoitzean. Lehenengoak kalitatea izango du hizpide, eta, besteak beste Bizkaiko sagardo eta txakolin uztak aztertuko ditu.

> TELEBISTA

### Gazteei telebista ikusten erakusteko materiala sortu dute EITBk eta Los Superocho zinema eskolak

Besteak beste, errealitatea aldatu eta moldatu egin daitekeela erakutsi nahi diete gazteei. Horretarako DVD bat prestatu dute EITBk eta Los Superocho zinema eskolak. Iruñerriko DBHko hainbat ikastetxetan jarriko dute abian egitasmoa. *Ikusi eta ikasi* du izena proiektuak: "Irudien aukeraketa berez manipulazioa dela erakutsi nahi diete" ikasleei, arduradunen esanetan. Gidaliburua eskolan lantzeko eta DVDa emango dizkiete ikasleei.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARTE
Industria hornidurak
San Andres auzoa 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

## berriak

> GOITB

### Astelehenean irudi berria estreinatuko dugu

Datorren astelehenetik aurrera korte berriak estreinatuko ditugu Goiena Telebistan. Orain arte udaberri-udako irudiak eskaini dizkizuegu. Baina urtaro aldaketarekin batera aurpegi berria erakusten digu naturak, eta horren adierazle izan nahi du Goiena Telebistak ere.

*Ikustekoa!* lelopean eta udazkenarekin batera datozen fruitu, landare, koloreak... Iritsi da udazkena!

> GOITB

### Euskarazko toki telebisten saioak gurean ikusgai

Urrian nobedade askorekin etorriko da GOITBko programazioa. Bertan ekoiztutako saioez gain, Tokiko elkartea osatzen dugun toki telebistetako saioak eskainiko dizuegu. Gaur egun sei telebistak osatzen dugu elkartea. Besteak beste, urrian estreinatuko ditugu: *Hitz bitan* mahai-ingurua, *Eltze beroa* sukaldaritza saioa, *Bizitegi* dekorazio saioa, *Ikusmira* erreportaje sorta, *Jazzmina*...

> ARRASATE IRRATIA

### Zinemaldiaren 'atzeko aldea' asteburuan entzungai

Donostiako Zinemaldiaren *atzeko aldea* ezagutu dugu asteon. Imanol Gallego kazetariarekin artisten *sekretutxoen* berri izan dugu eta Irene Zenitagoia loretan adituak, berriz, Zinemaldiko guneak nola apaindu dituzten kontatu digu.

Horretaz gain, udazkenaren gainean ere jardun dugu asteon, Pello Zabalarekin. Horiek guztiak *Asteko gainbegiratua*-n izango dituzue.

> ARRASATE IRRATIA

### 107.7ko autobusa uhineratuko dugu datorren astean

Atzean geratu da *Uda giroan* saioa eta aurrerantzean *Igo autobusera!* saioak hartuko du lekukoa.

Horrela, bada, ekainean agurtu genituen geltokiak berreskuratuko ditugu datorren astetik aurrera. Horien artean, lorategiarena, Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiarekin. Aurten, hamabostean behin egingo diogu bisita. Datorren martitzenean, etxeko balkoiak txukuntzen lagunduko digu.

**'JAIAK 2006'** > MARTITZENA ETA EGUAZTENA, 21:15

# San Migeletako: ospakizunak Aretxabaletan eta Oñatin

Aretxabaletan eta Oñatin ospatuko dituzte San Migel jaiak, eta han izango dira gure kamerak

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Udazkenarekin batera datoz San Migel jaiak gurera. Eguenean hasiko dira Oñatiko jaiak. Hara bidaliko ditugu gure erreportaririk saltseroenak; beraz, adi Oñatiko kaleetan Mikel Aranbururekin, Arantzazu Ezkibelekin edo Amaia Txintxurretarekin topo eginez gero. Oñatiko jaien saioa eguaztenean eskainiko dizuegu, 21:15ean.

Aretxabaletarrek, berriz, asteburuan ospatuko dituzte San Migelak, eta GOITBn martitzenean eskainiko dizuegu, 21:15ean.



**OÑATI** San Migel jaietan ibiliko dira GOITBko kazetariak. GOIENKARIA

**'HARMAILATIK'** > ASTELEHENA, 20:47 ETA 22:15

# Berako 4X4 auto trial erakustaldian eskoriatzarrak nagusi

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Uztailaren 29an egin zen Beran 4x4 auto trial erakustaldia. Basati elkarteak hirugarren aldiz antolatu du gero eta ospe handiagoa hartzen ari den erakustaldi hori. Eguraldia lagun, 35 parte-hartzaile lehiatu ziren bost gunetako zirkuituan. Proba gogorra eta luzea, lau ordu ibili baitziren 4x4 autoak Berako zirkuituaren oztopoak gaindítzen. Lehenengo postuetan bi eskoriatzar geratu ziren: Igor eta Jon, biak Suzuki auto banarekin. Aitzakia polita Jon Diaz astelehenean *Harmailatik* saiora gonbidatzeko. Julen Iriondo kazetariarekin batera, Berako erakustaldiaren irudiak komentatuko ditu. Gure bailaran ere antolatu izan dira horrelako probak, gero eta jarraitzaile gehiago baititugu Debagoienean.

Saioan ikusiko dituzuen irudiak Ttipi-Ttapa telebistarenak dira. Azken urteetan, elkarlanean ekoiztutako hainbat saio ikusi ahal izan dituzue Goiena Telebistan. Eta elkarlan horren azken emaitza da astelehenean eskainiko dizuegun *Harmailatik* saioa.

## telebegi

**Edorta Arana** > www.goiena.net/blogak/hamaika

## Hamaika

*Diario Vasco* edo *Correo* irakurzale bazara ez duzu jakiterik izan tokiko telebista euskaldunak sortarazteko Hamaika izeneko proiektua jarri dela martxan. Jaurlaritzak laster (baina berandu) aterako duen legearen barruan, eskualde bakoitzean euskaraz arituko den kanala bultzatu gura dute. Guk gurean, badugunez, ahaztu egiten dugu hemen baino euskaldun gehiago bizi diren eremu gehienetan ez dagoela euskarazko tokiko eskaintzarik. Barakaldon, Donostian, Irunen eta Gasteizen, esaterako, telebista lokalena panorama oso bestelakoa (ustelekoa) da. Horregatik, polita da Hamaika egitasmoaren berri eduki izana. Beraien esanetan, lan ugari daukate begien aurrean, eta segurutik hiru hauek kontuan hartu dituztela: emisio-eremu guztietara zabaltzeko bide desberdinak urratzea; bideragarritasun ekonomikoa, enpresariala eta profesionala lantzea eta, azkenik, baina ez garrantzi gutxienez, programazio eskaintza interesgarri bat eratzea. Hiru horietan, Goiena Telebistak badu eskarmentua. *Know how* hitzaren esangura hemen aurki dezakete.

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Pello Zabalarekin, udazkena berbagai; Ion Odriozola, Euskaltel-Euskadiko zunendaritza taldeko kide berriarekin; Donostiako zinemaldiaren gainean, Irene Zenitagoia lora aditua, Imanol Gallego, zinemaldiko berriemailea...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Merkatu txikiaren geltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 29**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Teknopolis. **14:15** MKT. **14:45** Berriak. **15:00** Iparrorratza. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klip@. **16:45** Berriak. **17:00** Erreportajea. **17:30** Eltze beroa. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16mm. **18:15** Teknopolis. **18:45** Berriak. **19:00** Klip@. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Bihurkorrak. **20:45** Gaurkoak **20:47** Behazulo. **21:15** Gatza eta berakatza. **21:30** MKT. **21:45** Berriak. **22:15** Ilunpean. **22:45** Gaurkoak. **22:47** Sustraia. **23:15** Izan ziren. **23:30** Eltze beroa. **23:45** Berriak.**00:15** Amaiera.

**Zapatua, 30**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak: Nonochan, Bihurkorrak eta Snorkeldarrak. **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa, sukaldaritza saioa. **12:15** 16 mm **12:45** Iparrorratza **13:45** Harmailatik. **14:15** Klip@: musika taldeen bideo klipak **14 :30** Astekoak. **14:45** Behazulo **15:15** Izan ziren. **16:00** Erreportajea. **16:30** Gatza eta berakatza. **16:45** MKT. **17:15** Elkartasunaren bideak. **17:45** Marrazki bizidunak:Snorkeldarrak eta Bihurkorrak. **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio eta Motzean **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Izan ziren. **22:00** Astekoak. **22:15** Elkartasunaren bideak. **23:15** Erreportajea. **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 1**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak: Snorkeldarrak, Nonochan eta Bihurkorrak. **11:00** Klip@. **11:15** Astekoak. **11:30** Iparrorratza. **12:00** Erreportajea. **12:30** Izan ziren. **13:00** Gatza eta berakatza. **13:15** Elkartasun bideak. **13:45** Klip@. **14:15** Marrazki bizidunak, Snorkeldarrak. **15:45** Ilunpean. **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Astekoak. **17:30** Marrazki bizidunak. **18:45** Klip@. **19:15** Iparrorratza. **19:45** Erreportajea. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean. **21:00** 16mm. **21:30** Behazulo. **22:00** Izan ziren. **22:15** MKT/Klip@. **23:00** Teknopolis. **23:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 2**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klip@. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Erreportajea. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Klip@ eta MKT. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klip@. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **20:45** Gaurkoak. **20:47** Harmailatik. **21:15** Gatza eta berakatza. **21:30** MKT. **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Gaurkoak. **22:47** Erreportajea. **23:15** Izan ziren. **23:30** Eltze beroa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 3**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia. **14:15** Klip@. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasunaren bideak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klip@. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz mintegia. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Behazulo. **18:15** Eltze beroa **18:45** Albisteak. **19:00** Klip@. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Gaurkoak. **20:47** 16mm. **21:15** Jaiak 2006:Aretxabaleta. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Gaurkoak. **22:47** Behazulo. **23:15** MKT. **23:30** Eltze beroa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 4**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire . **14:15** Danbaka. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:45** Gaurkoak **15:47** 16mm. **16:15** Klip@. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Jaiak 2006 **17:30** Zera dio. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm. **16:15** Klip@k. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Berbaire. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Sustraia. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klip@ **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Bihurkorrak. **20:45** Gaurkoak. **20:47** Erreportajea **21:15** Jaiak 2006: Oñatiko San migel jaiak. **21:45** Berriak. **22:15** Ilunpean. **22:45** Gaurkoak. **22:47** Elkartasunaren bideak **23:15** Izan ziren. **23:30** Eltze beroa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 5**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak: Nonochan. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Harmailatik. **14:15** Klip@. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Sustraia. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Behazuloa. **16:15** Klip@. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Jaiak 2006. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klip@. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak: Nonochan. **20:45** Gaurkoak. **20:47** Teknopolis. **21:15** Gatza eta berakatza, sukaldaritza saioa. **21:30** MKT musika saioa. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Gaurkoak. **22:47** 16mm. **23:15** MKT. **23:30** Eltze beroa, sukaldaritza saioa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.



Elgeta-Piel

*Orain, goizetan ere zabalik!*

Domingo Iturbe 8
**ELGETA**
Tel.: 943 76 81 12

**Martitzenetik zapatura:**
**10:30-13:00 eta 17:00-20:00.**
**Domeketan:**
**11:00-13:30.**
**Astelehenetan itxita.**



**Hizkuntza gehiago denontzat**
haur,
gazte,
helduentzat
**txinera - frantsesa - alemana - ingelesa - italiera**

**Beste zerbitzu batzuk**

- itzulpengintza eta interpretaritza
- ikastaro trinkoak
- murgiltze ikastaroak
- atzerriko ikastaroak
- ikastetxeko irakasgaietarako laguntza-eskolak

matrikula epea zabalik

**Klaseak:**
**Aramaion, Aretxabaletan, Arrasaten, Eskoriatzan, Oñatin**

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

MONDRAGON LINGUA

**Arrasate**
Araba Etorbidea 4 ■ Tel.: 943 71 20 55
mlarrasate@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

**Oñati**
Olakua 14 ■ Tel.: 943 71 60 00
mloinati@mondragonlingua.com
www.mondragonlingua.com

# Irailak 29-Urriak 6

LEIRE KORTABARRIA
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13

### Ikuskizuna



ELGETA

**> Aukeran taldeak 'Bideak' dantza ikuskizuna estreinatuko du**

Edu Muruamendiaratz bergarararren Aukeran taldeak bere ikuskizun berria estreinatuko du gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean. Sarrerak salgai daude, 10 eurotan bazkideendako eta 12tan gainerakoendako.

### Jaia



ARRASATE

**> Maritxu Kajoi jaiaren bederatziurrena ospatuko dute gaur, egubakoitza**

Maritxu Kajoi festaren atarian, gaur, egubakoitza, bederatziurrena izango da Herriko plazan, 18:30ean. Ohi bezala, gazta eta ardoa banatuko dituzte, eta jai batzordearen Enbutu Preziatuak banatuko dituzte sari bezala.

### Kontzertua




BERGARA

**> Lacuna Coil talde italiarrak disko berria aurkeztuko du Jam aretoan**

Lacuna Coil rock gogor estiloko talde italiarrak kontzertua egingo du bihar, zapatua, 20:00etan. *Comalies* diskoaren arrakastaren ondoren, *Karmacode* izeneko lana aurkeztera datoz. Kontzertu horretarako sarrerak salgai daude 22 eurotan.

## Antzerkia

ARETXABALETA

**> Ludoteka ikasturte hasierako antzerki emanaldia**

*Amama Pantxikaren altxor ezkutua* izeneko antzezlana egingo dute urriaren 6an, egubakoitza, Arlutz osteko plazan, 17:00etan. Familia osoarendako moduko ikuskizuna da.

Algara ludotekak antolatzen du.

## Musika

ARRASATE

**> Anari eta Sorkun bakarlariek emanaldia egingo dute**

Anari eta Sorkun bakarlariek kontzertua egingo dute 3.60 aretoan. Anarik Zebra izeneko diskoko, bere hirugarren laneko abestiak ekarriko ditu, eta Sorkunek Duna, bigarren lana, ekarriko du Arrasatera.

Nahastu ezineko estiloa dute bakarlari horiek: Anarik atmosfera bakartia eta malenkoniatsua sortzen daki, eta Sorkunek rocka lantzen du, baina, batez ere bigarren disko honetan, girotze bereziarekin.

Gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.

ARRASATE

**> Ene! disko-jartzaileak emanaldia egingo du**

Ene! kogollo crew disko-jartzaileak musika ipiniko du 3.60 aretoan.

Bihar, zapatua, 03:00etan.

## Jaiak

ARETXABALETA

**> San Migel jaiak ospatuko dituzte asteburu osoan**

Honako ekintzak egingo dituzte: gaur, egubakoitza, buruhandiak (19:00), Erdi Aroko kondairaren antzezpena (19:30) eta Gero taldearen umeendako dantza ikuskizuna (22:30); bihar, zapatua, artisau feria eta 12. azoka biologikoa (10:00-14:00), diana herriko txistulariekin (10:30), trikitilarien kalejira (11:30), txalaparta emanaldia (12:30), salda-jana (13:00), herri bazkaria (14:30), Larrin dantza (18:00), Txatunga Benbe taldearen kalejira (19:00) eta Euskdiskoteka (22:00); etzi, domeka, herri kirolak (13:00), mus txapelketa (16:00) eta kontzertua (19:00).

Kaleko emanaldiak herriko plazan eta Durana kalean izango dira; barruko emanaldiak, Iturrigorri frontoian.

BERGARA

**> San Migelak ospatuko dituzte asteburuan Angiozar auzoan**

Honako ospakizunak izango dituzte: gaur, egubakoitza, meza eta erretiratuendako luntxa (11:00), danborrada (19:00), San Migelen zeruratzea (20:00) eta rock kontzertuak (23:00); bihar, zapatua, plater tiroketa (15:30), umeendako jolasak (17:00), briska txapelketa (17:30) eta herri afaria (21:00); eta etzi, domeka, meza nagusia (11:00), AHTren aurkako kontzentrazioa (12:30), herriko tabernetan poteoa eta bazkaria (13:00), herri kirolak (17:00), mus txapelketa (18:00), pilota partiduak (19:00) eta jai bukaera ekitaldia (20:00).

Gaur, egubakoitza, da San Migel eguna.

## Erakusketak

BERGARA

**> Kirol argazki lehiaketako lanen erakusketa**

Bergarako 22. Kirol Argazki lehiaketako lanak erakusketan ipiniko dituzte gaur, egubakoitza, Aroztegi aretoan. Urriaren 1era arte izango da zabalik.

Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:30-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:30-21:30; domeketan, 12:00-14:00.

BERGARA

**> Pedro Luis Ormazabalen argazki erakusketa**

Pedro Luis Ormazabalen argazkiak egongo dira erakusketan Aroztegi aretoan urriaren 6tik 29ra bitartean. Ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan, 12:00-14:00.

Urriaren 6an zabalduko dute 18:00etan.

BERGARA

**> Ageriko margo lehiaketako lanen erakusketa dago**

33. Ageriko Margo lehiaketako lanak ikusteko parada dago bihar, zapatua, bitartean kultura etxeko erakusketa aretoan. Beart elkarteak antolatzen du.

Ordutegia: gaur, egubakoitza, 18:00-21:00; bihar, zapatua, 12:00-14:00.

## Ikuskizunak

BERGARA

**> Film laburren lehiaketako lanak eta sari banaketa**

I. Bergarako Film Laburren lehiaketara aurkeztutako zortzi filmak emango dituzte. Honakoak dira: *Krake lur* (Alberto Pecharroman), *Ebaki* (Mikel Calvo), *Tuberkulo* (Yera Sanchez), *Cool Panic -Show me the way* (Josu Otaegi), *Cartografiando nubes* (Felix Pascual), *Trellats* (Eraitz Loiti eta Irene Ortiz), *Poder sin poder* (Iñaki Laguardia eta Imanol Cordovilla) eta *McGuffin* (Ainize Arrieta eta Juanma R. Pachon). Segidan, sariak banatuko dituzte.

Gaur, egubakoitza, Agorrosinen, 19:00etan.

## Lehiaketak

DEBAGOIENA

**> Euskadiko argazki zaharren lehiaketa, KZguneetatik**

Euskadiko 1975 aurreko argazki lehiaketa antolatu du Eusko Jaurlaritzak, eta KZguneetatik parte har daiteke horretan. Trolley maletak, reflex kamera digital bat eta belaunaldi berriko bideokamerak dira sariak.

Argibideak: *www.kzgunea.net.*

ARAMAIO

**> Aramaioren gaineko argazki lehiaketa deitu du Udalak**

Aramaioren gaineko argazkiak behar dituzte udal argitalpenetarako (egutegiak, esku-orriak eta beste batzuk). Norberak nahi adina argazki aurkez ditzake, koloretan edo zuri-beltzean. 200, 150 eta 100 euroko sariak daude.

Urriaren 20a baino lehen utzi behar dira lanak udaletxean edo kultura etxean.

## Bestelakoak

ESKORIATZA

**> Bertso-afaria egingo dute bihar, zapatua**

Bertso-afaria antolatu dute biharko, zapatua, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso bertsolariekin.

Apotzagan izango da afaria, 21:30ean.

BERGARA

**> Txapa irratiak batzar orokorra deitu du biharko, zapatua**

Txapa irratiak dei egiten die batzarrera irratsaioren bat egin nahi dutenei.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 12:30ean.

PROPOSAMENA

OÑATI

### > San Migelen ohorezko jaiak ospatuko dituzte

Herriko jai nagusiak ospatuko dituzte oñatiarrek asteburuan, gaur hasita (egubakoitza); izan ere, gaur da Mikel Deunaren eguna. Musika bandaren emanaldiak, jolasparkea, kale antzerkia eta txosnaguneko kontzertuak izango dira, besteak beste. Bihar, zapatua, Herri Eguna ospatuko dute, azokarekin, kirol ekitaldiekin... eta etzi, domeka, Errosaixo Eguna, koadrilen jokoak, kale animazioa... izango dira.

Koadrilak mozorrotu egingo dira astelehenean, Errosaixo Bixamona.



**nire aukera**



M. Elena Estenaga
Liburuzaina
Elgeta

## "Naturaz gozatzeko garaia iritsi zait"

Etxetxo bat dugu aspaldian Errioxan, eta asteburu guztietan hara joaten gara senarra eta biok. Baina ez gara han geratzen: mapa hartu eta alde batetik bestera ibiltzen gara, Errioxan, Burgosen, Sorian... Hango paisaiak eta herriak ezagutzen. Goizaldean irteten gara, eguneko menua jaten dugu eta iluntzean etxera bueltatzen gara. Leku benetan zoragarriak ezagutu ditugu horrela. Porlana ez zait batere gustatzen; natura, mendiak, ibaien jaiotze lekuak... gustatzen zaizkit.

**Natura da zure zaletasun handiena?**
Orain naturaz gozatzeko garaia iritsi zait, bai, eta asko disfrutatzen dut.

**Gidari ala kopilotu nahiago?**
Senarrak gidatzen du, eta oso lasai joaten naiz, gidari ona delako. Ni oso ondo ibiltzen naiz kopilotu joanda: paisaia guztiak ederki ikusten ditut.

**Mapak asko erabiltzen dituzue?**
Bai, eta ohitura bat dut: egindako ibilbideak markatu egiten ditut, gogoratzeko han ibili garela. Sarri, mapetan agertu ere egiten ez diren bideak egiten ditugu.

**Lekuren bat baduzu gogoan?**
Niretako berezia izan zen, adibidez, Cañon del Rio Lobos; izan ere, han tenplarioek egindako eraikuntza bat dago. Ermita bat dago, kobazulo batzuk... Leku misteriotsua zen. Asko gustatzen zait mundu hori.

**Leku bakoitzeko janariak ere hartzen dituzue?**
Bai, baina bere neurrian, nahiko koipetsuak dira-eta.

# Zinema

## ARRASATE
### AMAIA ANTZOKIA

**Kutsidazu bidea, Ixabel**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Julieta, fokatxo xelebrea**
Domeka: 17:00.

## BERGARA
### AGORROSIN

**Bergarako gazteen film laburrak**
Egubakoitza: 19:00.

## ELGETA
### ESPALOIA ANTZOKIA

**Habana blues**
Eguaztena: 21:30.

## EIBAR
### UNZAGA

**Kutsidazu bidea, Ixabel**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### RIALTO

**United 93**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ
### GURIDI

**Alatriste**
17:00, 19:45, 22:30.

**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**
17:00, 18:45, 20:30.

**La última puerta**
18:45, 20:30, 22:30.

**World Trade Center**
17:30, 20:00, 22:30.

**Kutsidazu bidea, Ixabel**
17:30, 20:00, 22:30.

**United 93**
17:30, 20:00, 22:30.

**Monster house**
17:00.

**Una casa en el fin del mundo**
22:30.

**Mi mejor enemigo**
17:30, 20:00, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**El viento que agita la cebada**
17:00, 19:45, 22:30.

**El perro mongol**
17:30, 20:00, 22:30.

**Grizzly man (J.B.A.)**
17:30.

**Gracias por fumar**
20:00, 22:30.

**La distancia**
17:30, 20:00, 22:30.

**Vete de mí**
17:30, 20:00, 22:30.

**Salvador**
17:00, 19:45, 22:30.

**Desayuno en Plutón**
17:00, 19:45, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Pequeño pero matón**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**Alatriste**
17:00, 20:00, 23:00.

**Cars**
16:30.

**Chica XXL**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**Locos por el sexo**
19:00, 22:15, 00:30.

**Garfield 2**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**El jefe**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**A la deriva**
22:15, 00:30.

**La joven del agua**
16:30, 19:00, 22:15, 00:30.

**Piratas del Caribe 2**
17:00, 19:00.

**Ciudad sin ley**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**Alatriste**
12:15, 15:45, 18:30, 21:30, 00:30.

**Monster house**
12:15, 16:10, 18:10, 20:10.

**Stay alive**
22:05, 00:05.

**Corrupción en Miami**
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

**Separados**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Pequeño pero matón**
12:15, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Piratas del Caribe 2**
12:15, 16:00, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:45.

**El viento que agita la cebada**
12:15, 17:00, 19:30, 22:00, 00:25.

**Garfield 2**
12:15, 16:20, 18:20.

**La joven del agua**
21:45, 00:00.

**Ant bully**
12:15, 16:05, 18:05.

**La noche de los girasoles**
19:45, 22:05, 00:20.

**La máquina de bailar**
20:15, 22:30, 00:45.

**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00.

**Mi súper exnovia**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La última puerta**
12:15, 16:45, 18:45, 20:45, 22:45, 00:45.

**World Trade Center**
12:15, 16:30, 19:00, 21:30, 00:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO BOULEVARD

**Alatriste**
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:00.

**Monster house**
12:10, 16:15, 18:15, 20:15, 22:15, 00:30.

**World Trade Center**
12:10, 17:00, 19:40, 22:15, 01:00.

**La máquina de bailar**
12:00, 16:00, 18:05, 20:20, 22:30, 00:45.

**La distancia**
12:15, 16:05, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Garfield 2**
12:15, 16:20, 18:20, 20:05.

**Corrupción en Miami**
12:00, 17:00, 19:45, 22:25, 01:00.

**Ant bully**
12:00, 17:00.

**Mi súper exnovia**
12:00, 16:15, 18:15, 20:15, 22:20, 00:45.

**Piratas del Caribe 2**
19:15, 22:10, 01:00.

**Separados**
12:00, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

**Salvador**
12:10, 17:00, 19:45, 22:20, 01:00.

**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**
12:15, 16:25, 18:10, 20:00, 22:05, 00:30.

**Clerks 2**
22:10, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Salvador**
Espainia-Erresuma Batua, 2006.
Zuzendaria: Manuel Huerga.
Aktoreak: Daniel Brühl, Tristán Ulloa, Leonardo Sbaraglia.
138 min. Drama.
70eko hamarkada hasieran, Askapenerako Iberiar Mugimenduak langile mugimenduari laguntzen dio. Poliziak hainbat kide atxilotzen ditu, tartean Salvador Puig Antich. Giro politikoak, epaiketa faltsutua eta Antich-en exekuzioa kontatzen ditu filmak.

**Gracias por fumar**
AEB, 2006. Zuzendaria: Jason Reitman. Aktoreak: Aaron Eckhart, Maria Bello, Cameron Bright.
92 min. Komedia.
Nick Naylor tabako-enpresa handien bozeramalea da. Bere eginkizuna da gaur egun erretzaileen eta enpresa horien eskubideak defenditzea, osasuna babestu gura dutenen eta erretzea kondenatzen duten guztien aurrean.

**Nueve vidas**
AEB, 2006. Zuzendaria: Rodrigo Garcia. Aktoreak: Kathy Baker, Amy Brenneman, Elpidia Carrillo.
114 min. Drama.
Bederatzi emakumeren bizitzako une bat jasotzen du filmak: gartzelan dagoen emakumea, iraganeko harreman bat berragertzen zaiona, gurasoen harreman kaltegarrian harrapatuta dagoen neska gaztea...

**Click**
AEB, 2006. Zuzendaria: Frank Coraci. Aktoreak: Adam Sandler, Kate Beckinsale, Christopher Walken.
107 min. Komedia.
Lanean eta etxean gogait eginda dagoen arkitektoa da Michael Newman. Halako baten, urrutiko kontrol unibertsal bat erosten du eta konturatzen da inguruko pertsonak eta gertakariak kontrolatzeko balio diola.

**Separados**
AEB, 2006. Zuzendaria: Peyton Reed. Aktoreak: Jennifer Aniston, Vince Vaughn, Joey Lauren Adams.
105 min. Komedia erromantikoa.
Bikotea apurtu egiten denean hasten da filma. Garyk eta Brookek banantzea erabakitzen dute, baina ez dute konpartitzen duten etxetik alde egin nahi...

**World Trade Center**
AEB, 2006. Zuzendaria: Oliver Stone. Aktoreak: Nicolas Cage, Michael Peña, Maggie Gyllenhaal.
129 min. Drama.
John eta Will New York hiriko Portu Aginteko poliziak dira, eta 2001eko irailaren 11ko erasoetan hainbat lagun salbatu ondoren, Dorre Bikien hondamendian harrapatuta gelditzen dira. Benetako pertsonen esperientzian oinarrituta dago filma.

**Lo que sé de Lola**
Frantzia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Javier Rebollo. Aktoreak: Michaël Abiteboul, Lola Dueñas.
112 min. Drama.
Léon gizon bakartia da. Bakardadetik ihes egiteko, bizilagunen posta lapurtzen du, elkarrizketak entzuten ditu izkutuan... Halako baten, Dolores izeneko espainiar zalapartatsu bat bere auzora joango da bizi izatera.

**Algo parecido a la felicidad**
Txekia, 2005. Zuzendaria: Bodhan Slama. Aktoreak: Pavel Lijka, Tatiana Vilhelmova, Ana Geislerova.
100 min. Drama.
Monika, Tonik eta Dasha betidanik dira adiskideak. Dashak bi ume ditu eta ezkondutako gizon batekin dabil. Egoera horrek bere onetik ateratzen duenean, psikiatrikoan sartzen dute eta Monika eta Tonik-ek umeak zaindu beharko dituzte.

**El viento que agita la cebada**
Irlanda-Erresuma Batua-Alemania-Italia-Espainia, 2006. Zuzendaria: Ken Loach. Aktoreak: Cillian Murphy, Pádraic Delaney. 124 min. Drama.
Irlanda, 1920. Matxinada independentistak isilarazteko gudaloste britainiarra iristen da. Horiei aurre egiteko, nekazari gazte batzuk batu egiten dira.

**La increíble pero cierta historia de Caperucita Roja**
AEB, 2005. Zuzendaria: Cory Edwards. Aktoreak (ahotsak): Leonor Watling, Amparo Baro, Carlos Latre.
80 min. Animaziozkoa.
*Txanogorritxo*-ren ipuina bukatzen den unean hasten da filma: amonatxoaren etxean polizia eta ikertzaile batzuk agertzen dira. Hasieran, argi dirudi zer gertatu den: aizkolari batek amonatxoz jantzitako otsoari eraso egin dio.



## Lo que sé de Lola
***

**Zuzendaria:** Javier Rebollo.
**Aktoreak:** Michaël Abiteboul, Lola Dueñas, Carmen Machí.
Frantzia-Espainia, 2006.
112 min. Drama.

Gaurko kritika irakurri barik, jarritako izarrak soilik kontuan izanik, filma ikustera joaten den ikusleak agian ezuste galanta izan dezake. *Lo que sé de Lola*, Javier Rebolloren lehen film luzea –Donostiako Zinemaldian joan den martitzenean estreinatu zen–, ikustea merezi duen lana izan arren, ez da ohituta ikustera gauden film bat. Eta datu horretan datza bere balio nagusia. *Lo que sé de Lola* ez da film erraza, zuzendariak asko arriskatzen du, komertzialtasunetik ihes egiten du, oso lan pertsonala egiteko.

Rebollok filmatzeko oso modu soila du: ez du musikarik erabiltzen, ia ez daude kamera mugimenduak, *off* ahotsa izan ezik, oso gutxi hitz egiten da, ez dira gauzak gehiegi zehazten. Gizon bakarti bat bere ondoan bizi den neska bat espiatzen ari da; hori da istorioaren ardatz nagusia. Filmak ia denbora osoan –bada salbuespen bat– gizonaren ikuspuntua du, horrela, guk berak ikusten duena ikusten dugu, eta berak entzuten duena entzuten dugu, ez gehiago. Ez zaigu dena aditzera ematen, *off*-ean gertatzen dena interpretatu behar dugu, elipsiek garrantzi handia dute, ez ditugu datu guztiak, eta hutsuneak betetzea tokatzen zaigu. Zuzendariak proposatzen digun erritmo eta izaera geldoa onartzen badugu –hori bai, horretarako pazientzia pixka bat behar da–, istorio nahiko itxi honetan sartzeko zirrikitu bat aurkituko dugu. Horrela ez bada, istoriotik kanpo geratuko gara eta filma gorrotatu egingo dugu.

**Antonio Zabala**

ZINEMA MERKEAGO
Txartel hau moztu eta sarrera merkeago izango duzu
www.cinesabaco.com
SARREREN SALMENTA ServiCaixa 902 52 08 52 www.cinesabaco.com
C.C EL BOULEVARD
C.C LAKUA
Promozio baliagarria 2006-10-31, astelehenetik ostiralera, jai egunetan eta bezperetan izan ezik. Ez da bateragarria beste promozioekin.
ÁBACO ZINEMA MAILA GORENEAN

**Goienkaria**

**EGOITZA NAGUSIA**
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Harpidetza:** 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-09-29

# Danbor hotsak Angiozarren

**ESKOLATIK** Angiozarko Eskolako guraso elkartearen ekimena izan da San Migeletan danborrada egitea

**ESTREINALDIA** 'Angiozarko martxa' estreinatuko dute danborradan; Oihan Vegak konposatutakoa da

**ZERURATZEA** Urtero bezala, globoekin lagunduta, santuaren irudiaren zeruratzea egingo dute domekan

**EDU MENDIBIL** > ANGIOZAR

Aurtengo San Migel eguna berezia izango da Angiozarren: gaur arratsaldeko danborradan Angiozarko martxa estreinatuko dute. 50 lagun inguruk hartuko dute parte 19:00etan aterako den danborradan. Iaz nolabaiteko saiakera egin bazuten ere, gaurkoa danborradaren estreinaldi ofiziala izango da: haurrak, gazteak eta helduak aterako dira, tartean Angiozarko Eskola Txikian ari diren zortzi ikasleak, 2 eta 5 urtera bitartekoak. Hezkuntza Sailaren erabakiaren ondorioz, aurtengo ikasturtean ez dute Lehen Hezkuntza eskainiko.

Hain zuzen ere, Angiozarko Eskolako guraso elkartearen ekimena izan da danborrada egitea. Danborradako partaideak eskolako kamisetekin aterako dira, eskola txikien garrantzia aldarrikatzeko. Bergarako Musika Eskolako Gazteen Bandak hartuko du parte eta Bergarako Udalak utzitako danborrak erabiliko dituzte. Ereserkiari dagokionez, Oihan Vegak konposatu du: "Bergarako beste elkarte batzuen martxen estilokoa da, danborrekin jai giroan jotzeko aproposa", diosku Vegak. Letra honela hasten da: *"Angiozarko mendi ta zelai paisaia/Herri txiki ta lasaia/ Umoretsu eta alaia/Pagomendin topa, Arbiaskan joka..."*.

**SAN MIGELEN ZERURATZEA**

Domekara bitartean hainbat ekitaldi iragarri dituzte Angiozarren, gaur gaueko kontzertua eta zapatuko herri afaria tartean. Domekan, Abiadura Handiko Trenaren aurkako eguna ospatuko dute: eguerdian kontzentrazioa egingo dute plazan.

Jaietako beste berezitasun bat zera izaten da: San Migelen zeruratzea. Globoekin lagunduta, santuaren irudia zeruratuko dute domeka iluntzean. Bidaia luzeak egin izan ditu angiozartarren zaindariak: Riañora, Leonera eta Okzitaniako Tolosaraino iritsi izan da. Santuaren irudia topatzen duenarendako izaten da saria: bi lagunendako afaria eta 150 euro.



**DANBORRADA** Eskola Txikiko ikasleek parte hartuko dute danborradan. Argazkian, Anselmo Vega *Mito* irakaslearekin. E.M.

## ahobero

### "Laster zinemako izarrek jet pribatua bakarrik erabiliko dute, eta hori ezin dugu ordaindu"

**Mikel Olaziregi** > Donostiako Zinemaldiko zuzendaria

Izarren falta, aktore ezagunen hutsunea leporatzen diote askok Donostiako Zinemaldiari. Hala ere, izar horietako asko apetatsuak omen dira eta hobe izango da euren filmekin konformatzea. Hainbat izarrek, gertu-gertura, distira galtzen dute.

## iturri onetik

### Gose eta Potemkin taldeen kantuak Gorritiberearen 'Eutsi' filmean

Alberto Gorritiberearen *Eutsi* filmean Debagoieneko bi musika taldek hartuko dute parte. Filmaren musika Bingen Mendizabalena da, baina Gose Arrasateko taldearena da filmeko kantu nagusia, *Eutsi* izenekoa. Era berean, Gatillazoren bertsio bat egin dute Gosekoek filmerako. Potemkinek, berriz, Zarama taldearen bertsio bat egin du. Filma datorren urteko udaberrian estreinatuko da.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Gatzaga blues

Arrasate-Gasteiz busez egitea tokatu zait berriki. Eskoriatzan Gatzagako bide zaharra hartu zuenean ikusmina piztu zitzaidan, ea nola moldatzen zen ibilgailu tzarra bide estu eta bihurrian.

Eta oso txarto moldatu zen. Auto batekin gurutzatzen zen bakoitzean, gelditu eta maniobra adostu behar. Erripan, neke handiarekin eta ilarak sortuz. Eta bihurgunetan, aurrekoa jo edo bazterrak urratzeko arriskuarekin. Total, Gatzagara iritsi ginenean, inor ez zegoela busaren zain.

Herri txiki eta auzoen aldekoa naiz, auzo baten bizi naiz. Eta uste dut Gatzagak behar duela komunikazio duina, goiko eta behekoekin. Baina horrela? Ez litzateke erosoago taxi zerbitzua adostea Lurraldebusekin, busa hartzeko Gatzagainen edo Eskoriatzan?

## ai, ene!



### Moda berria, hoteleko jabeen haserrerako

Hoteleko ohean saltoka argazkirik atera duzu aurtengo udan? Ba beheko helbidean horrelako argazkiak jasotzen dituzte.

http://www.bedjump.com/

